


# Heptameron

Zazpi egun itxialdian

Margarita Nafarroakoa





# BOOKTEGI

*Guztion liburuak, guztiontzat*

[booktegi.eus](http://booktegi.eus)

ATENEO  
NAVARRO



NAFAR  
ATENEOA

MARGARITA NAFARROAKOA

# heptamerona

lehenengo eguna

itzulpenak:

Fito Rodriguez

Xabier Artola Zubillaga

zuzenketak:

Josu Zabaleta Kortaberria

azala:

Uxue Pascual

## AURKIBIDEA

Aitzinsolasa

Lehen istorioa

Bigarren istorioa

Hirugarren istorioa

Laugarren istorioa

Bosgarren istorioa

Seigarren istorioa

Zazpigarren istorioa

Zortzigarren istorioa

Bederatzigarren istorioa

Hamargarren istorioa

## Aitzinsolasa

Irailaren lehen egunean, Pirinio mendietako bainuetxeek beren sasoia abiatzen zutelarik, Cauterets-ekoetan hainbat pertsona kausitu ziren, Frantziakoak zein Espainiakoak, batzuk ura edateko, bertze batzuk bainuak hartzeko eta bertze batzuk lokatzetan murgiltzeko; hain gauza miragarriak guziak ere, non medikuek baztertu eriak ere osoki sendaturik itzuli ohi baitira handik. Baina ene asmoa ez da bainuetxe horien egoera edo bertuteak azaltzea, eskribitu nahi dudanerako egokitzen dena kontatzea baizik. Bainuetxe haietan hiru aste baino gehiago gelditu ziren eri guziak, egin zuten hobekuntza zela-eta itzultzen ahal zirela jakin zuten arte. Baina abiatzekoak zirelarik euriteak etorri ziren, hain harrigarri eta handiak, non bazirudien Jainkoak ahantzia zuela Mundua urez berriz ez suntsitzeko Noeri egin agindua; zeren Cauterets horretako etxola eta aterpetxeak oro hainbertzeraino bete zituzten urek, non ezinezkoa izan baitzen han gelditzea. Espainia aldetik helduak ahal izan zuten bezala itzuli ziren mendietan gaindi, eta bideen berri zutenak izan ziren hartatik libratzen ongien ibili zirenak. Baina frantses zaldun eta damak, pentsatuz Tarbesera handik jin bezain aise itzuliko zirela, hain haziak kausitu zituzten erreka txikiak, non doi-doi iragan baitzitezkeen. Eta Bearnoko uhaitza zeharkatzeko unea iritsirikoan, joanekoan bi oin sakon doi ez zena hain handi eta oldartsu kausitu zuten, non zubien bila desbideratu baitziren, baina horiek, zurezkoak izaki, eramanak zituen uraren indarrak. Batzuek uste izan zuten elkarturik egiten ahal ziotela buru korronteari, baina hain laster eraman zituen urak, non gibeletik zirenei joan egin baitzitzazkien berdin egiteko gogo-ahalak. Hori zela-eta, bai bertze bide batzuk xerkatzeagatik eta bai iritzi desberdinak zituztelako, ibiltariak bereizi egin ziren. Batzuek mendietako gailurrak iragan zituzten, eta, Aragoi barna, Rosellóko konderrira jo zuten, eta handik Narbonara; bertze batzuk Bartzelonara joan ziren zuzenean, eta handik, itsasoz, batzuk Marseillara eta bertze batzuk Aigues-Mortesera joan ziren.

Baina esperientzia handiko dama alargun batek, Oisille izenekoak, bide txarrei buruzko beldur oro alde batera utzi nahi izan zuen, harik eta Andredena Maria Zarrantzakora heldu zen arte. Ez zen Ama Birjina loriatsua, bere Semearen eskuinean jarririk zegoen lekua utziz, lur bakarti haietara etorri zela pentsatzeko bezain superstiziosoak; baina ikusi egin nahi zuen hainbertze aldiz aditzera zuen lekua. Segur baitzen, orobat, arriskutik ihes egiteko moduren bat egotekotan, fraideek kausitu beharko zutela. Eta hainbertze entseatu zen, ezen arribatu egin baitzen, hain leku arrotz eta igotzeko eta jaisteko hain zailetatik pasatuz, non ez adinak ez eta pisuak ere ez baitzuten libratu bidearen gehiena oinez egitetik. Baina jende eta zaldi gehienak bidean hilik gelditu ziren, tamalez, eta gizon batekin eta emazteki batekin bakarrik heldu zen Zarrantzara, non fraideek bihotz-zabal hartu zuten.

Frantsesen artean baziren bi zaldun ere, bainuetxera areago joanak damei lagun egiteagatik, haien zerbitzari baitziren, osasun faltagatik baino. Zaldun horiek, konpainia alde egiten ari zela ikusiz, eta damen senarrek haiengandik aparte mantentzen zituztela, pentsatu zuten haien ondotik jarraitzea, urrunetik, nehorri erran gabe. Baina arrats batean, bi zaldun ezkonduak eta beren emazteak heldu zirelarik etxe batera, zeina baserritarra baino areago lapurra zen gizon batena baitzen, hurbileko etxetxo batean hartu zuten ostatu bi zaldunek; eta gauerdian inguruan azantz handi bat entzun zuten. Beren sehiekin batera jaiki eta ostalariari galdetu zioten zer nahasmena ote zen hura. Gizon gaixoak, hark ere bai baitzuen beldurrik, erran zien ezen beren zatiaren xerka heldu ziren mutiko gaizto batzuk zirela, harrapakina haren gaizkidearenean zegoen eta. Pentsatu gabe, zaldunak beren armak hartu eta damak laguntzera joan ziren sehiekin batera, emazteki haiengatik hiltzea estimu handiagoan baitzuten haiek gabe bizitzea baino. Etxera orduko lehen atea hautsirik kausitu zuten, eta bi zaldunak beren sehiekin defentsan ari zirela, adore handiz. Baina, bidelapurrak gehiago zirenez eta berak arras zauriturik zeudenez, gibelerak egiten hasi ziren, beren zerbitzarien parte handi

bat jadanik galdua zutela. Bi zaldunek, leihotik begiratzean, damak garrasika eta negarrez ikusi zituzten, hain goraki, non urrikalmenduak eta maitasunak bihotza adoreagotu baitzieten, eta, menditik jaitsiriko bi hartz amorratuk bezala, hain bortizki oldartu ziren bidelapurren kontra, non hil andana egin zieten, eta bizirik gelditu zirenek, haien kolpeen zain egon gabe, berehala egin zuten ihes beren babeslekuetara. Zaldunek, gaizto haiek kolpatu ondoren, eta ostalaria izaki hilikoetarik bat, jakin zuten ostalariaren emaztea okerragoa zela hura baino, eta haren senarrarekin batera igorri zuten ezpata kolpe batez; baina, beheko ganbera batean sartzean, zaldun ezkonduetarik bat kausitu zuten azken hatsa ematen. Bertzeak ez zuen minik izan, arropa guzia kolpeez urratua eta ezpata hautsirik zuela izan ezik. Gaizo jaunak, ikusiz haiek biek eman laguntza, biak besarkatu eta eskerrak eman ondoren, ez joateko galdegin zien, eta haiek plazer handiz hartu zuten haren galdea. Beraz, hiliko zalduna hobiratu eta haren emaztea ahalik eta hobekienik kontsolatu ondoren, Jainkoak erakutsi bidea hartu zuten, nondik norat joanen ziren jakin gabe. Eta hiru gizon haien izenak jakin nahi badituzue, senarrak Hircan zuen izena eta haren emazteak Parlamente; alarguna, Longarine zen; eta bi zaldunen izenak, berriz, bata Dagoucin eta bertzea Saffredent. Eta egun osoa zaldiz eman ondoren, bistatu zuten arratsean kanpandorre bat, eta ahalik ongiena arribatu ziren hara, direnak eta ez direnak pasaturik arribatu ere. Eta gizatasunez hartu zituzten hango abadeak eta fraideek. Abadia hura Saint-Savyn deitzen da. Abadea oso etxe onekoa zen eta ohorezki hartu zituen; eta, ganberetara zeramatzala, beren abenturei buruz galdetu zien; benetan gertatuaren berri jakin ondoren, erran zien ez zirela halakorik probatu zuten bakarrak; izan ere, bazirela hango ganbera batean bi dontzeila, arrisku berdintsu edo are handiago batetik ihes eginak, haien afera piztiekin izan bazen ere eta ez gizonekin. Dama gaixoek, menditik jaisten ari zen hartz bat kausitu zuten Pierrefitetik honantz legoa erdira, eta, harengandik ihes eginez hain bizkor jin ziren, non zaldiak hilik erori baitzitzaizkien abadiaren sarreran; haiekin ziren emaztekietarik bik, zeinak handik denbora luzera heldu baitziren, erran zieten gainerako zerbitzari guziak hil zituela hartzak. Bi damak eta hiru zaldunak emazteki haiek ziren ganberan sartu zirelarik, negarrez kausitu zituzten, eta Nomerfide eta Ennasuite zirela jakin zuten; haiek besarkatu egin zituzten eta gertatu zitzaiena kontatu zieten, eta kontsolatzen hasi ziren abade onak egin ele goxoekin, eta elkar kausitu zutelako horrela; goizean meza entzun zuten debozio handiz, Jainkoa goretsez arrisku haietarik libratu zituelako.

Horrela, denak mezatan zirelarik, sartu zen elizan gizon bat atorra hutsik, gibeletik nehor jazarrika balu bezala ihesi, eta laguntza eskatuz oihuka. Hircan eta bertze gizonak berehala joan zitzaizkion zer zuen ikusteko, eta bi gizon atzeman zituzten haren gibeletik beren ezpatak idokirik, zeinek, halako jendetza ikusirik, ihesari eman nahi izan zioten; baina Hircanek eta bere lagunek hain hurbiletik jarraitu zieten, non han berean galdu baitzuten bizia. Eta Hircan hori, itzuli zelarik, ohartu zen atorraz jauntzirik zihoana bere bidelagun Geburon zela, zeinak kontatu zien nola, Pierrefitetik hurbil dagoen etxola batean zegoela, hiru gizon heldu ziren, bera ohean zela; eta, atorra hutsik bazegoen ere, ezpataz hain ongi jo zuen bat non han berean gelditu baitzen. Bertze biak laguna sokorritzen gelditu zirelarik, eta ikusiz bera biluzik zegoela eta haiek armaturik, pentsatu zuen ezinen ziela deusetan irabazi ezpada ihesean, arropa karga gutien zuena izanik, eta hori zela-eta laudatzen zituen Jainkoa eta mendekua hartu zuten haiek.

Meza entzun eta bazkaldu ondoren, ikusi nahi izan zuten ea posible zen Gave ibaia zeharkatzea; ezinezkoa zela jakinik, lur jorik gelditu ziren, baina abadeak urak beheratu arte han gelditzeko eskaintza egin zien behin eta berriz; eta egun baterako onartu egin zuten. Eta arratsean, oheratzeaz zirela, heldu zen Zarrantzako iraileko Ama Birjinarenera urtero hutsik egin gabe jin ohi zen fraide zahar bat, eta, bere bidaiaren berri galdegitean, erran zuen ezen, uholde handien ondorioz, menditik heldua zela, nehoiz ibili zituen bide makurrenetatik, baina zoritxar handi bat ikusteko parada izan zuela: Simontault izeneko zalduna kausitu zuela, zeina, ibaiko urak jaitsi zain zeraman denboraz unaturik, nola edo hala iragatera deliberatu baitzen, zaldiaren senaz fidaturik, eta bere

zerbitzari guziak inguruan ezarri zituela, korrontearen indarrari kontra egiteko. Baina, korronte handiaren erdian zirelarik, zamari eskasena zituztenak urak eraman zituen, gizonezkoen eta zaldien ahaleginak gorabehera, eta ez zen gehiago haien berririk izan. Zaldunak, berriz, bere burua bakarrik kausitzean, zaldia gibelerat itzularazi nahi izan zuen, baina ez zuen behar bezain zalu egiten asmatu eta zaldia azpian hondoratu zitzaion; baina Jainkoak nahi izan zuen zalduna ertzetik hurbil gertatzea eta, ur asko irentsi arren, lau hankan herrestaka kanporatu zen harri gogorretaraino, hain akiturik eta ahul non ezin baitzen zutik ere egon. Eta halako zortea izan zuen, non artzain batek, arratsean ardi biltzen zebilela, harri artean jarririk kausitu baitzuen, osoki blai eta triste, begien aitzinean galtzen ikusiak zituen bere jende haiengatik. Artzainak, haren premia ulertu baitzuen, ikusi hutsez ia hobeki haren eleak entzunez baino, eskutik heldu eta bere etxe pobrera eraman zuen, non ahalik eta hobekienik lehortu zuen egurtxo batzuk sutan jarriz. Eta, arrats hartan, fraide on hura igorri zuen hara Jainkoak, eta hark erakutsi zion Andredena Maria Zarrantzakorako bidea, eta segurtatu zion han bertze nehon baino hobeki aloituko zela, eta bertan kausituko zuela Oisille izeneko alargun zaharra, abenturetan lagun izanzen zitzaiona. Bildurikoek jakin zutelarik Oisille andere prestuaren eta Simontault zaldun gisakoaren berri, ezin bozkario handiagoz hartu zuten, eta Sortzailea goraiatu zuten, zerbitzariekin askietsirik jaunak eta andereak salbatu zituelako; eta, oroz gainetik, Jainkoa bihotz-bihotzez laudatu zuena Parlamente izan zen, aspaldi baitzuen zalduna oso zerbitzari gogokotzat. Zarrantzarako bidez arduraz galdetu ondoren, eta agureak zeuden zailtasun guziak erakutsi bazizkien ere, ez zioten horregatik utzi abiatzeari; eta egun hartan berean jarri ziren bidean, dena ongi prestaturik eta deus ere falta ez zutela, abadeak hornitu baitzituen ardoz eta bizigarri ugariz, bai eta gisako bidelagunez ere segur ibiltzeko mendi handietan barna, zeinak oinez iragan baitzituzten zaldiz baino gehiago. Izerdi eta neke handiz iritsi ziren Andredena Maria Zarrantzakora, non abadea, gizon aski txarra izan arren, ez baitzen ausartu haiei ostatu ez ematen Bearnoko jaunaren beldurrez, bai baitzekien hark estimu handia ziela; baina oso hipokrita zenez, ahalik eta begitarterik onena agertu zien, eta Oisille andere prestua eta Simontault jauna ikustera eraman zituen.

Hain handia izan zen bozkarioa halako modu mirarizkoan elkartu lagunarte hartan, non gaua labur iduritu baitzitzaien, elizan Jainkoa goraiatzeko eman zien graziagatik. Eta, goizean, atsedeen pixka bat hartu ondoren, mezatara joan ziren, eta guziek hartu zuten giristino oro biltzen duen batasunaren sakramentu saildua, otoiztuz, bere oneziaz elkartu zituen Hari, bidaia osa zezaten haren aintzaren izenean. Bazkaldu ondoren, jendea igorri zuten ea ura beheratua zen ikustera, eta jakin zutelarik, aitzitik, handitua zela, eta segurki luzaz ezin iraganen zirela, deliberatu zuten zubi bat eraikitzea bata bertzetik arras hurbil zeuden bi harkaitz tontorren gainean, non oraindik badiren taula batzuk, Oloroetik etorri eta ibia iragan nahi ez duten oinezkoentzat. Abadea biziki poztu zen haiek gastu hori egitera zihoazelako, erromesen kopurua handituko baitzen horrela, eta langilez hornitu zituen; baina ez zuen sosik batere eman, hain zen zekena. Eta langileek erran zuten zuzia egiteko hamar edo hamabi egun beharko zituztela gutienez, lagunartea, gizonak nahiz emaztekiak, guziz aspertzen hasi ziren; baina Hircanen emaztea zen Parlamentek, ez baitzen sekula alfer edo malenkoniatsu egotekoa, senarrari mintzatzeko baimena galdegin ondoren, erran zion Oisille andere zaharrari:

«Anderea, harritzen nau zuk, halako esperientzia izaki eta gu, emaztekiok, alabatzen gaituzun horrek, ez ukaitzak denbora-pasaren bat gure egonaldi luze honek ekarriko digun unadura goxatzeko; izan ere, zeregin atsegin eta bertutetsuren bat izan ezean, eritzeko arriskuan gaude».

Longarine alargun gazteak honako hau gehitu zuen:

«Baina, okerrago, gozakaiztu eginen gara, eta hori gaixotasun sendaezina da; zeren, ez dago gure artean nehor ere, izan ditugun galerei erreparatuz gero, lur jorik geldituko ez denik».

Ennasuitek, irriz, ihardetsi zion:

«Denok ez dugu zuk bezala senarra galdu, eta zerbitzariak galtzeagatik ez dago zertan etsia hartu, ez baita zaila haien ordezkoak kausitzea. Nolanahi ere, nik ere hala uste dut, behar dugu denbora pasatzeko ariketa atseginen bat; biharamunean hilik ginateke, bertzela».

Gizon guziak akort izan ziren haren aholkuarekin, eta arren galdegin zioten Oisille andereari agin zezan zer egin; eta honela ihardetsi zien hark:

«Ene haurrak, biziki zaila iduri zaidan gauza galdegiten didazue, zuen asperduratik libratuko zaituzten denbora-pasa bat irakasteko, alegia; izan ere, ene bizitza osoan erremedio horren xerka ibili banaiz ere, ez dut nehoiz bakar bat baino kausitu, eta da Eskritura Sainduen irakurtzea, zeinetan baitatza izpirituaren loria zinezko eta betegina, handik datoz-eta gorputzaren atsedena eta osasuna. Eta zuen galdea baldin bada zein den ene zahartzaroan hain pozik eta osasuntsu naukan errezeta, hauxe duzue: jaiki orduko, Eskritura Sainduak hartu eta irakurtzen hasten naiz, eta, Jainkoaren onezia miratuz eta kontenplatuz, zeinak guregatik igorri baitzuen bere semea mundura hitz saindu horien berri ona ematera, eta haren bidez agintzen baititu bekatu guzien barkamena eta zor guzien kitatzea, ematen dizkigun maitasunaren, pasioaren eta merituen dohainaz. Horretaz gogoetatzeak halako bozkarioa ematen dit, ezen ene salterioa hartu, eta, ahalik umilkiena kantatzen baititut, bihotzez eta ahotsez, Izpiritu Sainduak Daviden eta bertze autore batzuen bihotzean konposatu zituen salmo eta kantika ederrak. Eta ene baitan sentitzen dudan poztasun horrek halako onura egiten dit, non egunean barna gertatzen ahal zaizkidan gaitzak oro benedizioneak iduri baitzaizkit, ikusirik fedez gorderik dudala bihotzean beroriek eskaini dizkidana. Orobat, afaldu aitzin erretiratu egiten naiz, ene arima ikasgairen batez alhatzeko; eta gero, arratsean, egunean barna eginak oro berrikusten ditut, ene hobenen barkamena galdegin eta errezipitu ditudan dohain guzien eskertzeko; eta Haren maitasunean, beldurrean eta bakean hartzen dut atsedena, gaitz orotatik libre. Eta horixe da, haurrok, luzaroan izan dudan denbora-pasa, bertze anitzen artean xerka ibili ondoren —eta ene gogoia beteko zuenik kausitu gabe—. Iduri zait goizero irakurtzen ordubete ematen baduzue, eta gero, mezako tenorean, zuen deboziazko otoitzak egiten badituzue, kausituko duzuela basamortu honetan ere edozein hirik izaten ahal duen edertasuna; izan ere, Jainkoa ezagutzen duenak, gauza oro eder ikusten du Harengan, eta oro itsusi Hura gabe. Horregatik, arren galdegiten dizuet ene aholkua har dezazuen, alaiki bizi nahi baduzue».

Hircanek hartu zuen hitza eta erran zuen:

«Ene anderea, Eskritura Saindua irakurri izan duenak, guk guziok egin dugun bezala, ene iduriz, aitortuko du guziz egiazkoa dela zuk erran duzuna; baina kontuan hartu behar da ez gaudela gu oraindik hain oinazetuak, ez behar izateko denbora-pasa eta gorputz ariketaren bat. Zeren, guharen etxeetan gaudelarik, ihizia eta falkoneria behar izaten ditugu, hamaika pentsamendu zoro ahantzarazten baitigute; eta damek izaten dituzte beren etxeko lanak eta joskintza, eta batzuetan dantzak, zeinetan ariketa onestak egiten baitituzte. Eta horrek narama erratera (gizonen izenean mintzatuz) zuk, zaharrena izaki, irakur diezaguzula goizean Jesu Kristo gure jaunaren bizitzaz eta Hark guregatik egin obra handi eta miresgarriez, eta gero, bazkaldu ondoren eta bezperak jo arte, hauta dezagun arimarendako kaltegarria ez eta gorputzarendako atsegina izanen den denbora-pasaren bat; eta horrela alegeraki emanen dugu eguna».

Oisille andereak erran zien hainbertze neke hartua zuela banitate oro ahanzteko, non beldur baitzen denbora-pasa horren hautua oker egiteko; kontua iritzi anitzen mende utzi beharra zegoela, eta Hircani galdegin zion bera izan zedin lehena iritzia ematen.

«Nitaz denaz bezainbatean —erran zuen hark—, uste izanen banu hautatuko nukeen denbora-pasa eni bezain atsegin litzaiokeela hemen dagoen norbaiti, berehala emanen nuke iritzia; baina oraingoz isildu egingen naiz, eta onartuko dut bertzeek erraten dutena».

Haren emazte Parlamente gorritzen hasi zen, pentsatuz beraz mintzatzen zela, eta, apur bat haserre eta erdi irriz, erran zion:

«Hircan, baliteke atsekabetuen egon behar lukeela uste duzun horrek ordaina izateko modua bilatzea, plazer balu; baina utz ditzagun birendako baizik ez diren denbora-pasak, eta mintza gaitezen denondako modukoa litzatekeen batez».

Hircanek erran zien dama guziei:

«Ene emazteak ederki aditu duenez ene eleez adierazi nahi izan dudana, eta ez duenez atsegin denbora-pasa partikular bat, uste dut berak jakinen duela bertze nehork baino hobeki zein litzatekeen denontzat atsegingarria izanen den hori; hortaz, hemendik aitzina men egiten diot haren iritziari, harena ez bertzerik ez duenak bezala».

Eta lagunarte osoa akort egon zen horrekin. Parlamente, ikusiz kukuak jo ziola jokoan, honela mintzatu zitzairen:

«Ene burua arteak atzeman zituzten antzinakoena bezain gai sentituko banu, asmatuko nuke denbora-pasaren bat eman didazuen mandatua betetzeko; baina, ene jakituriaren eta ahale berri badakidanez, nekez baitira gai ongi egin gauzak oroitzeko ere, oso uros izanen naiz zuen galdea jadaneko bete dutenei hurbiletik jarraituz. Bertzeak bertze, ez dut uste zuen artean nehor dagoenik Boccaccioren ehun nobelak —frantsesera berriki ekarriak italieratik— irakurri ez dituenik<sup>1</sup>; nobela horiei halako garrantzia aitortu diete Frantzisko erregeak —izen hori daraman lehenak—, Delfin jaunak, Delfin andereak eta Margarita andereak<sup>2</sup>, non Boccacciok, dagokeen lekutik, entzunen balie, berpiztu egingen bailitzateke halako jendeen laudorioen kari. Eta, orain, entzuna dut aipatu bi damek, gorteko bertze zenbaitekin batera, deliberatu dutela bertze horrenbertze egitea, baina Boccacciorenetik desberdin gauza batean: ez dute egiazko istorioa ez den nobelarik eskribituko. Eta dama horiek eta Delfin jauna akort jarri ziren bakoitzak hamar egiteko, eta elkartzeko hamar lagun, kontatzeko zerbait zuketenen artean egokienak, ikasiak zirenak eta letrazaleak izan ezik; izan ere, Delfin jaunak ez zuen nahi haien artea hor nahastea, eta beldur zen, orobat, erretorikaren edertasunak istorioaren egitari nolabait egiten ahal zion kalteaz.

Baina Erregek gerora izan zituen afera larriek, eta bai beraren eta Ingalaterrako erregearen arteko bakeak, Delfin anderearen erditzeak eta gorte osoaren aria trabatzeko moduko bertze hainbat gauzak ere, ahantzarazi egin zuten egingai hori guzia, zeina, gure egonaldia luze honi esker, amaitu ahal izanen dugun hamar egunetan, gure zubia burutu zain gauden bitartean. Hortaz, plazer baduzue, joaten ahal gara egunero, eguerditik arrastiriko lau orenak arte, Gave ibaiaren ondoko

---

<sup>1</sup> Aipatu itzulpena Margarita Nafarroakoaren eskariz egin zuen Antoine Le Maçon haren idazkariak, eta 1569an inprimatu zen. (I. O.)

<sup>2</sup> Delfin jauna gero Henrike II.a Frantziako errege izanen dena da; Delfin anderea, berriz, haren emazte Katalina Medici; eta Margarita anderea, badirudi ez dela autorea bera, baizik eta haren iloba Margarita Frantziakoa, Frantzisko I.a Frantziakoaren alaba. (I. O.)

pentze eder horretara, non zuhamuak hain baitira hostotsu, ezen eguzkiak ezin zulaturen bailuke itzala, ez eta freskura epeldu ere; eta han, eroso jarririk, kontatuko du bakoitzak istorioren bat, bai berak ikusia zein fidatzeko moduko jenderen bati entzuna. Hamar egunen buruan ehun bat osatuko ditugu; eta, Jainkoak nahi badu gure lanak merezi izatea gorago aipatu jaun eta damen begiek ikustea, opari eginen diegu bidaia honetatik itzultzean, imajina eta paternosterren orde; nolana ere, nehork asmatzen badu nik diodan hau baino gauza gustagarriagorik, hari eginen diot men dudarik gabe».

Baina guziek ihardetsi zuten ez zela posible deus hoberik pentsatzea, eta biharamuna noiz etorriko zeudela hasi ahal izateko.

Eta horrela, alaiki eman zuten egun hura, batak bertzeari gogoraraziz beren denboran ikusirikoak. Goiza heldu orduko, Oisille anderearen ganberara joan ziren, zeina jadanik bere otoitzak egiten ari baitzen. Eta, haren ikasgaia ordubete luzez eta meza debozio handiz entzun zutelarik, zerbait jatera joan ziren hamar orenetan, eta gero nor bere ganberara erretiratu zen bere egitekoak egitera. Eta, deliberatua zuten bezala, eguerdian pentzera itzuli ziren huts egin gabe, eta hain eder eta plazent zegoen, non Boccaccio baten premia baitzuen zinez deskribatu ahal izateko; baina kontentatu beharko duzue jakinik ez zela sekula ederragorik ikusi. Biltzarkide guziak jarririk zeudelarik belar berde haren gainean, zeinak ez zuen ez lauzarik ez tapizik behar, hain baitzen fin eta noblea, honela hasi zen Simontault:

«Gure arteko nor hasiko da bertzeen aitzinetik?».

Hircanek ihardetsi zion:

«Zuhaur hasi zarenez solasean, arrazoizkoa da zure agindupean aritzea, jokoan guziok berdinak baikara».

«Jainkoak nahi dezala —erran zuen Simontaultek— nik mundu honetan bertze ongirik ez ukaitea ezpada konpainia hau gidatu ahal izatea!».

Hain ongi aditu zituen hitz horiek Parlamentek, non eztulka hasi baitzen; horri esker Hircan ez zen ohartu mazeletara heldu zitzaion koloreaz, baina hasteko erran zion Simontaulti; eta halaxe egin zuen hark.

# Lehen istorioa

*Prokuradore baten emazteak, Sées-eko apezpikuak suharki eskatu ondoren, bere abantailarako baliatu zuen hura, eta hartaz kontentago ez zenez bere senarraz baino, Alençon-eko lotinant jeneralaren semeaz gozatzeko modua kausitu zuen. Handik aldi batera, ordea, emazteak doilorki masakrarazi zuen gaztea bere senararen eskuz, eta hura galeretara bidali zuten gerora (hilketa horren barkamena erdietsi bazuen ere), Gallery izeneko belagile batekin batera; eta emaztearen gaiztakeriagatik hori dena.*

Andereok, hain gaizki ordaindua izan naiz ene zerbitzu luzeengatik, non, Amodioz eta enekin hain krudela denaz mendeku hartzeko, emaztekiek gizon gaixoei egin dizkieten jokaldi makur guzien bilduma bat osatzeko nekea hartuko baitituz, eta egia hutsa baizik ez dut erranen.

Alençon hirian, Charles dukea (azken dukea) bizi zela, bazen Saint-Aignan izeneko prokuradore bat, bertutez baino edertasunez hornituagoa zen herriko emakume batekin ezkondua. Séeseko apezpikua, berriz, emakume haren edertasuna eta arinkeria zirela-eta, suharki ibili zitzaion gibelatik, eta bere helburuak erdiesteko hain ongi zaindu zuen senarra, non hura ez baitzen ohartu ere bere emaztearen eta apezpikuaren bizioaz; aitzitik, ordea, bere nagusi jaun-andereen zerbitzurako beti izan zuen atxikimendua ahantzi eta, zerbitzari leial izana haien hain etsai bilakatu zen, non beilagileengana jo baitzuen azkenik, dukesa hilarazteko. Apezpikua luzaro bizi izan zen, bada, zoritxarreko emakume harekin, zeinak zikoizkeriagatik gehiago obeditzen baitzion maitasunez baino, eta baita senarrak harekin egoteko eskatzen ziolako ere. Baina Alençon hirian bazen gizon gazte bat, lotinant jeneralaren semea, emakume hark hainbertze maite zuena non amorratzen egoten baitzen hartaz, eta askotan apezpikuaz baliatzen zen bere senarri mandaturen bat eman ziezaion, era horretan Du Mesnil lotinantaren semea nahierara ikusi ahal izateko. Bizimodu horrek luzaz iraun zuen, apezpikua bere probetxurako eta Du Mesnil hura bere plazererako zituela; zin egiten zion horri beren maitasunean libreago jarraitzeko baizik ez ziola apezpikuari aurpegi atsegina jartzen, eta, edozein modutan ere, apezpikuak promesak baizik ez zituela erdietsi berarengandik, eta egon zitekeela seguru bera ez zen bertze nehork ez zuela bertzerik erdietsiko.

Senarra apezpikuarengana joana zen egun batean, baimena eskatu zion landetara joateko, erranez hiriko aireak kalte egiten ziola, eta, landetxera iritsi zenean, handik idatzi zion Du Mesnili, jiteko hutsik egin gabe gaueko hamarrak inguruan berarekin elkartzera; eta horixe egin zuen gazte gaixoak. Baina, atarian, atea zabaldu ohi zion neskamea kausitu zuen erranez:

—Zoaz bertze norabait, laguna, zure lekua harturik dago-eta.

Eta gazteak, ustez senarra heldua izanen zela, gauzak nola zihoazen galdetu zion. Emazteki gaixoak, hain gizon eder, gazte eta zintzoa, hainbertzeraino maitatzen eta hain guti maitatua ikusiz urrikaldurik, bere nagusi anderearen likiskeriaren berri eman zion, ustez hori entzunik hainbertze maitatzetik alduko zela. Eta kontatu zion Séeseko apezpikua heldu berria zela eta harekin zetzala ohean, emakumeak halakorik espero ez bazuen ere, apezpikua ez baitzen biharamunera arte jitekoa. Baina, senarra bere etxean atxikirik, gauez handik gordean atera eta heldua zen emaztekoa sekretuan ikustera. Egiaz desesperaturik Du Mesnil zegoen, ezin baitzuen erabat sinetsi, eta inguruko etxe

batean gorde eta gauerdia pasatu eta bertze hiru orduz egon zen zelatan, harik eta apezpikua handik irteten ikusi zuen arte, mozorroturik, baina ez nehork ez ezagutzeko nahiko zukeen bezain ongi.

Eta etsimendu horretan itzuli zen Alençonera, eta hara joan zen luze gabe haren amorante gaiztoa, ohi zuen bezala hitz eginez engainatzeko asmoz. Baina mutilak erran zion sainduegia zela, gauza sakratuak ukitu berria zenez, bera bezalako bekatari batekin hitz egiteko, eta hain damu handia zuela horregatik, non bekatua berehalaxe barkatuko zitzaioela espero baitzuen. Emakumea, ulertu zuenean bere kasua agerian zegoela eta aitzakia, zin egite edota berriz halakorik ez egiteko promes oro alferrik zela, apezpikuarengana joan zen haren kexuz. Eta gaia ongi aztertu ondoren, emakume hark senarrari erran zion ezen ezin zela luzazago gelditu Alençoneko hirian, lotinantaren semea, adiskideen artean hainbertze estimatu izan zuena, etengabe zebilkiolako ohorea ebasteko asmoz, eta Argentan-en kokatzeko egin zion erregu, susmo oro uxatzeko. Senarra, emazteari uzten baitzion agintzen, akort izan zen. Baina Argentanera aldatu eta luze gabe, zorigaiztoko emakume hark mezua igorri zion aipatu Du Mesnili erranez munduko gizonik gaiztoena zela eta bazekiela, ondo jakin ere, gaizki erranka aritu zela agerian berari eta Séeseko apezpikuari buruz, eta moldatuko zela damutu zekion.

Mutila, gai horri buruz emakumearekin bertze nehorekin ez baitzen mintzatu eta beldur baitzen apezpikuaren uste ona galduko zuela, bi zerbitzariarekin Argentanera joan zen eta jakobinoen elizako<sup>3</sup> bezperetan kausitu zuen bere damatxo. Haren ondoan belaunikatu eta erran zion:

—Anderea, hemen naukazu eta zin egiten dizut Jainkoaren aitzinean nehoiz ez dudala nehorekin hitz egin zure ohoreaz, zurekin ez bada; hain jokaldi makurra egin didazu, non ez baitzut erran ezta merezi dituzun laidoen erdia ere. Eta horretaz hitz egin didala erranen duen gizonik edo emazterik bada, hemen naukazu zure aitzinean gezurtatzera etorririk.

Emakumea, ikusirik elizan jende anitz zegoela eta mutilak bi zerbitzari on zituela lagun, ahalik eta adeitsuenik mintzatzera behartu zen, erranez ez zuela zalantzarik egia zioela eta gizon zintzoegitzat zeukala munduko nehoi buruz gaizki erranka aritzeko, eta are gutiago berari buruz, hainbertzeko estimuan baitzuen; baina senarrak zurrumurruak entzun omen zituen, eta arren galdatzen ziola haren aitzinean errateko berak ez zuela deus erran eta ez sinesteko deus. Mutila gogo onez izan zen akort horretan; eta haren ostatalekura laguntzeko asmoz, besotik heldu zion; emakumeak, ordea, erran zion ez zela gauza ona izanen berarekin joatea, senarrak uste izanen baitzuen emazteak erranarazi zizkiola hitz horiek; eta mutilaren zerbitzarietarik bati jantziko mahukatik heldu, eta erran zion:

—Utz iezadak hau eta, garaia datorrenean, bera igorriko diat bila; bitartean, ordea, hoa hire ostatuan pausu hartzera.

Mutila, haren azpijokoaren susmorik gabe, hara joan zen.

Emakumeak berekin eraman zuen zerbitzariari afaria eman zion; hark behin eta berriz galdetzen zion ea noiz izanen zen nagusiarengana joateko garaia; emakumeak sarri izanen zela erantzuten zion beti. Eta gaua heldu zelarik, bere zerbitzarietarik bat bidali zuen ezkutuka, Du Mesnilen bila; hura, prestatzen ari zitzaizkion makurraren neholako susmorik gabe, ausarki joan zen damatxoak zerbitzaria zeukan aipatu Saint-Aignanen etxera, era horretan mutilari zerbitzari bakarra gelditzen

---

<sup>3</sup> Domingotar edo predikarien ordenako eliza; ordena horrek Parisen zuen komentua rue Saint-Jacques-en zegoen, eta hortik dator erlijioso horiei Frantzian historikoki eman zaien “jakobino” deitura. (I. O.)

zitziolarik. Eta etxeko sarrerara heldu zelarik, hara zeraman zerbitzariak erran zion ezen damatxoak bere senarraren aitzinean hitz egin nahi ziola, eta berekin zerbitzarietarik bat baizik ez zeukan gela batean zegoela zain, eta hobe zuela bertze zerbitzaria etxearen aitzineko atetik igortzea. Eta hala egin zuen; eta eskaileratxo ilun batetik igotzen ari zela, Saint-Aignan prokuradoreak, jantzigela batean zelatan gordeak baitzituen bere gizonak, haren harrabotsa entzun eta hura zer zen galdetu zuenean, erran zioten etxean isilean sartu nahirik zebilen gizon bat zela. Une berean, Tomas Guerin izeneko bat, bizibidez hiltzailea, prokuradoreak hilketa hura egiteko kontratatua, atera eta halako ezpatakada saila eman zion gizagaixo hari, non, bere burua defendatzeko zernahi eginik ere, ezin izan baitzuen eragotzi haien eskuetan hilik erortzea. Damatxoarekin hitz egiten ari zen zerbitzariak erran zion:

—Nagusia eskaileran eleketan entzun dut: banoa harengana.

Damatxoak han berean geldiarazi eta erran zion:

—Ez hadi kezkatu: berehalaxe jinen duk.

Eta handik pixka batera, nagusiak “Hiltzera noa; Jainkoak har dezala ene arima!” erraten zuela entzunik, hari laguntzera joan nahi izan zuen; andereak, ordea, eutsi egin zion, erranez:

—Ez hadi kezkatu: ene senarra bere gazte-jolasak zigortzen ari zaiok. Goazen zertan den ikustera.

Eta eskailera buruan pausaturik, galdetu zion senarrari: —Zer? Bukatu duzue? Eta hark erantzun zion:

—Zatoz eta ikusi. Mendekatu zaitut hainbertzeraino lotsatu zaituen horrengandik.

Eta, hori erranez, hamar-hamabi kolpe eman zituen zeraman puñal batez, bizirik egon izan balitz erasotzera ausartuko ez zatekeen gizon haren sabelean.

Hilketa egin eta hilaren bi sehiak aita gaixoari haren berri ematera ihes egin ondoren, aipatu Saint-Aignan horrek, pentsatuz gauza hura ezin zitekeela gordean eduki, uste izan zuen hilaren sehiei ez zietela sinetsiko testigantza, eta bere etxean hiltzaileek berek, gelazain zahar batek eta hamabortz urteko neska gazte batek bertze nehork ez zuela ikusi gertatu zena, eta horrenbertzez isilean atzeman nahi izan zuen atso gelazaina; baina hark haren eskuetatik ihes egiteko modua kausitu zuen, eta jakobinoetara joan zen babestera, eta hala hura izan zen hilketa haren lekukorik seguruena. Gelazain gaztea nagusiaren etxean gelditu zen zenbait egunez, baina nagusiak hiltzaileetarik batek galbidera eraman zezan erdietsi zuen, eta Parisa eraman zuen burdel batera, haren testigantza sinesgarria izan ez zedin. Eta hilketa estaltzeko, hil gaixoaren gorpua errearazi zuen. Suak erre ez zituen hezurak morterotan sarrarazi zituen, etxean eraikitze lanak egiten ari zen leku batean, eta urratsak egin zituen auzitegian barkamenaren grazia eskatzeko, aditzera emanez ezen behin baino gehiagotan defendatu behar izan zuela bere etxea emaztea desohoratzeke asmoa zuela susmatzen zuen gizaseme batengandik, eta hura, senarraren defentsa gorabehera, gauez jin zela leku susmagarrian harekin hitz egitera; eta horregatik, bere gelako sarreran topatu zuelarik, arrazoiz baino haserrez beteago, hil egin zuela. Baina gutuna kantzilergora igorri aitzin, hilaren aita gaixoak kasuaren berri eman zien dukeari eta dukesari, eta haiek kantzilerrari jakinarazi zioten grazia hura uka ziezaion. Dohakabeak, barkamena ezin erdiets zezakeela ikusirik, Ingalaterrara ihes egin zuen, eta harekin batera haren emazteak eta ahaide askok. Baina, partitu aitzin, berak eskaturik kolpea jo zuen hiltzaileari erran zion Erregeren mezu zehatzak ikusiak zituela hura atzeman eta

hilarazteko, baina berari egin zizkion zerbitzuen ordainez bizia salbatu nahi ziola, eta hamar ezkutu eman zizkion erresumatik kanpora joan zedin. Halaxe egin zuen, eta ordutik ez zen haren berririk jakin.

Hilketa horren testigantza hain ongi eman zuten hilaren sehiek, jakobinoetan babestu zen gelazainak eta baita morterotan kausitu ziren hezurrek ere, non Saint-Aignan eta haren emaztea han ez zirelarik aztertu eta erabaki baitzen auzia. Auzi ihesean epaitu zituzten, eta hiltzera kondenatu zituzten biak, haien ondasunak Printzearendako bahitu zituzten eta mila eta bostehun ezkutu ordainarazi zizkieten aitari auzi gastuengatik. Saint-Aignan horrek, Ingalaterran zegoela, legearen arabera Frantzian hilik zegoela ikusirik, jaun handi anitzen mesedetan egin zerbitzuengatik eta bere emaztearen ahaideen faborengatik erdietsi zuen Ingalaterrako erregeak errege egitea Frantziakoari hari barkamenaren grazia egiteko, eta bere ondasunak eta ohoreak itzultzeko. Erregek, ordea, kasu itsusi eta izugarri haren berri jakinik, Ingalaterrako erregeari igorri zion auzia, bere kabuz ikus zezan ea barkamena merezi zuen kasua ote zen, eta erranez Alençoneko dukea zela erresuma osoan bere dukerrian barkamena emateko pribilegio hori zuena. Baina, aitzakia horiek guziak gorabehera, Ingalaterrako erregeak ez zuen etsi, eta hain suharki erregutu zion, non prokuradoreak barkamena erdietsi baitzuen azkenean haren eskariz, eta etxera itzuli zen, eta han, bere gaiztakeria bururaino eramateko, Gallery izeneko belagile batekin adiskidetu zen, haren aztikeriaren bidez, hilaren aitari ordaindu beharreko mila eta bostehun ezkutuak ordaintzetik salbu gelditzeko esperantzaz.

Eta, horretarako, Parisa joan ziren emaztea eta biak, mozorroturik. Eta emazteak ikusirik senarrak hainbertze denbora ematen zuela aipatu Gallery harekin gela batean itxirik, eta ez ziola nehoiz erraten zertarako zen, goiz batean zelatatu egin zuen, eta ikusi zuen Gallery horrek zurezko bost irudi erakusten zizkiola, eta haietarik hiruk eskuak zintzilik zituztela eta bertze biek, aitzitik, altxaturik zituztela. Eta prokuradoreari erraten ziola:

—Hauek bezalako bost irudi egin behar ditugu, argizarizkoak, eta besoak zintzilik dituztenak hilaraziko ditugunak izanen dira, eta besoak goiti dituztenak, berriz, haiengandik grazia eta maitasuna erdietsi nahi duzunak izanen dira.

Eta prokuradoreak erraten zuen:

—Hau Erregerena izanen da, haren gogoko izan nahi baitut, eta bertze hau Alençoneko Brinon kantzilerrarena.

Galleryk erran zion:

—Irudiok meza entzunen duten aldarearen azpian jarri behar dira, une hartan errateko erranen dizkizudan hitzekin.

Eta besoak beheraturik zituztenez, prokuradoreak erran zuen Gilles Du Mesnil, hilaren aitarena zela bat; zeren ongi baitzekien hura bizi zen bitartean etengabe esetsiko zuela. Eta besoak behera zituen emakumeatarik bat Alençoneko dukesa anderea zela, Erregeren arreba, hainbertzeraino maite baitzuen Du Mesnil zerbitzari zaharra eta hainbertze gauzatan ezagutu baitzuen haren gaiztotasuna, non, hura hiltzen ez bazen, ezin izanen baitzuen berak bizi. Besoak behera zituen bigarren emakumea emaztea zuen, hura baitzen haren gaitz guzien erruduna, eta segur baitzen nehoiz ere ez zuela zuzenduko bere bizimodu okerra. Emazteak, dena ikusten baitzuen ateko zulutik, entzun zuenean bera hilen zerrendan jartzen zuela, pentsatu zuen berak igorriko zuela hura hara lehenbizi. Eta Alençoneko dukearen kontu-eramaile zen Neaufle izeneko osaba bati maileguan diru kopuru bat

eskatzera zihoalako itxura eginez, senarrari ikusi eta entzun guzia kontatu zion hari. Neauffle hori, zerbitzari zahar zintzo orori dagokion bezala, Alençoneko kantzilerrarengana joan zen eta historia guzia kontatu zion. Eta Alençoneko dukea eta dukesa egun hartan gortean ez zirenez, kasu bitxi hura erregeordeari, Erregeren eta aipatu dukesaren amari kontatzera joan zen kantzilerra, eta hark La Barre izeneko Parisko probestuaren bila joateko agindu zuen bat-batean; hark hain bizkor egin zituen egitekoak, non prokuradorea eta haren belagile Gallery atzeman baitzituen, eta haiek, neholako beharkizunik gabe, libreki aitortu zuten errua. Eta hala, auzia abiatu eta Erregeri igorri zitzaion. Batzuek, bizia salbatu nahirik, beren sorginkerien bidez Erregeren grazia irabaztea bertzerik ez zutela nahi erran zioten; baina Erregek, arrebaren bizia berea bezainbat estimatzen zuelarik, bera hiltzen ahalegindu izan balira bezalako sententzia emateko agindu zuen. Hala eta guziz ere, Erregeren arreba Alençoneko dukesak aipatu prokuradorearen bizia salbu uzteko eta haren heriotza zigor ankerren batez trukatzeko erregutu zion; eskakizun hori onartu egin zitzaion, eta prokuradorea eta Gallery Marseilara bidali zituzten, Saint Blanchart-eko galeretara, eta han bukatu zuten beren bizialdia, gatibutasun estuan, eta beren bekatuen larritasuna aitortzeko astia izan zuten. Eta emazte gaiztoak, senarrik gabe, nehoiz baino okerrago jarraitu zuen bere bekatuan, eta miseria gorrian hil zen.

«Arren erregutzen dizuet, andereok, ikus ezazue nolako gaitza heldu den emakume gaizto batengandik eta zenbat makur egin ziren haren bekatuarengatik. Ohartuko zarete ezen, Ebak Adani bekatu eragin zionez geroztik, gizonak oinazetzea, hiltzea eta kaltetzea deliberatu zutela emakume guziek. Nitaz den bezainbatean, hainbertzeraino pairatu dut haien ankerkeria, non ez baitut pentsatzen hiltzerik edo kondenatua izaterik, haietarik batek eragin didan etsimenagatik ez bada. Eta hain eroturik nago oraindik ere, non aitortu behar dudan infernu hori atseginagoa zaidala haren eskutik badatorkit, bertze edonoren eskutik hel lekidakeen paradisia baino».

Parlamentek, gauza horiek beragatik erraten zituela ohartuko ez balitz bezalako itxura eginez, erran zion:

«Infernua zuk diozun bezain atsegina baldin bada, ez duzu zertan hara eraman zaituen deabruaren beldur izanik».

Hark, ordea, haserre erantzun zion:

«Ene deabrua enetako izan den gaiztoa bezain beltza bihurtuko balitz, halako beldurra eraginen lioke konpainia honi, non atsegina hartuko bainuke taldea ikusiz; baina maitasunaren suak ahantzarazten dit infernu honetakoa. Eta gehiago ez hitz egiteko, Oisille andereari emanen diot hitza, bigarren istorioa konta dezan, eta seguru nago ezen, emakumez dakien guzia erran nahiko balu, ene iritziaren alde aterako litzatekeela».

Gero, bilduriko guziak hari begira biratu ziren, hasteko erregutuz; hark onartu eta, irriz, hitz egiten hasi zen:

«Iduri zait, andereak, hitza eman didanak hain gaizki hitz egin duela emakumez, zoritxarreko baten egiazko istorio baten bidez, non ene denbora guzian ikertu behar baitut bere bertuteaz haren iritzi txarra gezurtatuko duen emazteki bat kausitu ahal izateko; eta, ez ahanzteza merezi duen bat bururatu zaidanez, hura kontatuko dizuet».

# Bigarren istorioa

*Amboiseko mandazain baten emazteak sehiaren eskuetan krudelki hiltzea nahiago izan zuen bere borondatez haren asmo gaiztoari men egitea baino.*

Nafarroako erreginak, Frantzisko izeneko lehen erregearen arrebak, mandazain bat zuen bere zerbitzuan Amboise hirian; Erregina Bloisen zen, seme bat ukan berritan; aipatu mandazaina hara joana zen zegokion soldata laurdena ordain ziezaioten, eta, bitartean, haren emaztea Amboisen gelditu zen, zubien beste aldean aloiturik. Bada, senarraren sehi batek hain desesperatuki maite zuen emakumea aspaldidanik, non egun batez ezin izan baitzuen eragotzi hari horretaz mintzatzea; hark, ordea, egiaz emakume zintzoa izaki, hain garrakki egin zion agiraka, senarrak jo eta kanporatu eginen zuela mehatxatuz, non ordutik ez baitzion berriz deus aipatu ez aditzera eman. Handik harat bere bihotzean estalirik gorde zuen su hura, harik eta nagusi jauna kanpoan eta anderea etxetik urrun, Saint Florentin-en, gazteluko elizan bezperetan zegoen egun batera arte. Bakarrik gelditu zelarik, irudipena izan zuen ezen erdiesten ahal zuela indarrez, ez erreguz ez mesede bitartez nehoiz erdietsi ez zuena. Eta berak lo egiten zuen ganberaren eta nagusi anderearenaren arteko hormako ohol bat hautsi zuen. Baina nagusi jaun-andereen oheko erridauak zein bertze aldeko zerbitzarien oheetakoek hain ongi estaltzen zituzten hormak, non ezin baitzen ikusi hark egin zuloa, eta ez zuten sumatu haren maltzurkeria harik eta nagusi anderea hamaika-hamabi urteko neskato batekin oheratu zen arte. Emakume gaixoa bere lehen loaldian sartu bezain laster, sehia lehen eginiko zulotik iragan eta haren ohean sartu zen, atorra hutsean, ezpata biluzik eskuan zuela. Baina emakumeak, sehia ondoan sentitu orduko, ohetik kanpora jauzi egin zuen, emakume zintzo batek egiten ahal dituen agiraka guziak eginez. Eta sehiak, abereen maitasuna bertzerik ez baitzuen eta mandoen hizkuntza hobeki ulertuko baitzukeen emakumearen arrazoi zintzoak baino, hainbertze denboran lagun izan zituen abereek baino aberekoiago jokatu zuen; zeren, ikusirik emakumea mahai baten inguruan lasterka zebilela eta ezin harrapatu zuela, eta hain indartsua zela non bi aldiz ihes egin baitzion, bizirik berriro ezin bereganatu zuela etsirik, ezpata kolpe bortitz bat eman zion gerrian, ustez, beldurak eta indarrak menderatu ez bazuten, oinazeak menderatuko zuela. Baina aldeztu bertze gertatu zen; zeren, nola soldadu jator bat bere odola ikustean are gehiago berotzen den, bere etsaien mendekua hartu eta ohorea irabazteko, hala emakumearen bihotz xahua are gehiago ahalegindu zen lasterka egiten eta dohakabe harengandik ihes egiten, ahal zituen hitzik egokienak erranez, nola edo hala bere hutsegitea onartzera behartzeko. Baina gizona hain zen suturik bere amorruan, non emakumeari ez baitzitzaion gelditzen kolpe gehiago non harturik; eta kolpe gehiago eman zion oraino, zeinei ihes egiteko emakumeak lasterka jarraitzen baitzuen, hankek eutsi bitartean. Eta, odola galduaren galduz, heriotza hurbil zuela sentitu zuenean, begiak zerurantz goititu eta eskuak bildurik, eskerrak eman zizkion Jainkoari, bere indarra, bere bertutea, bere pazientzia eta garbitasuna aipatuz, eta otoituz onar zezan bere odola, Haren agindua betetzeko eta Haren Semearenaren ohoretan isuria, zeinaren bitartez uste osoa baitzuen bere bekatuak oro garbituko zitzaizkiola eta Haren haserrearen oroimenetik ezabatuko. Eta "Har ezazu, Jauna, zure ontasunari esker berrerosia izan den arima hau!" erranez, ahuspez erori zen lurrera, eta gaiztoak hainbat kolpe eman zizkion han; eta, emakumeak hitza eta gorputzaren indar oro galdu ondoren, zoritxarreko hark indarrez hartu zuen bere burua defendatzerik ez zuen emakumea.

Eta gizonak bere irrika gaiztoa ase zuenean, hain bizkor eman zion ihesari, non, nehon diren bilaketa guziak eginagatik, ezin izan baita geroztik aurkitu. Mandazainaren emaztearekin oheratu zen

neskatoa ohe azpian gorde zen beldurraren beldurrez; baina gizona kanpoan zela ikusirik, nagusiarengana joan eta hitzik eta mugimendurik gabe aurkitu zuen; leihotik auzokoei oihu egin zien, nagusiari laguntzera heltzeko. Eta haiek, hiriko bertze emakume oro bezainbat estimatzen eta maite baitzuten, lasterka joan zitzaizkion eta zirujauak ekarri zituzten; haiek gorputzean hogeita bost zauri hilgarri zituela ikusi zuten eta ahal zuten guzia egin zuten laguntzeko, baina ezin izan zuten. Nolanahi ere, ordubete iraun zuen oraindik bizirik, hitzik egin gabe, begiez eta eskuez zeinuak eginez, eta horretan adimena artean galdu gabe zeukala adieraziz. Elizgizon batek galdeturik ea zein fedetan hiltzen zen, ea Jesukristoren bidez soilik salbatzeko esperantza zuen, hain zeinu garbiz erantzun zuen, non hitzak ere ez baitzukeen hobeki adieraziko haren asmoa; eta hala, aurpegi alaiz, begiak zerurantz goititurik, itzuli zion gorputz garbi hark Sortzaileari bere arima. Eta hila bildu eta jauntzi, eta gorpua atarian jarri bezain laster, lur emateko segizioaren zain, heldu zen senar gaixoa, eta emaztearen gorpua etxe aitzinean ikusi zuen lehenik, ez baitzekien heriotzaren berri; eta zer gertatu zen galdeturik, dolu egiteko bi arrazoi izan zituen, eta halako moduan egin zuen, egin ere, non ozta-ozta ez baitzuen bizia han berean galdu. Horrela ehortzi zuten kastitatearen martiri hura Saint Florentineko elizan, eta hiriko emakume zintzo guziet, hutsik gabe, ahalik hobekiena bete zuten hura ohoratzeko betebeharra, hain emakume bertutetsua kausitu zen hiri batean bizi zirelako pozez. Eta txoriburuek eta buruarinek, gorpu hari nolako ohorea egiten zitzaion ikusirik, beren bizitza hobetu eta zuzentzeko deliberoa hartu zuten.

«Hona, andereak, bihotza kastitatearen bertute eder hau gordetzera akuilatu behar duen egiazko istorio bat. Eta guk, etxe onekoak garenok, lotsaz hil behar genuke gure bihotzetan lizunkeria sentituz, mandazain baten emazte apal batek hura eragozteagatik horren heriotza krudela jasateko beldurrik izan ez zuela ikusirik. Zenbaitek emakume zintzotzat dauka bere burua, hark bezala odola isurtzeraino eusten jakin ez arren. Apala izan behar da, berez, zeren Jainkoaren grazia ez baitzaie banatzen gizonei beren nobleziaren edo aberastasunen arabera, haren gogoaren arabera baizik: ez du pertsonen artean bereizkeriarik egiten, bere nahiaren arabera hautatzen ditu; eta hautatzen duena bere bertute guzietz ohoratzen du. Eta gauza apalak aukeratzen ditu sarri, munduak goratutzat eta ohoragarritzat dauzkanak nahasarazteko, berak erran bezala: “Ez gaitezen gure bertuteez harrotu, Bizitzaren liburuan idatzirik gaudelako, ezpada handik ez gaituelako ezabatzen ahal ez Heriotzak, ez Infernuak, ez Bekatuak.”».

Bilduriko guzien artean ez zen emakume bat ere izan mandazain haren emaztearen heriotza negargarri eta loriatsuaren urrikalmenduz begiak negarrez beterik ez zituenik. Bakoitzak bere buruaz pentsatu zuen ezen, era hartako zortea izanez gero, lanak izanen zituela haren martiritzari jarraitzen. Eta Oisille andereak, hil haren goraipamenak egiten denbora galtzen ari zirela ikusirik, Saffredenti erran zion:

«Hemen gaudenoi irri eragiteko zerbait erraten ez baduzu, ez dakit zuen artean nehor izanen den nik negar eraginez egin dudan okerra zuzentzen asmatuko duenik. Horregatik, hitza uzten dizut hirugarren istorioa konta dezazun».

Saffredentek, nahiz eta pozik kontatuko zukeen han bildurikoei, bati batez ere, atsegin gertatzen ahal zitzaien zerbait, oker zegoela erran zuen, zeren bai baitziren han bera baino esperientzia handiagoa zuten adin handiagokoak, berak baino lehenago mintzatu beharrekoak; baina, zoriak hala nahi zuenez, nahiago zuela behingoz berea bururatu; zeren eta, zenbat eta ongi hitz egiten zekiten gehiago izan haren aitzinetik, are eta makurragoa iduri izanen baitzitzaien berarena.

# Hirugarren istorioa

*Napoliko erreginak bere senar Alphonse-k egin hobenagatik mendekua hartu zuen gizon batekin, zeinaren andrearekin baitzebilten Errege; harreman horrek haien bizitza osoan iraun zuen, eta Erregek ez zuen sekula susmorik izan.*

Hala, bada, andereok, eta inbidiaz erreparatzen baitiot istorio honetako gizonaren zoriari, erranen dizuet bazela Napoli hirian, Alphonse erregearen garaian, zeinaren lizunkeria nagusi izan baitzen haren erresuman, jaun zintzo bat, hain onest, atsegin eta ederra, zeini zituen dohainengatik agure batek alaba eman baitzion ezkontzaz, senarraren pareko hura ere edertasunean eta dohainetan. Bien arteko maitasuna handia izan zen, harik eta inauteri batzuetan Errege, maskaraturik, etxez etxe ibili zen arte, jendeak oro hari ahalik eta abegirik onena egiten ahalegintzen zirela. Eta gizon atsegin horrenera heldu zelarik, bertze nehon baino hobeki tratatu zuten, opa zizkioten gozoak, xantreak, musika eta bai Erregek sekula ikusia uste zuen emaztekirik ederrena zela medio ere. Eta bestaren hondarrean, senarrarekin batera kantu bat kantatu zuen, halako graziarekin, non areagotu egin baitzen haren edertasuna. Erregek, gorputz batean hainbertze dohain ikusirik, ez zuen hain gustuko senarraren eta emaztearen artean ikusten zuen harmonia hura, eta nola hausten ahal zuen pentsatzen hasi zen. Zailtasunik handiena bien artean ikusten zuen txera handia zen, eta bere bihotzean zuen grina hura ahalik eta gordeena eramaten ahalegindu zen. Baina, hein batean arintzeagatik, Napoliko jaun eta andere guziendako besta ugari ematen zituen, eta haietan gizona eta haren emaztea ez zituzten alde batera uzten. Gizonak sinetsi nahi duena sinesteko joera izan ohi duenez, Erregeri iduri zitzaion dama horren begiek gertakari onik agintzen ziotela, betiere senarraren presentziak hori galarazten ez bazuen. Eta zuzen ote zen egiaztatzeko, senarra bizpahiru astez Erromara bidali zuen, bidaian. Senarra kanpora orduko, emazteak atsekabe handia hartu zuen, ordura arte nehoiz ez baitzen harengandik bereiz egon, eta Erregek ahalik eta gehienetan kontsolatu zuen, gogatzeko ez, erakusgarri eta oparien bidez; eta, gisa horretan, emazteak, kontsolatua ez ezik, senarraren absentziaz kontent ere egon zen. Eta hura itzultzekoa zen hiru asteak baino lehenago, hain amoros zen Erregez, non senarraren itzulerak haren joanak bezain gogaitua baitzeukan. Eta Erregeren presentzia ez galtzeagatik, elkarrekin adostu zuten ezen, senarrak bere landetxeetara alde egiten zuelarik, emaztekiak gaztigatuko ziola Erregeri, eta hura ziurrenik etorri ahal izanen zitzaioala gordean, hartara damaren ohorea, zeinari bere kontzientziari baino beldur handiagoa baitzion, salbu utziz.

Peskiza horretan arras pozik gelditu zen emazteak, eta, senarra arribatu zelarik, halako abegi bikaina egin zion, non hark, nahiz eta entzuna zuen bere absentzian Errege gibeletik zebilkiola andreari, ez zuen deusen susmorik izan. Baina, denborarekin, azaleratzen hasi zen estaltzeko hain zaila zena, halako moduz non senarra egia susmatzen hasi eta zelatan jarri baitzen, harik eta susmoa ia segurtatzera heldu zen arte. Ordea, berak ohartu zelako alegia egiten baldin bazuen laido egiten ari zitzaion hark kalte handiagorik eginen zion beldurrez, ez ikusiarena egitea deliberatu zuen; izan ere, hobe zuen bizirik irautea, mutur salda batzuk gorabehera, bereganako batere maitasunik ez zuen emazteki harengatik bizia menturatzea baino. Nolanahi ere, erabaki zuen ordaina ematea, posible bazen behintzat; eta jakitun emaztekiak, maiz, amodioak baino gehiago mugiarazten dituela hisiak, bihotz handi eta onekoen kasuan, batik bat, ausartu zen egun batez Erreginarengana jotzen, eta adierazi zion gupida zuela, ikusirik senarrak ez zuela berak merezi zuen moduan maite. Erreginak, zeinak bai baitzekien zerbait Erregeren eta haren emaztearen artekoaz, erran zion:

—Ezin ditiat ohorea eta plazera batera ukan. Ongi zekiat ohorea nihaurek dudala, bertze batek plazera errezibitzen duen bitartean; baina orobat zekiat plazera duen hark ez duela nik dudan ohorea.

Gizonak, ederki aditu baitzuen norengatik erranak ziren hitz haiek, ihardetsi zion:

—Ene anderea, ohorea zuhaurekin jaioa duzu, etxe onekoa baitzara, eta zure noblezia ezin liteke handiagoa izan erregina zein enperatriz izateagatik; baina zure edertasunak, graziak eta zintzotasunak halako atseginak merezi ditu, non zuri dagokizuna kentzen dizun emakumeak makur handiagoa egiten baitio bere buruari zuri baino; izan ere, lotsa bilakatzen den loria baten truk, zuk edo erresuma honetako edozein damak izaten ahal lukeen bezainbat plazer galtzen du. Eta erraten ahal dizut, ene anderea, Erregek, bere koroa burutik erantziko balu, ez lidakeela deus kenduko eni, emazteki bati atsegin emateko kontuan; zeren segur bainaiz, zu bezain pertsona zintzoa asebetetzeko, nahiago izanen lukeela bere izaeraren partez enea izan.

Erreginak, irriz, erantzun zion:

—Balitekek Erregeren izaera ahulagoa izatea hirea baino, baina haren amodioak bete egiten naik, eta nahiago diat bertze edozein baino.

Gizonak erran zion:

—Ene anderea, hala balitz ez zintuzket gupida izanen; zeren ongi dakit zure bihotzeko maitasun zintzoak oso pozik jarriko zintuzkeela, Erregeren bihotzean idurikorik kausituko balu. Baina Jainkoak ongi begiratzen zaitu ez dezazun hura zure lurreko jainko bihur, ez baituzu harengan nahi zenukeena kausitzen.

—Aitortzen diat —erran zuen Erreginak— hari diodan amodioa hain dela handia, non enea ez den bertze nehoren bihotzean ezin baita parekorik kausitu.

—Barka iezadazu, ene anderea —erran zion gizonak—; ez duzu ongi arakatu diren bihotz guzien amodioa; zeren ausartzen bainaiz erratera badela zu maite zaituenik, eta hain da handia eta eramanezina maitasun hori, zurea haren ondoan ez baita deus. Eta, Erregek zuri dizuna huts egiten ikusirik, halako moduan hazi eta handitzen da harena, non, zuk atsegin bazenu, galtzen duzun guziaren ordaina hartuko baitzenuke.

Erregina, gizonaren hitzei eta haren begitarteari erreparatuz, sinesten hasi zen hitz haiek bihotzaren barnetik sortuak zituela, eta oroitu zuen nola jaun hori, aspaldi, bere zerbitzura jartzen ahalegindua zen, halako atxikimenduz non malenkoniak jo baitzuen; eta berak, orduan emaztearengatik izanen zela pentsatu arren, fermuki sinesten zuen orain berari zion amodioak sortua zela malenkonia hura. Eta horrela, maitasunaren egiak, zeina disimulatzen ez denean agerian gelditzen baita, eman zion jende ororen gordean zegoenaren segurtasuna. Eta jaunari begiratuz, senarra baino askoz ere atseginagoa baitzen, eta ikusiz nola zegoen hura emazteak bazter utzirik bera Erregek nola, senarraren afruntuez eta jelsiaz lehertzeaz, eta gizonaren amodioak akuilaturik, honela ekin zion, malkoak begietan eta hasperenka:

—O, ene Jainkoa! Mendekuak lortu behar ote du enegan ezein amodiok ezin izan duena?

Gizonak, ongi adituz haren errana, erantzun zion:

—Ene anderea, mendekua ezta da, etsaia hil gabe zinezko adiskide bati bizia ematen dionean. Iduri zait tenorea dela egiak ken diezazun maite ez zaituen horri diozun amodio ergela; eta maitasun bidezko eta zentzuzko batek uxatuko du zuregandik beldurra, zeina ez baitagokio bihotz handi eta bertutetsu bati. Ea, anderea, utz dezagun alde batera zure izatearen handitasuna, eta ohart gaitezen mundu honetan guhaur garela, gehien maite ditugun haien aldetik, gizon-emaztekirik tronpatu, traditu eta trufatuenak. Har dezagun mendeku, ene anderea, ez hainbertze merezi dutenaren ordaina emateko, baizik eta amodio hau kontentatzeko, zeina, ene aldetik behintzat, ezin baitut hil gabe jasan. Eta uste dut, zure bihotza ez baldin bada harri edo diamante bat bezain gogorra behintzat, ezinezkoa dela ez igartzea haziz doan su honen txinpartarik, estaltzeko ahalegin handienak egiten baditut ere. Eta eneganako urrikariak, zure amodioaz heriok jota bainaukazu, ez bazaitu ni maitatzera pusatzen, zuhaurganakoak bederen pusatu behar zintuzke; izan ere, munduko gizon zintzo ororen bihotzak merezi dituzun hori, hain zara betegina, bertze guziak arbuizatzen eraman zaituen horrek erdeinatua eta abandonatua zaude.

Erregina, hitz horiek entzutean xoraturik, eta begitarreak bere baitako nahasmendua salatuko zion beldur, jaunaren besoan bermatu eta bere ganberatik hurbil zegoen lorategi batera joan zen, non luze promenatu baitzen, hari hitzik erran gabe. Baina gizonak, Erregina erdi garaitua zuela ikusirik, bidexkaren muturrera heldurikoan, non nehork ezin baitzituen ikusi, egitez aitortu zion hain denbora luzez isildua zion maitasuna; eta, biak akort jarriz, dagoeneko ezin eraman zuten mendekua hartzea erabaki zuten. Eta, hala, deliberatu zuten gizona landetxera eta Errege gaztelutik hirira joaten zirelarik, gizona gaztelura jinen zela Erreginarengana. Horrela, tronpatzaileak tronpaturik, lau izanen ziren bik berendako baino nahi ez zuten plazerean partaide. Hitzarmena eginik, itzuli egin ziren, anderea bere ganberara eta jauna etxera; hain kontent biak, non ahantziak baitzituzten iragan nahigabe guziak. Erregeren eta anderearen elkartzeak ematen zien beldurra desira bilakatu zen, eta horrek jauna ohi baino sarriago joanarazten zuen bere landetxera, legoa erdira bertzerik ez zegoena. Eta Errege, gizona landetxean zela jakin orduko, haren emaztearengana joaten zen huts egiteke; eta gizonak, gaua erortzean, gaztelura jotzen zuen Erreginarengana, Erregeren lotinant zereginetan; hain gordean, non nehor ez baitzen sekula jabetu. Bizimodu hark denbora luzez iraun zuen, baina Erregek, pertsona publikoa izanik, ezin zuen bere maitasuna hain ongi estali, eta jende oro ohartu zen; denak urrikaltzen ziren bertze gizonaz, eta mutil bihurri batzuek adarrak egiten zizkieten gibeletik, trufaz; eta bera konturatu egiten zen, noski. Baina hain atsegin zuen trufatze hori, bere adarrak Erregeren koroa bezain estimatuak baitzituen; Erregek, jaunaren emaztearekin zegoen batean, orein buru bat ikusi zuen haren etxean paratua, eta ezin izan zion irriari eutsi, etxe hartan apaingarri egokia zela erranez. Jaunak, ez baitzen hura baino eskasagoa, testu hau izkiriarazi zuen gainean: *lo porto le corna, ciascun lo vede, Ma tal le porta, che no lo crede*<sup>4</sup>. Erregek, gizonaren etxera joan eta izkribu paratu berria ikusi zuelarik, erranahiaz galdetu zion jaunari, eta horrela ihardetsi zion hark:

—Erregeren sekretua otseinaren gordean bada, ez dago otseinarena Erregeri azaldu beharrik; baina jakin ezazu adardun guziek ez dutela kapelarik eranzten, hain dira adar horiek ezti, ezen ez baitute nehor kapelagabetzen; eta hala, hain arin eramaten dituzte, non ez baitzaizkie batere axola<sup>5</sup>.

Erregek argi eta garbi ulertu zuen, hitz horietarik, gizonak bazekiela bere aferaren berri, baina nehoiz ez zuen susmorik izan Erreginaren eta jaun haren arteko harremanaz; izan ere, Erregina, zenbat eta nahigabetuago agertzen zen, hainbat eta pozago baitzegoen senarraren bizimoduaz. Eta horrela bizi

---

<sup>4</sup> Nik adarrak daramatzat, hori edonork dakusa. Baina orobat daramatza ez daramatzala uste duenak. (I. O.)

<sup>5</sup> Jatorrizkoan hitz jokoa dagoela dirudi, *cerf* ('orein') eta *serf* ('otsein') hitzak c-z zein s-z hasita idatz baitaitezke. (I. O.)

izan ziren, alde batetik zein bertzetik adiskide, zahartzaroa gauzak beren lekuan ezartzera heldu zen arte.

«Hona hemen, andereok, etsenplutzat eta gogo onez dakarkizuedan istorio bat, zuen senarrek aker adarrez adornatzen zaituztenean, zuek oreinarenez ordain diezaiezuen».

Ennasuite, irriz, honela hasi zen:

«Saffredent, nahiko ziur naiz ezen, iraganean bezain suhar maitatuko bazenu orain, haritzarenak bezain adar handiak jasanen zenituzkeela, emazteki batekiko zure fantasiak asetzeagatik; baina, orain, ilea urdintzen ari zaizun honetan, baduzu tenorea zure desirei pausu emateko».

«Ene anderea —erran zuen Saffredentek—, nahiz eta maite dudanak esperantza kentzen didan, eta adinak suhartasuna, ez dago ene esku nahia apaltzea. Alabaina, eta halako desira zintzo batengatik erasiatzen nauzunez, hitza uzten dizut laugarren kontakizunari ekin diezaiozun, ea baduzun etsenplurik nik erranak gezurtatzeko».

Egia da han zirenetarik bat irri algaraka hasi zela mintzaldi horretan, jakinik Saffredenten hitzak bere alde hartzen zituena ez zuela hark horrenbertze maite, ez behintzat harengatik adarrak, lotsa edo kalteak pairatzeko moduan. Eta Saffredent, ohartu zelarik irriz ari zen hark ongi ulertu ziola, biziki pozik jarri eta isildu egin zen, hurrena hitz egin behar zuenak ekin ziezaion. Eta honela mintzatu zen Ennasuite:

«Andereok, Saffredentek eta hemen zaudeten guziok jakin dezazuen emakume guziak ez direla hark aipatu erregina hura bezalakoak, ezta zoro eta menturazale orok bere helburua lortzen duenik ere, eta bere asmoetan huts egin izanaren atsekabea heriotza bera baino makurragotzat jo zuen dama baten iritzia ez isiltzeagatik, kontatuko dizuet istorio bat baina pertsonen deiturak aipatu gabe, gertaerok oso berri baitaude oraindik jendearen oroimenean, eta ez nuke nahi horrela hurbileko ahaidetik nahigabetzea».

# Laugarren istorioa

*Zaldun gazte batek, ikusirik Flandriako etxerik oneneko dama bat, bere nagusiaren arreba, bi aldiz ezkondu eta bi aldiz alargundua, eta oso emakume deliberatua bera, zundatu nahi izan zuen ea adiskidetasun zintzozko solasek gogaituko ote zuten; bere gogoaren kontrako erantzuna harturik, ordea, bortxan bereganatu nahi izan zuen, baina emakumeak oso ongi egin zion buru. Eta zaldunaren asmoak eta ahaleginak nehoiz aditzera eman gabe, bere ohorezko damaren aholkuz, hari jarri ohi zion begitarte ona jartzeari utzi zion poliki-poliki. Horrela, gizonak, bere buruan zuen gehiegizko uste eroaren ondorioz, emakumearekin zuen tratu onest eta ohikoa ere galdu egin zuen.*

Flandriako herrialdean bazen behin dama bat, hain etxe onekoa, non ez baitzen hoberik; bi senar izan eta bi aldiz alargundua zen, haiengandik haur bizirik izan gabe. Alargun zegoen bitartean, anaia batekin bizitzera joan zen; hark, jaun handikia eta Erregeren alaba baten senarra bera, oso maite zuen. Printze gazte hori plazeretara emana zen oso, ehiza, denbora-pasa eta emaztekien zalea, gaztetasunak eskatzen zion bezala, eta emaztea biziki gogaikarria zuen, senarraren denbora-pasak batere atsegin ez zituena; horregatik, jaun horrek, arreba eramaten zuen beti emaztearekin batera, hura baitzen izaten ahal zuen lagunik alaiena eta onena, baina zuhurra eta zintzoa betiere. Jaun horren etxean bazen zaldun bat, garaieraz, edertasunez eta graziaz bere gainerako kide guziak baino gehiago zena. Zaldun horrek, bere nagusiaren arreba hura emakume alaia zela eta irri aise egiten zuela ikusirik, adiskidetasun zintzo baten proposamenak desatseginak iduri izanen ote zitzaizkion jakiten ahalegindu behar zuela pentsatu zuen, baita halaxe egin ere. Baina gogo zuenaren kontrako erantzuna ukan zuen. Eta haren erantzuna printzesa bati eta egiazko emazteki zintzo bati zegokiona izan bazen ere, egia da, orobat, zalduna horren ederra eta zintzoa zela ikusirik, aise barkatu ziola ausardia handi hura. Eta garbi adierazi zion ez zuela neholako atsekaberik mutilak hitz egiten zionean, baina sarri erranez ez ziezaiola horrelako solasik atera; mutilak hala agindu zion, harekin hitz egiteko plazera eta ohorea ez galtzeko. Hala eta guziz ere, denbora joan ahala, hainbertzeraino handitu zitzaion jaidura, non ahantzi egin baitzuen andereari egin promesa; ez zen ausartu hitzez erratera, nahikoa eta gehiago aditu baitzituen, bere atsekaberako, hark ematen zekien erantzun zuhurrak. Baina iduri zitzaion abantaila zuen leku batean kausitzen baldin bazuen, bazitekeela emakumea, alarguna, gaztea, sasoikoa eta izaera onekoa izanik, beraz eta biez urrikaltzea.

Bere helburuak erdiesteko, etxetik hurbil oso ehiza ona zegoela erran zion jaunari, eta, maiatzean hiruzpalau orein ehizatzaera hara joatea gustuko bazuen, hura baino denbora-pasa ederragorik ez zuela nehoiz ezagutuko. Jaunak, zaldunari zion estimuagatik bezainbat ehizaren atseginagatik, baiezkota eman zion haren galdeari, eta haren etxera joan zen; etxe ederra eta xahua zen, herrialde hartako zaldunik aberatsenarena zenez. Eta jauna eta dama etxeko hegal batean ostatatatu zituen, eta bertzean, aitzinez aitzin, bere burua baino maiteago zuen dama, eta haren gela hain ederki dekoratu eta tapizatu zuen goitik, eta alfonbrak hain ongi estali, non ezinezkoa baitzen haren ohe ondoan zegoen tranpa zulo batez ohartzea; handik zaldunaren amaren ganberara jaisten zen, maiz samar hotzeria izaten zuen dama zaharra bera, zeina, eztula zuenez, semearen gelara aldatu baitzen, goiko ganberan zen printzesari azantza egiteko beldurrez. Eta dama zahar hark konfiturak eramaten zizkion printzesa hari arratsero, otordu arin bat egin zezan; eta horretan zaldunak laguntzen zion, zeina printzesak, oso maitea zuenez eta anaia falta zuenez, ez baitzuen urrunarazten jaunzten edo eranztzen zelarik, eta horretan zaldunak bere jaidura handitzeko aukera ikusten zuen beti. Eta hala, arrats batean, printzesaren ondoan oso berant arte egonik, haren logaleak gelatik uxatu eta berera

joan zen. Eta bere atorrarik apain eta urrindatuena harturik, eta deusetarako behar ez zuen gauerako txano guziz dotore bat, iduri zitzaion, bere burua ikusirik, mundu honetan ezin izan zitekeela damarik bere edertasuna eta grazia onartuko ez zituenik. Horrela, bada, bere asmoarendako aterabide arrakastatsua izanen zuelakoan, ohean sartu zen, luzaro egonen ez zelako ustean, ohe ohoragarriago eta atsegingarriago bat bereganatzeko desiraz eta peskizan. Eta bere mendeko guziak kanpora igorri bezain laster, haien gibeletik atea ixtera altxatu zen. Eta luzaz egon zen adi ea harrabotsik entzuten zen printzesaren gelan, goian baitzen; eta dena lasai zegoela egiaztatu zuenean, bere lan gozoari ekin nahi izan zion, eta poliki-poliki tranpa zabaltzen hasi zen; hain zegoen ongi egina eta oihalez estalia, non ez baitzuen hotsik batere egin, eta handik orduan berean loak hartzen hasia zen bere damaren gelara igo zen, ohe bazterrerraino. Eta orduan, nagusi andereari eta haren etxeari zor zien begirunea aintzat hartu gabe, hari baimena eskatu gabe eta erreberentziarik ere egin gabe, ondoan etzan zitzaion, eta hura haren etorreraz ohartu ere baino lehen besoen artean hartu zuen. Anderea, ordea, indartsua baitzen, haren eskuetatik askatu, nor zen galdetuz, eta joka, hozka eta atzaparka hasi zitzaion, halako moduan non, laguntza eske dei eginen ote zuen beldurrez, ohe estalkiaz itxi nahi izan baitzion ahoa; baina ezin izan zuen, zeren emakumeak ikusi zuenean gizona bere indar guziaz baliatzen zela bera desohoratzeko, bertze horrenbertze egin zuen berak ere eragozteko, eta ahal zuen bezala deitu zion bere gelan zetzan ohorezko damari, gizona ez bezala emakume adintsua eta zuhurra bera, zeina nagusiari laguntzera jin baitzen gaueko atorra hutsez.

Eta zaldunak harrapatu zegoela ikusi zuenean, halako beldurra sartu zitzaion damak ezagutu eginen zuela, non ahalik eta bizkorrenik jaitsi baitzen bere tranpatik; eta, zenbateko desira eta segurtasuna izan zituen ongiatorria ukaiteko, bertze hainbateko etsimendua ukan zuen halako egoera txarrean itzulirik. Ispilua eta kandela mahaiaren gainean kausitu zituen; eta bere begitartea emakumeak egin zizkion karramixka eta hozkadez odoletan ikusirik, odola atorra ederraren gainean agerian zela, orain odoltsuago baitzegoen urre kolorekoa baino, erraten hasi zen:

—Oi, ene ederra, orain harro egon zintezke zure merezimenduez, zeren zure promesa hutsalarengatik ezinezko balentria bati ekin baitiot, eta baliteke ene poza handitu orde malurra bikoiztu izana, zeren segur bainaiz egin nion promesaren kontra erokeria honi ekin diodala jakiten badu, galdu eginen dudala harekiko dudan tratu onest eta ohikoa, bertze nehork ez duena; horretarako balio izan du ene banitateak; zeren ene edertasuna eta grazia baliatzeko, ez nituzkeen ilunpean gorde behar haren bihotzaren maitasuna irabazteagatik; ez nukeen ahalegindu behar haren gorputz garbia indarrez hartzen, ezpada zerbitzu luze batez eta pazientzia apalez maitasuna gailen zedin beha egon, hori gabe gizonaren bertute eta ahalmen oro ez baitira deusetarako.

Horrela eman zuen gaua, kontatu ere ezin diren negar, damu eta oinazeetan. Eta goizean, bere begitartea hain urratua ikusirik, arras eri zegoela eta argia ezin ikusi zuelako itxura egin zuen jende guzia kanpoan izan arte.

Anderea, garaile atera zenez, jakinean bere anaiaren gortean ez zela nehor halako ekinbide bitxi bati heltzeko gai izanen zenik, bere maitasuna aitortzeko ausardia izan zuen hura bere ostatatzailea zela segurtatu nahi izan zuen. Eta ohorezko damarekin batera xerka ibili zen gelako txokoetan, nor izan ote zen jakiteagatik, baina ezin izan zuenez, neskameari erran zion, haserre bizian:

—Segur egon hinteke ezin izan daitekeela etxeko jauna bertze nehor, eta, goizean halako moduan jakinaraziko zionat ene anaiari, non haren burua izanen baita ene kastitatearen lekuko.

Ohorezko damak, horren haserre ikusirik, erran zion:

—Anderea, oso ongi dakit nolako estimuan duzun zure ohorea, eta ohore hori handitzeko ez diozu bizia barkatu nahi zuri dizun maitasunaren indarragatik gehiegi ausartu den gizon bati. Baina ardura gertatzen da handitu uste duenak gutitu egiten duela. Horregatik, anderea, arren galdatzen dizut zer gertatu den egiaz erran diezadazula.

Eta damak den-dena kontatu zionean, ohorezko andreak erran zion:

—Segurtatzen didazu karramixkak eta ukabilkadak bertzerik ez duela erdietsi zuregandik?

—Segurtatzen dinat ezetz —erran zuen damak—, eta erranen niken, zirujau onen bat kausitu ezean, markak agerian izanen dituela bihar.

—Hala denez, anderea —erran zion ohorezko damak—, iduri zait Jainkoa laudatzeko arrazoi gehiago duzula harengatik nola mendekatu pentsatzeko baino; zeren pentsatzen ahal duzu horrelako ekinbide bati ekiteko bihotza izan baldin badu, huts egin duelako damua hain izanen duela handia, non ez baitzenuke asmatuko arinagoa litzaiokeen heriotzarik ematen. Mendekua hartu nahi baduzu, utzi maitasunak eta lotsak joka dezaten, haiek hobeki atsekabetuko baitute zuk baino. Zure ohoreagatik egiten baldin baduzu, ez zaitetz eror bera erori den zorigaitzean; zeren pentsa ere zezakeen plazerik handiena erdietsi ordez, ezein zaldunek jasan lezakeen laidorik makurrena baitu jasan. Era horretan, anderea, zure ohorea handitu nahian, baliteke gutitzea; eta salatzen baldin baduzu, orain nehork ez dakiena ezagutaraziko duzu; zeren, haren aldetik, segur baitzaude ez duela nehoiz deus jakinaraziko. Eta zure anaia jaunak galdatzen duzun justizia eginen balu, eta zaldun gaixoa hilko balitz, alde guzietan zabalduko da hotsa gogoak ematen zion guzia egin zizula; eta gehienek erranen dute ezen nekez gerta daitekeela zaldun batek horrelakorik egitea, non eta damak ez dion aukerarik ematen. Zu ederra eta gaztea zara, alaiki bizi zara denekin; gorte honetan denek ikusi dute zein harrera ona egiten diozun orain susmopean duzun zaldunari; eta horrek segur pentsaraziko die denei hark ekinbide hori hartu baldin badu ez dela izan zure aldetik erru pixka bat izan gabe. Eta zure ohorea, orain arte burua goiti ibilarazi zaituena, dudatan jarriko da historia hau kontatzen den leku orotan.

Printzesa, bere ohorezko damaren arrazoi zuzenak entzunik, hark egia erraten ziola ohartu zen, eta zuzen onez gaitzetsiko zutela, zaldun hari beti egin izan zion adiskidetasunezko harrera ona ikusirik; eta zer egin behar zuen galdetu zion bere ohorezko damari, eta hark erran zion:

—Anderea, ene aholkua hartzea atsegin duzunez, nolako atxikimendutik heldu den ohartzen zarela, iduri zait poza izan beharko zenukeela zure bihotzean ikusirik nik ene bizitza osoan ezagutu dudun zaldunik ederren eta zintzoenak ez maitasunez ez indarrez ez duela asmatu zu egiazko onestasanaren bidetik lekutzen. Horretan, anderea, Jainkoaren aitzinean apaldu behar duzu eta aitortu behar duzu ez dela izan zure bertutearengatik, zeren emakume anitz, zuk baino bizitza zuzenagoa izan dutenak, umiliatu izan baitituzte zaldun horrek baino maitasun gutiago merezi duten gizonek. Eta hemendik harat nehoiz baino kontu gehiago izan behar duzu adiskidetasun proposamenak onartzeko, zeren anitz baitira lehen aldian itzuri eginiko arrisku berberetan bigarreanean eroriak. Gogoan hartu, anderea, Amodio itsua dela, eta itsutu egiten duela, halako moldez non ustez biderik segurena dena, hura bera bihurtu ohi baita labainkorrena. Eta uste dut, anderea, ez hari ez bertze nehoi ez zeniokeela aditzera eman behar zer gertatu zaizun; eta horretaz zerbait erran nahiko balizu ere, ez konprenituarena egin behar diozula, bi arriskuri ihes egiteko; bat, ukan duzun garaipenaren harrotasun hutsala; bertzea, haragiarendako hain atseginak izanik, bertutetsuei ere, uxatzen ahaleginduagatik, txinpartatxo batzuk ez sentitzea kosta egiten zaizkien

gauzak gogoratuz atsegin hartzea. Baina orobat, anderea, zuri atsegin zaizun gauzaren bat egin duela suertez pentsa ez dezan, iduri zait poliki-poliki utzi egin beharko zeniokeela egin ohi diozun harrera ona egiteari, ongi jakin dezan zenbateraino arbuiazen duzun haren erokeria eta zein barkabera izan zaren, aski izan baituzu Jainkoak eman dizun garaipena, harengatik bertze mendekurik eskatu gabe. Jainkoak grazia eman dizu, anderea, zure bihotzean jarri duen onesttasunik iraun dezan; eta ongi den guzia harengandik datorrela jakinik, orain arte ohi duzuna baino gehiago maita eta zerbitza dezazun.

Printzesak, bere ohorezko damaren aholkua betetzeko deliberamendua harturik, zoriontsu hartu zuen lo, zaldunak tristuraren tristuraz iratzarrik jarraitzen zuen hein berean.

Biharamunean jaunak joan egin nahi izan zuen eta ostalariaren berri galdetu zuen; erran zioten hain zegoela eri, non ez baitzen gauza ez argia ikusteko ez nehorik hitz egiten entzuteko; printzea arras estonatu zen horrekin, eta ikustera joan nahi izan zuen; baina lotan zela jakinik, ez zuen iratzarri nahi izan eta horrela joan zen etxetik, adio erran gabe, berekin eramanez emaztea eta arreba, zeinak, ez printzea, ez harekin zirenak partitzerakoan ikusi nahi izan ez zituen zaldunaren desenkusak entzunik, segurtzat eman baitzuen hura zela oinaze hura guzia eragin ziona, eta ez zela ausartzen berak bisaian egin zizkion markak erakustera. Eta nagusiak haren bila joateko maiz agindu arren, ez zen gortera itzuli harik eta zauri guziak ongi sendatu zitzaizkion arte, maitasunak eta damuak bihotzean egin ziotena salbu. Itzuli eta berriz bere etsai garailearen aitzinean kausitu zenean, ezin izan zuen gorritzea eragotzi; eta gorte hartako gizonik ausartena zena hainbertzeraino ikaratu zen, non duintasun guzia galtzen baitzuen ardura damaren aitzinean. Horrexek arras konbentzitu zuen dama hura bere susmoa egia zela; eta hala, poliki-poliki urrundu egin zen harengandik, ez hura arras ongi ez ohartzeko bezain emeki, hala ere; baina zalduna ez zen ausartu ere aditzera ematera, makurragoren bat gertatzeko beldurrez; eta bere bihotzean gorde zuen maitasun hura, merezi izan zuen urruntzearen pazientziarekin.

«Horra, andereok, istorio bat beldurtu egin beharko lituzkeena berena ez dutena berenganatu nahi duten horiek eta indarra eman beharko liekeena damen bihotzei, ikusirik printzesa gazte haren bertutea eta ohorezko damaren zuhurtzia handia. Zuetarik norbaiti horrelako zerbeit gertatuko balitzaio, emana dago erremedioa».

«Iduri zait —erran zuen Hircanek— aipatu duzun zaldun handi hori hain zela kuraiarik gabea, non ez baitu merezi aipatzerik ere; zeren, horrelako aukera izanik, ez baitzukeen, ez zaharragatik ez gazteagatik, bere ekinbidea baztertu beharko. Erran beharra dago, egiaz, haren bihotza ez zegoela maitasunez guziz beterik, heriotzaren eta lotsaren beldurrak oraino ere hartan lekua bazuenez».

Nomerfidek Hircani erantzun zion:

«Eta zer egin behar zuen zaldun gaixo hark, bi emakume kontra izanik?».

«Zaharra hil behar zuen —erran zuen Hircanek—; eta emakume gaztea laguntzarik gabe kausitzean, erdi garaiturik egonen zen behintzat».

«Hil! —erran zuen Nomerfidek—, maitalea hiltzaile bihurtu nahiko zenuke, hortaz? Iritzi horretakoa zarenez, kasu eman beharko dugu zure eskuetan ez erortzeko».

«Ni egoera horretan banengo —erran zuen Hircanek—, ene ohorea galdutzat emanen nuke ene asmoak beteko ez banitu».

Orduan Geburonek erran zuen:

«Harritzekoa iduri al zaizu ohore guziz haziriko printzesa bat gizon bakar batek hartzeko zaila izatea? Are gehiago harrituko zara, hortaz, biren eskuetarik ihes egin zuen emakume gaixo batekin».

«Geburon —erran zuen Ennasuitek—, hitza uzten dizut borzgarren istorioa kontatzeko; zeren iduri baitzait emakume gaixo horri buruz badakizula batere hastiagarria ez den zerbait».

«Nihaur aukeratu nauzunez —erran zuen Geburonek—, ezagutzen dudana historia bat kontatuko dizuet, agitu zen lekuan ikertu bainuen; eta hartatik ohartuko zarete emazteen zuhurtasuna eta bertutea ez dagoela printzesen bihotzetan eta buruetan bakarrik, eta ez maitasun eta buruargitasuna ere maizenik halakotzat hartzen direnengan bakarrik».

# Bosgarren istorioa

*Niort-eko bi kordelierrek<sup>6</sup>, Coulon-eko itsasadarrean<sup>7</sup> ibaia iragaten ari zirela, pasatzen zituen batelaria bortxatu nahi izan zuten. Emakume hark, ordea, zuhurra eta prestua baitzen, hain ongi loarazi zituen hitzez, non, galdatzen zutena emanen ziela agindurik, justiziaren esku jarri baitzituen, eta beren guardianoarengana bidali, merezi zuten zigorra har zezaten.*

Bazen behin Coulongo itsasadarrean, Niortetik hurbil, batelari bat, gau eta egun jendea alde batetik bertzera iragaten aritzen zena. Egun batean, Niort horretako bi kordelierrek ibaia gurutzatu zuten, biek bakarrik batelariarekin. Pasagunea Frantziako luzeenetakoa denez, eta ez aspertzeagatik, batelariari amodio eskakizunetan hasi zitzaizkion biak, baina batelariak behar bezala erantzun zien. Halere, haiek, bideak unaturik ez zeudenez, ez eta ur hotzak izozturik edota emakumearen arbuioagatik lotsaturik, indarrez hartzea pentsatu zuten, edo, bestela, batelariak uko eginez gero, ibaira botako zutela deliberatu zuten. Neskak, berriz, haiek faltsuak eta maltzurak bezain zuhurra eta prestua baitzen, erran zien:

—Ez naiz iduri dudan bezain oiesa, baina bi gauza eskatuko dizkizuet, arren, eta gero ikusiko duzue obeditzeko prestago nagoela ni zuek eskatzeko baino.

Bi kordelierrek zin egin zioten, beren San Frantziskorengatik, eskatzen zien guzia emanen ziotela nahi zutena erdiesteagatik.

—Lehenik eta behin galdegiten dizuet —erran zien hark— zin degidazuela nehoi ez diozuela nehoiz gure abentura hau aipatuko.

Haiek pozik agindu zioten hori. Eta gero erran zien:

—Plazera banan-banan hartuko duzue nigandik, zeren lotsatu eginen bainintzateke biek batera ikusiko baninduzue. Erabaki, bada, bietatik zeinek izan nahi duen lehena.

Neskak eskaturikoari oso bidezko iritzi zioten, eta gazteenak onartu zuen zaharrena izanen zela lehena. Horrela, uharte txiki batera hurbildurik, batelariak gazteenari erran zion:

—Aita on hori, geldi zaitetz zu hemen otoitz egiten, zure laguna bertze uharte batera eramaten dudan bitartean, eta, itzultzen delarik, gorai patzen baldin banau, hura hemen utzi eta gu biok joanen gara elkarrekin.

Gazteak uhartera jauzi egin zuen, zaharra, batelariak bertze uharte batera zeramana, noiz itzuliko. Baina, hara heltzean, ontzia zuhaitz bati lotuko balu bezala itxura eginez, batelariak erran zion fraideari:

---

<sup>6</sup> Frantziskotarrak. (I. O.)

<sup>7</sup> Coulon (Marais Poitevin), Niortetik gertu, Erroxelako badiatik 50 kilometro ingurura dago gaur egun, XIII. mendean lehortzen hasi eta Henri IV.aren garaian, eta gero, batez ere Napoleon Laren garaian, lehortu zen padura batean. Margarita Nafarroakoaren garaian zabaldu osoa padura zen. Horregatik du zentzua istorioan kontatzen denak. (I. O.)

—Lagun, zoaz eta ikusi lehenago ea non kokatuko garen gurea egiteko.

Fraidea uhartera sartu zen, leku egoki baten xerka, baina batelaria, hura lehorrean ikusi orduko, zuhaitzari ostiko bat emanik ibai barnera urrundu zen txalupan, bi fraideak zein bere uhartean utzirik; eta ahal zuen ozenena garrasi egiten zien:

—Egon, jaunak, Jainkoaren aingerua kontsolatzera hel dakizuen, enegandik behintzat atsegin duzuenik ez baituzue erdietsiko gaur!

Bi fraide gaixoak, engainuaz oharturik, belauniko jarri ziren urertzean, hala ez lotsarazteko otoiztuz, eta, batelariak emeki portura eramaten bazituen, deus ez ziotela eskatuko agintzen zioten. Hark, baina, handik lekutuz, erraten zien:

—Bi aldiz eroa nintzateke, zuen eskuetarik ihes egin ondoren berriz zuen eskuetan jarriko banintz.

Eta hirira itzulirik, senarrari eta magistratuei deitzera joan zen, Jainkoaren graziaz hortzetatik ihes egin zien bi otso perilos haiek atzeman zitzaten. Eta hala joan ziren haien xerka konpainia onean, ehiza haren atseginean parte hartu nahi ez zuenik, ez ttipi ez handi, ez baitzen nehor gelditu. Fraide gizagaixoak, hain segizio handia heldu zela ikusirik, zein bere uhartean kukutu ziren, Adanek bere burua Jainkoaren aitzinean biluzik ikusi zuenean bezala. Ahalkeak begien aitzinean erakutsi zien beren bekatua, eta zigortuak izateko beldurrak halako moldez eginarazten zien dardara non erdi hilik baitzeuden. Horrek ez zituen, ordea, atzeman eta preso hartuak izatetik libratu, eta hala izan zen, gizonek eta emakumeek irri eta uhuka egiten zietela. Batzuek erraten zuten:

—Kastitatea predikatzen diguten apez ederrok gure emakumeei ebatsi egin nahi diete gero.

Bertze batzuek zioten:

—Kanpotik zuritu hilobiak dira, baina hilez eta ustelkeriaz beterik daude barnetik.

Eta bertze ahots batek garrasi egiten zuen:

—Hazi gaixtotik fruitu onik ez.

Sinesten ahal duzue Ebanjelioak fariseuen kontra erraten dituen pasarte guziak aipatu zirela bi presoner gizagaixo haien aurka, baina zalutasun handiz bila joan zitzairen guardianoaren bitartez salbatu eta askatu zituzten, sekularrak ezartzera ausartuko zirenak baino zigor gogorragoak ezarriko zizkiela segurtatuz; eta, denak asebetetzeko, eskatzen zizkieten meza eta otoitz guziak eginen zituztela fraideek. Epaileak, beraz, guardianoaren eskaera onartu eta preso eman zizkion; hark hain ongi sartu zituen preso komentuko sotoan, gizon zuzena zenez, non handik harat nehoiz ez baitzuten iragaten ibairik aitaren egin eta Jainkoari gomendatu gabe.

«Arren eskatzen dizuet, andereok, pentsa ezazue batelari pobre hark bi gizon maltzur engainatzeko kuraia ukan bazuen, zer ez duten egin beharko hainbertze eredu eder irakurri eta ikusi izan dituztenek. Begien aitzinetik pasatu zaizkien dama bertutetsuen ontasuna baino ukan ez balute, ongi hezi emakumeen ohiturari bertute deitu beharko litzaioke? Baina deus ez dakitenak, ia urte osoan bi sermoi on baizik entzuten ez dituztenak, beren bizitza pobrea nola irabazi pentsatzea bertze eginkizunik ez dutenak, eta, hain gogor hertsaturik, beren kastitateari hertsiki eusten diotenak, horiengan ezagutzen da bihotzean berez daramaten bertutea, zeren gizakiaren kuraia eta

kemena gutien espero den lekuan egiten baititu Jainkoaren izpirituak egitaterik handienak. Eta arras zorigaiztokoa da gordean edukiz gero hainbertze ohore eta, gorde ezean, hainbertze desohore dakarkion altxorra kontu handiz gordetzen ez duen emaztea».

Longarinek erran zion:

«Iduri zait, Geburon, ez dela bertute handia kordelier bat gaitzestea, baina ezinezkoa izanen litzatekeela hura maitatzea».

«Longarine —erantzun zion Geburonek— zuk dituzunak bezalako zerbitzariak izan ohi ez dituztenek ez dute deus kordelieren kontra; fraide horiek ere gizon ederrak, bertzeok bezain sendoak eta lasaiagoak baitira, armetan hondatuak baikara gu; aingeruak bezala mintzatzen dira, gainera, eta deabruak bezain nardagarriak dira, izan; horregatik dira haien abitu arruntak baizik ikusi ez dituzten emazteak hain bertutetsuak, haien atzaparretatik ihes egiten dutenean».

Nomerfidek ozen erran zuen:

«Ala ene fedea, nahi duzuenaren erranen duzue, baina nik nahiago izanen nukeen ibaira jaurtia izatea kordelier batekin etzatea baino».

Oisillek irriz erran zion:

«Hortaz, ongi dakizu igerian?».

Nomerfideri gaizki iduritu zitzaion hori, eta Oisillek berak nahiko zukeen bezainbat estimatzen ez zuela pentsaturik, haserre erran zion:

«Badira kordelierra baino pertsona atseginagoak arbuiaitu dituztenak, eta ez dute tronpeta joz aldarrikatu horrenbertzez».

Oisillek, hura haserre ikusirik irri eginez, erran zion:

«Are gutiago joarazi dute danborra, egin eta erabaki dutenagatik».

Geburonek erran zuen:

«Badakusat Nomerfidek hitz egin nahi duela; hari uzten diot, beraz, hitza, istorio onen bat kontatuz bihotza arin dezan».

«Orain arteko eleek —erran zuen Nomerfidek—, hain guti hunkitzen naute, non ez baitut ez pozik ez gogorik ukaiten ahal. Baina hitza utzi didazunez, enea entzuteko eskatzen dizuet, erakusteko ezen emakume bat onez seduzitzen den arren, badirela gaitzez seduzituak ere. Eta egia erratea zin egin dugunez, ez dut isildu nahi; zeren batelariaren bertuteak haren etsenpluari jarraitzen ez dioten bertze emakume batzuk ohoratzen ez dituen bezala, era berean bertze baten bizioak ezin desohora ditzake. Entzun ezazue, beraz».

# Seigarren istorioa

*Begibakar zahar batek, Alençon-eko dukearen ganberazaina bera, gaztigaturik bere andrea mutil gazte batez amorostua zela, eta egia jakin nahirik, egun batzuetarako landetara zihoalako itxurak egin zituen, eta hain ustekabean itzuli zen, non emazte zelatatu ohartu egin baitzen. Hala, emaztea tronpatuko zuelakoan bere burua zuen tronpatu.*

Alençoneko azken duke Charles-en ganberazaina gizon zahar begibakar bat zen, eta bera baino askoz gazteagoa zen emazteki batekin zegoen ezkondurik. Etxeko jaun-andereek hainbertze maite zuten gizon hori beren etxean zuen kondizioagatik, non hura ezin baitzen nahi bezain maiz joan emaztea bisitatzera. Hori dela-eta, emaztekiak ohorea eta kontzientzia ahantzi zituen, eta gizon gazte bat maitatzen hasi zen; baina hotsa hain izan zen handia eta itsusia, non finean senarraren belarrietara heldu baitzen. Hark ezin zuen sinetsi, halako txerak egiten zizkion, izan ere, emazteak. Hala ere, egun batean proba egitea pentsatu zuen, eta, ahal bazuen, mendeku hartzea modu hartan ahalkearazten zuen emaztekiak. Eta, horretarako, bizpahiru egunetarako inguruko leku batera zihoalako itxurak egin zituen. Senarra partitu orduko, emazteak gizon gaztearen xerka igorri zuen baten bat; eta ez zen ordu erdi izanen harekin zegoela, hara non agertzen den senarra, ate joka bortizki. Baina emazteak, jakinik nor zen, ohartarazi egin zuen gaztea, zeina, hain harriturik zegoen, non bere amaren sabelean egotea desira baitzuen, emaztekiak eta halako perilean ezarria zuen amodioa madarikatzen zituela. Emaztekiak erran zion lasai egoteko, eginen zuela berak modua handik kalterik eta lotsarik gabe atera zedin, eta beztitzeko ahal bezain zalu. Bitartean, senarrak ate joka jarraitzen zuen, emazteari deika ahalik eta gorakiena. Baina emazteak ezagutzen ez zuelako alegia egiten zuen, eta ozenki erraten zion barnetik sehiari:

—Zergatik ez haiz jaikitzen eta isilarazten atarian harramantza hori egiten ari dena? Hau al da tenorea jende onen etxera heltzeko? Ene senarra hemen balitz, ez huke horrelakorik egingen!

Senarrak, berriz, emaztearen ahotsa entzunez, ahalik eta gorakiena deitu zion:

—Ene emaztea, ireki iezadazu! Hemen egonarazi behar ote nauzu eguna argitu artean?

Eta laguna jalgitzeko prest zela ikusi zuelarik, honela mintzatu zitzaion senarrari, atea irekitzen zuela:

—Oi, ene senarra, nola pozten nauen zu jin izanak! Izan ere, amets zoragarria izaten ari nintzen, hain atsegina, non nehoiz ez baitut halako bozkariarik hartu: iduri zitzaidan zure begia kobratua zenuela berriz.

Eta, besarkatuz eta musukatuz, burutik heldu eta, begi ona eskuaz estaliz, galdegin zion:

—Ez duzu ohi baino batere hobeki ikusten?

Une horretan, eta senarrak deus ere ikusten ez zuela, kanporarazi zuen laguna, baina senarra ohartu egin zen eta erran zion:

—Jainkoagatik, andrea, ez zaitut gehiago zelatatuko; zeren zu tronpatu nahirik sekula asmatu den iruzurrik finena errezibitu dut. Jainkoak onera zaitzala, ez baita munduko ezein gizonen esku emazteki baten gaiztakeria oneratzeko, non eta ez den hura arras hilez. Haatik, eman dizudan tratamendu onak ez duenez nehola ere balio izan zu zentzarazteko, hemendik aitzina ene mespretxua izanen ahal duzu zigor.

Eta, hori erranik, joan egin zen eta oso atsekabeturik utzi zuen emaztea, zeina, bere adiskide, desenkusa eta malkoen bitartez, berriz ere senarrarengana itzuli baitzen.

«Eta istorio honetan, ene andereak, argi gelditzen da zein zalu eta sotila den emaztekoa perilei ihes egiterakoan. Eta halako izpiritu zalua baldin badu gaitz bat estaltzeko erremedioa bilatzen, erranen nuke are eta sotilagoa dela gaizkia galarazteko edota ongia egiteko; izpiritu ona, beti entzun dudanez, azkarrena baita beti».

Hircanek erran zion:

«Nahi bezainbat maltzurkeria aipatuko dituzu, baina, ene iduriko, hori zuri gertatzera, ez zenuke isiltzen jakinen».

«Oso gustukoa nuke —erran zuen andereak— munduko emaztekirik ergelentzat edukiko baninduzu».

«Nik ez dut halakorik erran —erantzun zuen Hircanek—, baina uste dut gehiago zarela azantz batek izutuko zintuzkeen pertsona, hura abilki isilduko zenukeena baino».

«Uste duzu —erran zuen Nomerfidek— denak zu bezalakoak direla, azantz batez bertze bat estali nahi dutela. Baina bada estalki batek finean estalgaia hondatzeko arriskua, eta oinarriek, hain kargaturik egonik estalkiei eusteko, eraikina hondatzekoa. Alabaina, pentsatzen baduzu zure sotiltasuna, zeinaz orok uste baitu ongi jauntzirik zaudela, handiagoa dela emaztekiena baino, hemen duzu ene tokia, zazpigarren istorioa konta diezaguzun. Eta, etsenplutzat zure burua eskaini nahi bazenu, gaiztakeriatik franko erakutsiko zenigukeela erranen nuke».

«Ez nago hemen —ihardetsi zuen Hircanek—, naizena baino makurrago agertzeko; bai baitira batzuk hori erraten dutenak nik nahi nukeena baino gehiago».

Eta hori zioela bere emazteari so egin zion, zeinak tupustean erran baitzion:

«Ez izan beldur eni egia errateko; izan ere, zure maltzurkeriak aisekiago entzunen ditut ene aitzinean egiten ikusi baino, ez baita deus dizudan amodioa ttipitzen ahal duenik».

Hircanek ihardetsi zion:

«Horrexegatik, ez naiz kexu nitaz ukan dituzun iritzi faltsu guziengatik, zeren elkar ongi ezagutzeak etorkizunerako segurtasun handiagoa izateko aukera ematen baitu. Baina ez naiz nihauren istorio bat kontatzeko bezain ergela, egia zu haserrearazteko modukoa izaten ahal baldin bada, eta ene lagun on batena kontatuko dizuet».

# Zazpigarren istorioa

*Merkatari baten buruargitasunak eta sotiltasunak atso bat tronpatzen du eta haren alabaren ohorea salbatzen.*

Parisko hirian bazen merkataria bat auzoko neska batez maitemindua, nahiz eta, hobeki errateko, neska maiteminduagoa zegoen gizonaz gizona neskaz baino, zeren gizonak neskari egiten zion maitasun eta zaletasun itxura maitasun gorenago eta ohoragarriago bat estaltzeko baizik ez baitzen; neskak, ordea, engainatua zela jakinean egonagatik, hainbertzeraino maite zuen, non ahantzia baitzuen emazteek gizonak uxatzeko baliatu ohi duten modua. Merkataria horrek, neska kausitzen ahal zuen lekuetara joateko lanak luzaz hartu ondoren, nahi zuen lekura etorrazten zuen gero. Haren ama, zinez emakume prestua, ohartu egin zen horretaz eta debekatu egin zion merkatariaekin solastatzea, edo bertzela moja sartuko zuela. Neskak, ordea, maitasun handiagoa zion merkataria amari beldurra baino, eta lehen baino ere gehiago ahalegintzen zen haren bila. Eta behin gertatu zen, jantzi gela batean bakar-bakarrik zegoela, merkataria hori sartu zela han eta, horretarako leku egokian zegoenez, harekin ahal zen bezain bakarka mintzatzen hasi zela. Baina hara sartzen ikusi zuen gelazain bat lasterka joan zitzaion amari kontatzera, eta hura haserre bizian azaldu zen. Eta, alabak ama heldu zela sentitu zuenean, negarrez erran zion merkataria:

—Ai, adiskidea, garesti atera behar zaidak une honetan hiri diadan maitasuna. Hona hemen ene ama, betidanik beldurrez susmatu izan duena egiaztatuko dik.

Merkataria ez zen batere larritu horrenbertzez; neskarengandik lekutu eta amaren aitzinera joan zen; eta, besoak zabaldurik, ahal zuen indar guziaz besarkatu zuen; eta haren alabarekin solastatzeko erabili ohi zuen suhartasun berberaz ohatze baten gainera bota zuen atso zaharra. Hari hain bitxia iduritu zitzaion jokamolde hura, non ez baitzekien zer erran, ezpada:

—Zer nahi duzu? Eroturik zaude?

Baina hala ere munduko neskarik ederrena balitz bezalaxe jarraitzen zion gibeletik merkataria. Eta sehiak eta gelazainak laguntzera jin zirelako izan ez balitz, alaba ote zebilen beldur zen bide beretik joanen zatekeen bera ere. Horrela, bada, indarrez askatu zuten atso gaixo hura merkataria eskuetatik, baina nehoiz ez zuen jakin ahal izan zergatik pairarazi zion tratu txar hura. Bitartean, alaba ezkontza bat ospatzen ari ziren hurbileko etxe batean babestu zen, eta merkataria eta neskak anitzetan egin izan dute irri geroztik horretaz batere ohartu ez zen atsoaren kontura.

«Honela bada, ikusten duzue, andereok, nola tronpatu zuen atso bat gizon baten zolitasunak eta nola salbatu zuen neska baten ohorea. Baina merkataria eta atsoaren izenak eman nahiko lizkizuekeenak, edo merkataria haren duintasuna eta atsoaren izumena ikusi zutenek, beren kontzientziaren beldur handia izanen zuketen, eta ez zuketen irri eginen. Aski iduri zait historia honen bitartez frogatzen badizuet gizonen buruargitasuna emaztekiena bezain ernea eta lagungarria dela haren premia dutenean, haien eskuetan erortzeko beldurrik izan ez dezazuen; zeren zuen talentuak huts egiten badizue, haiena prest ukanen baituzue zuen ohorea babesteko».

Longarinek erran zion:

«Egiaz, Hircan, aitortzen dut ipuina atsegina dela oso eta trebezia handia; baina ez da neskek jarraitu beharreko eredu bat. Sinetsirik nago nahiko zenukeela pertsona batzuei hau ongi iduri balitzaie; baina ez zara horren zoroa, eta ez zenuke nahi zure emazteak edo bere ohoreagatik plazeragatik baino gehiago estimatuko zenukeen bertze batek jolas horretan parte hartzea. Iduri zait ez dela nehor ere zuk baino hurbilagotik behatuko lituzkeena eta horrelakorik egitea zuk baino hobeki eragotziko liekeena».

«Ala ene fedea —erran zuen Hircanek—, zuk diozunak horrelakoren bat egin izan balu eta nik deus jakin ez, ez nuke gutiago estimatuko. Eta ez dakit nehork horren ongi jokatu duen eta, ez jakinik, fini atsekabeak».

Parlamente ezin izan zen isilik egon, eta erran zuen:

«Ezinezkoa da gizon gaizkilea susmagarria ez izatea; baina zorionekoa da aukerarik eman ez duelako susmopean jar ezin daitekeena».

Longarinek erran zuen:

«Ez dut nehoiz ikusi kerik egiten ez zuen su handirik; baina bai kea surik ez zen lekuan. Zeren gaiztoek, gaitzik ez den lekuan hura susmatu bezain sarri ezagutzen baitute izan baden lekuan».

Orduan Hircanek erran zion:

«Egiaz, Longarine, hain ongi hitz egin duzu arrazoi gabe susmopean jarri damen ohorearen alde, non zuri uzten baitizut hitza zortzigarren istorioa konta dezazun; baina eziezaguzu negar eginarazi, Oisille andereak, emazteki prestuak sobera gorai patzeagatik, eragin digun bezala».

Longarine, irriz eta algaraz, honela hasi zen:

«Irria eragitea nahi duzuenetz, ohi bezala, ez da emazteen kontura izanen; baina bai erranen dizuet zerbait erakusteko zein erraz tronpatzen diren, jelsia eta irudimena batzen dituztenean, aldi berean beren zentzu zuzena gorai patuz, senarrak tronpatu nahi izanik».

## Zortzigarren istorioa

Borneti, emazteari hark berari bezainbesteko leialtasuna gorde gabe, bere neskamearekin oheratzeko gogo sartu zitzaion, eta bere lagun bati aitortu zion asmo hori; hark harrapakinean bere partetxoa izateko itxaropenez, halako mesedea eta laguntza eman zion, non ustez neskamearekin oheratzen zelakoan, emaztearekin oheratu baitzen, eta hark hala nahita, bere adiskideari parte harrarazi zion berea baizik ez zen plazerean eta bera bilakatu zen adardun, emaztearentzat lotsarik gabe.

Allez-eko konderrian bazen Bornet izeneko gizon bat, emakume zintzo prestu batekin ezkondua; oso aintzat zituen emaztearen ohorea eta ospe ona, nire ustez hemen dauden senar guztiek beren emazteenak dituzten bezala. Bere emaztea leiala izan zekiola nahi baldin bazuen ere, ez zuen nahi legea bientzat berdina izaterik; hain zuzen ere, neskameaz maitemindu zen, nahiz eta aldaketa horretan janariz aldatzeak inoiz eman ohi duen plazera baizik irabazten ez zuen. Gizon horrek bazuen bizilagun bat, bere maila bertukoa, Sandras izenekoa, danbolinjolea eta jostuna; hainbesteko adiskidetasuna zuten elkarrekiko non, emaztea salbu, elkarrekin baitzuten gainerako guztia. Horregatik, hain zuzen, neskamearekiko zuen asmoa aitortu zion adiskideari; eta hark, ongi iritzi ez ezik, ahal zuen guztian lagundu zion asmoa betetzen, harrapakinean bere partetxoa izango zuelako itxaropenean. Neskameak ez zuen entzun ere nahi izan horrelakorik, eta alde guztietatik hertsatuta zegoela ikusirik, ugazabandrearengana jo zuen, bere gurasoen etxera itzultzeko baimen eske; ezin baitzuen jarraitu oinaze hartan. Ugazabandreak, oso maite baitzuen senarra, baina maiz izaten baitzuen haren susmoa, pozik hartu zuen haren kontrako abantaila hori eta haren kontrako susmoa izateko arrazoiak bazituela erakusteko aukera hori. Neskameari esan zion:

—Eutsi, adiskidea; esan hitz goxoak nire senarrari, eta jarri hitzordua nire gelan zurekin oheratzeko; eta esadazu, falta gabe, zein gauetan den etortzekoa, eta molda zaitez inork jakin ez dezan.

Neskameak ugazabandreak agindu bezala egin zuen eta nagusia hain pozik geratu zen non bere adiskideari kontatzera joan baitzen, eta hark, tratuan partaide zenez, soberakinak berari uzteko erregutu zion. Agintza eginik eta ordua iritsirik, nagusia neskamearekin oheratzera joan zen, ustez. Baina emaztea zegoen neskamearen lekua hartuta, agintzeko eskumena zerbitzatzeko plazeraren alde bazterturik; eta, ez emazte bezala, baizik eta neskame herabe baten lotsa-itxura eginez hartu zuen senarra; hura, ordea, ez zen ezertaz ohartu.

Ez nuke jakingo esaten bietatik zein zegoen gusturago: gizona ustez emaztea tronpatzen zuelakoan ala emaztea senarra tronpatzen zuelako. Eta senarra emakumearekin, ez nahiko zukeen bezain luze, ahal zuen bezain luze baizik, egon ondoren, etxetik kanpora atera zen, eta han aurkitu zuen bere adiskidea, bera baino askoz gazteagoa eta indartuagoa, eta inoiz izan zuen gauzarik onena aurkitu zuela kontatu zion. Adiskideak esan zion:

—Badakizu zer agindu zenidan?

—Zoaz bizkor —esan zion nagusiak, jaiki ez dadin edo nire emazteak harekin egiteko zerbait izan ez dezan.

Adiskidea joan zen, beraz, eta senarrak ezagutu ez zuen neskame berbera aurkitu zuen oraindik; hark, ustez senarra zelakoan, ez zion ukatu hark galdegiten zion ezer (“galdegin” diot “hartu” esateko, zeren ez baitzen ausartzen hitz egitera). Senarra baino askoz luzaroago geratu zen; eta emaztea arras harritu zen, ez baitzegoen ohituta horrelako gauak izatera; hala ere, ordea, pazientzia izan zuen, biharamunean zertzuk esan behar zizkion eta sentiarazi behar zion trufa pentsatzeak alaiturik. Eguna argitzen hastear zela, gizona emakumearen ondotik altxatu zen, eta jolasean-jolasean, behatzean zuen eraztun bat, senarrak ezkontzakoan emana, kendu zion; herrialde honetako emakumeek superstizio handiz gorde ohi dute eraztun hori eta biziki ohoratzen dute halako eraztuna hil arte gordetzen duen emakumea. Zoritxarren batez galtzen baldin badu, berriz, bere fede ona senarrari ez baina beste norbaiti eman izan balio bezala mespretxatzen dute. Emakumea pozik geratu zen eraztuna kendu ziolako, ustez eraztun hura emazteak egin zion tronperiaren lekukoa izango zelakoan.

Adiskidea senarrarengana itzuli zenean, hark galdetu zion:

—Zer moduz?.

Iritzi berekoa zela erantzun zion, eta eguna argitzeko beldurrarengatik izan ez balitz, han segituko zukeela oraindik. Eta ahal zuten bezain luzaro atsedetera joan ziren biak. Eta goizean, janterakoan, senarrak bere adiskideak behatzean zuen eraztuna ikusi zuen, berak ezkontzakoan emazteari emandakoaren berdin-berdina, eta nork eman zion galdetu zion adiskideari. Baina adiskideari neskamearen behatzetik kendua zela entzun zionean, arras txunditurik geratu zen, eta buruaz hormari joka hasi zen, esanez:

—Ai, Jainko nirea! Ez nituen bada neuk adarrak jantziko, nire emazteak ezer jakin gabe?.

Adiskideak, kontsolatzearren, esan zion:

—Baliteke zure emazteak eraztuna neskameari uztea gauez gorde zezan?

Senarra, ordea, ezer erantzun gabe, etxera joan zen, eta ohi baino ederrago, pinpirinago eta alaiago topatu zuen emaztea, neskamearen kontzientzia salbatu zuelako eta senarrak azken muturreraino gozatu ahal izan zuelako poztuko balitz bezala, horretarako gau bateko loa baizik galdu gabe. Senarrak, emazteak hain aurpegi alaia zuela ikusirik, bere baitarako esan zuen:

—Nik izan dudan zorte ona jakingo balu ez zidakeen horren aurpegi ona jarriko.

Eta honetaz eta hartaz hitz eginez, eskutik heldu zion, eta inoiz kendu ohi ez zuen eraztuna falta zuela ohartu zuen; izoztuta geratu zen, eta ahots dardaratiz galdetu zion:

—Zer egin duzu zure eraztunarekin?.

Emazteak, berriz, berak hitz egin nahi zion gaia senarrak aipatu ziolako pozez, esan zion:

—Ai, gizon guztietan pikaroena! Nori uste duzu kendu zeniola? Nire neskameari kendu zeniola uste zenuen, niregatik inoiz eralgi duzuna baino bi aldiz gehiago eralgi baituzu harengatik; zeren oheratzera lehenengo aldiz etorri zarenean, hartaz ezin gehiagoraino maiteminduta zeundela iruditu

zait. Baina kanpora atera eta berriro itzuli zarenean, ez ordenarik ez neurririk gabeko deabru bat zinela zirudien. Ai, dohakabea! zer itsumenek hartu zaitu nire gorputza eta nire gorputz-mamiak, gutxienik ere estimatu gabe hain luzaro gozatu dituzunak, hainbesteraino goraiatzeko? Ez da beraz zure neskamearen edertasuna edo gorputz-mamiak horren plazer atsegina harrarazi dizuna, zure bihotza erretzen dizun irrits gaiztoaren bekatu zitala baizik; hainbesteraino sorgortzen dizkizu zentzu guztiak non, ahuntz bati kapela jantziz gero, neska eder bat irudituko bailitzaizuke, neskame horren maitasunak jartzen zaituen oldar horretan. Garaia duzu, senarra, zentzatzeko, eta ni zure emaztea eta emakume zintzoa naizela ezaguturik, emakume gaizto bat nintzela uste zenuenean adina gogobetetzeko. Egin dudan hau zure zoritxarretik ateratzeko izan da, zahartzen garenean adiskidetasun onean eta kontzientzia lasaiz bizi gaitezen. Zeren, iraganeko bizitza jarraitu nahi baduzu, nahiago nuke zuregandik bereizi, egunetik egunera zure arimaren, zure gorputzaren eta zure ondasunen hondamena ikusi baino. Baina zure iritzi okerra aitortu eta Jainkoaren arabera bizi eta haren aginduak betetzea erabakitzen baduzu, iraganeko zure hutsegite guztiak ahaztuko ditut, Jainkoa behar bezala ez maitatuz erakutsi diodan esker txarra ahatz dezala nahi dudan bezalaxe.

Baina, benetan nahastuta, senar gaixo hura geratu zen nahastuta, bere emaztea hain zuhur, hain eder eta hain zintzoa, berak maite ez zuen batengatik bazterturik ikusita; eta, are okerragoa, emaztea ohartu gabe bide zuzenetik atereaz eta beretzat baizik ez zen plazer batez beste bati gozaraziz betirako barrengarri bihurtzeko adarrak bere kabuz janzteko bezain zoritxarrekoa izan zelako. Baina berak neskamearentzat izan zuen maitasunagatik emaztea nahikoa haserre ikusita, ez zen ausartu egin zion joko makurra adieraztera; eta, barkamena eskatuz eta bere bizimodu okerra erabat aldatuko zuela aginduz, bere adiskidearengandik hartuta zeukan erantzuna itzuli zion, adiskideari bere lotsa inoiz ez azaltzeko eskaturik. Baina belarrira esandako guztiak teilatutik predikatzen diren bezala, handik aldi batera egia jakin zen, eta adarduna deitzen zuten, emaztearentzako lotsarik gabe.

«Iruditzen zait, andreak, beren emazteei horrelako laidoak egin dizkieten guztiak honela zigortuko balira, beldur galanta izan beharko luketela Hircanek eta Saffredentek».

«E, Longarine —esan zion Saffredentek—, talde honetan Hircan eta ni al gara gizonezko ezkondu bakarrak».

«Badira beste batzuk —erantzun zion hark—, baina ez horrelako jokaldiak joka nahiko lituzketenak».

«Non ikusi duzu zuk —erantzun zion Saffredentek— gure emazteen neskameen atzetik ibili garenik?».

«Gai honek ukitzen dituen emakumeek egia esango balute —esan zuen Longarinek—, aise aurkituko lirakeke garaiz aurretik kanpora egotzitako neskameak».

«Egiaz —esan zuen Geburonek— andre jatorra zara zu; bilduta gaudenoi, agindu duzun bezala, barre eragin orde, haserretu egin dituzu bi pertsona».

«Gauza bera dira bata eta bestea —esan zuen Longarinek—; ezpatak zorrotik ateratzen ez dituzten bitartean, gure barrea piztu baizik ez du egingo horien haserreak».

«Baina egia da —esan zuen Hircanek— gure emazteek dama honi sinistuko baliote, bilera honetan gaudenon bikoterik onena ere nahastuko lukeela».

«Oso ongi dakit noren aurrean ari naizen hitz egiten—esan zuen Longarinek—; zeren zuen emazteak hain dira zuhurrak eta hainbesteraino maite zaituztete, non, oreinaren adarrak bezain handiak jarriko bazenizkiete ere, nahiago izango bailukete sinistu, eta denei sinistarazi ere, arrosazko kapeluak direla».

Bilduak, gaiak ukitzen zituenak ere barne, halako moduan hasi ziren barrez, non hartan bukatu baitzen solasa. Baina Dagoucinek, ordu arte hitz bat bera ere atera gabeak, hitza hartu zuen:

«Gizona ez da batere zentzuzkoa zertaz poztu edukirik beste zerbaiten bila badabil. Sarritan ikusi izan baititut aski zenarekin kontentatu ez eta hobeto nahi izanez okerrago geratu direnak; horrelakoek ez dute errukirik merezi, nahikeria gaitzestekoa baita beti».

Simontaultek esan zion:

«Baina, zer egingo zenuke zuk beren beste erdia aurkitu ez dutenekin? Nahikeria deitzen diozu beste erdi hori aurki daitekeen alde guztietan bilatzeari?».

«Gizonak jakin ezin duenez —esan zuen Dagoucinek— non dagoen beste batekin elkartuz gero alde biak elkarren berdin egingo dituen erdi hori, maitasunak behartzen duen eta, zer ere gertatzen den, ez bihotza ez borondatea aldatuko ez den lekuan beharko du gelditu; zeren maite duzuna hain baldin bada zure antzekoa eta zure asmo berekoa, zeure burua baituzu maitatuko eta ez hura».

«Dagoucin, iritzi oker batean erori behar duzu —esan zion Hircanek—; emazteak haiek gu maitatu gabe maite behar bagenitu bezala!».

«Hircan —esan zuen Dagoucinek—, nik esan nahi dut gure maitasuna emakume baten edertasunean, xarman, maitasunean eta onginahian oinarritzen bada eta gure helburuak plazera, ohorea eta probetxua baldin badira, maitasun horrek ezin duela iraun; zeren maitasunarentzat hartzen dugun oinarriak huts egiten baldin badu, alde egiten baitigu maitasunak. Baina sineste osoa dut ezen maite duenak eta ongi maitatzea beste helburu eta nahirik ez duenak, lehenago utziko duela bere arima heriotzan maitasun sendo horrek bihotzetik alde egin baino».

«Ala ene fedea —esan zuen Simontaultek—, ez zait iruditzen inoiz maiteminduta egon zarenik; zeren su hori besteek bezala sentitu izan bazenu, ez zeniguke margotuko hemen Platonen Errepublika, ele ederretan idatzia baina inoiz esperimintatu gabea».

«Bai, maite izan dut —esan zuen Dagoucinek—, maite dut orain ere eta maitatuko dut bizi naizen artean. Baina halako beldurra dut maitasunaren adierazpenak huts egingo didala nire maitasunaren perfekzioaren parean, non beldur bainaiz nik beregandik beste horrenbesteko adiskidetasuna desiratzen dudanak nabari dezan; eta ez naiz ausartzen pentsatzen dudana pentsatzera ere; zeren, zenbat eta gordeago eta ezkutuago daukadan su hori, orduan eta areago pizten baitzait perfekzio osoz maite dudala jakitearen plazera».

«Ala ene fedea —esan zuen Geburonek—, ez dut sinesten maite zaituztelako pozten ez zarenik».

«Ez dut kontrakorik esaten —esan zuen Dagoucinek—; baina nik maite dudan adina maite nautenean, ez nuke jakingo nola handitu nire maitasuna, berak ere nola gutxitu jakingo ez lukeen bezala, bera maite dudan bezain maitatua izan ez nadin».

Parlamentek, fantasia horren susmoa zuenez, esan zion:

«Izan kontu, Dagoucin; zeren ikusi baititut hitz egin baino hiltzea nahiago izan duten beste batzuk».

«Horiek zoriontsuak, nik uste —esan zuen Dagoucinek».

«Bai horixe —esan zuen Saffredentek—, eta Inozenteen zerrendan sartzekoak, Elizak abesten dituen bezala: Non loquendo, sed moriendo confessi sunt. Asko entzun izan dut maitasunez hiltze horiez, baina inoiz ez dut bat bera ere hiltzen ikusi. Eta, izan ditudan arazoak ikusita, neuk ere horretatik ihes egin dudanez, ez nuen uste beste inor hil zitekeenik».

«Ai, Saffredent —esan zuen Dagoucinek—, horrela nahi duzu hortaz maitatua izatea? Eta zure iritzikoak inoiz ez dira hiltzen. Makina bat ezagutzen ditut nik maitasun perfektuaz bestelako gaitzez hil ez direnak».

«Beraz, horien historiak ezagutzen dituzunez —esan zion Longarinek—, hitza ematen dizut horrelako historia ederren bat konta dezazun; egun honetako bederatzigarrena izango da».

«Nire egiazko hitzei jarraituz, seinaleek eta mirariek haiek sinestera bultza zaitzaten, oraindik hiru urte ere ez dela gertatu zena kontatuko dizuet».

# Bederatzigarren istorioa

*Zaldun batek damatxo bati zion maitasun perfektuak, gordeegia eta ezezaguna zenez, heriotzara bultzatu zuen, bere lagunaren damurako.*

Dofinerriaren eta Proventzaren artean bazen zaldun bat, bertzelako ondasunez baino bertutez, edertasunez eta onestasunez anitzez aberatsagoa, damatxo bat arras maite zuena, baina ez dut haren izanik erranen haren gurasoei, etxe on eta handietakoak biak, diedan estimuagatik; eta segurtatzen dizuet kontua egiazkoa dela. Eta zalduna haren maila bereko etxekoa ez zenez, ez zen ausartzen bere amodioa adieraztera; zeren damatxoari zion maitasuna hain baitzen handia eta perfektua non nahiago izanen baitzukeen hiltzea ezen ez haren desohoragarri izan zitekeen gauzarik nahi izatea. Eta, bere burua haren aldean hain apal ikusirik, ez zuen harekin ezkontzeko neholako esperantzarik. Horregatik, dama hura ahal zuen modurik perfektuenean maitatzea bertze helbururik ez zuen haren maitasunak; eta hain luzaz egin zuen hori, non hondarrerako zerbaiten berri izan baitzuen damatxoak. Eta, gizonak eskaintzen zion adiskidetasuna bertutez eta asmo onez hain betea ikusirik, ohorez beterik sentitzen zen damatxoa horren pertsonaia bertutetsuak maite zuelako; eta hain harrera ona egiten zion, non gizonak ez baitzuen deus hobez kontentatzeko asmorik. Baina gaiztakeriak, pausu ororen etsaia denez, ezin zuen onez eraman bizitza zintzo eta zoriontsu hura; eta hala, batzuk damatxoaren amari joan zitzaizkion erranez harriturik zeudela zaldun hura bere etxera hainbertzetan joaten zelako eta ustez alabak atxikitzen zuela batez ere, anitzetan ikusten baitzuten harekin solasean. Amak, ez baitzuen neholako dudarik zaldunaren zintzotasunaz eta segurago baitzegoen haren onestasunaz bere haur guzientz baino, atsekabe handia hartu zuen begi txarrez ikusten zutela entzunik; hainbertzeraino non, finean, gizonen gaiztakeriak ekartzen ahal zuen eskandaluaren beldurrez, aldi batez bere etxera ohi zuen bezala ez joateko eskatu baitzion; gizonari irensten zaila iduritu zitzaion kontu hura, jakinik haren alabarekin izaten zituen solas egokiek horrelako urruntzerik ez zutela merezi. Hala ere, mihi gaiztoak isilarazteko, hainbertze denboraz apartatu zen non isildu egin baitziren zurrumurruak; eta berriz itzuli zen, ohi zuen bezala; urruntasunak ez baitzion batere mendratu bere asmo zintzoa. Baina haren etxean zen batean, entzun zuen alaba hura bera baino aberatsagoa ez zen eta haren maitea izateko berak baino meritu gehiago zuenik iduri ez zitzaion zaldun batekin ezkontzeaz hitz egiten zutela. Eta kuraia hartzen hasi zen, eta adiskideak bere alde mintzatzeko erabiltzen, pentsatuz ezen, aukera damatxoaren esku uzten baldin bazuten, nahiago izanen zuela bera bertzea baino. Hala eta guziz ere, neskaren amak eta ahaideek, bertzea askoz aberatsagoa zenez, hura hautatu zuten; zaldun gaixoak halako nahigabea hartu zuen jakinik bere maiteak berak bezainbateko poza galdu zuela, non, bertzelako eritasunik gabe, eskasten-ekasten hasi baitzen poliki-poliki, eta oso denbora gutian hainbertzeraino aldatu zen, non bazirudien heriotzaren moztaraz estali zuela bere bisaiaren edertasuna, eta pozik zihoala heriotzarantz.

Hala ere ezin zuen eragotzi ahal zen guzietan hainbertzeraino maite zuen harekin mintzatzera joaterik. Baina hondarrean, indarrak joan egin zitzaizkion eta ohean gelditu behar izan zuen; ez zion maite zuenari horren berri eman nahi izan, bere atsekabeen parte ez harrarazteko. Eta horrela, etsipenari eta tristurari bide emanaz, jateari eta edateari, lo egiteari eta pausu hartzeari utzi zion, eta ezin zen ezagutu ere egin, haren mehertasunagatik eta bisaia bitxiagatik. Norbaitek damatxoaren amari jakinarazi zion; oso emakume bihotz-zabala zen eta, bertze alde batetik, hainbertzeraino estimatzen zuen zalduna, non, beren ahaide guziak bere eta alabaren iritzi berekoak izan balira, nahiago izanen zuketean zaldunaren zintzotasuna bertzearen ondasun guziak baino; baina aitaren

aldetiko ahaideek ez zuten entzun ere nahi izan hori. Nolanahi ere, zaldun gaixoari bisita egitera joan zen alabarekin, eta iduritu zitzaion hilago zegoela bizirik baino. Eta bizitzaren azkena heldu zitzaiola jakinik, goiz hartan aitortza egin eta sakramentuak hartuak zituen, bertze nehor ikusi gabe hilen zelako ustean. Zaldunak, ordea, heriotzatik bi urratsera egonagatik, bere bizia eta berpizkundea zena sartzen ikusirik, hain indarturik sentitu zen, non jauzi batez zutitu baitzen ohean, eta damari erran zion:

—Zerk ekarri zaitu hona, anderea, bisita egitera nori-eta hanka bat dagoeneko hilobian duen honi, bere heriotzaren arrazoia zu zaituen honi?

—Nola liteke —erran zuen damak— hain maitea duguna gure erruz hiltzea? Erradazu, otoi, zergatik diozu hori?

—Anderea —erran zion zaldunak—, ahal izan dudan heinean disimulatu dut zure alaba ene andereñoari nion maitasuna; ene gurasoek, haren eta ene arteko ezkontzaz hitz eginez, nik nahi nuena baino gehiago deklaratu dute, esperantza galtzean etorri zaidan zoritxarra ikusirik, ez ene atsegin partikularrerako bakarrik, badakidalako baizik bertze nehorekin ez dela izanen enekin balego bezain ongi tratatua eta maitatua. Mundu honetan duen lagunik hoberena eta fidelena galtzen duela ikusteak min gehiago ematen dit nihauren bizitza galtzeak baino, harengatik bakarrik gorde nahi bainuen; hala ere, deusetarako balio ezin dionez, irabazi handia da bizitza hau galtzea.

Ama-alabak, hitz horiek entzunik, bihotz ematen entseatu ziren, eta amak erran zion:

—Har kuraia, adiskidea, eta hitz ematen dizut, ene fedearen izenean, Jainkoak zure onera itzultzen bazaitu, zu bertze senarrik ez duela izanen ene alabak. Hemen duzu, aitzinean, eta zurekin ezkontzeko promesa egiteko agintzen diot.

Alaba, negar batean, amak agintzen zuenaren segurtasuna ematen ahalegindu zen. Zaldunak, berriz, jakinik bizkortzen zenean ez zuela ukanen bere maitea, eta hark erraten zizkion ele eder haiek kuraia pixka bat emateko baizik ez zirela, erran zien ezen hiru hilabete lehenago horrela hitz egin izan baliote, Frantzia osoko zaldunik osasuntsu eta zoriontsuena izanen zatekeela, baina laguntza oso berant heldu zela eta ez zela ez sinestekoa ez eta espero izatekoa ere. Eta emaztekiak sinetsarazten saiatzen ari zirela ikusi zuenean, erran zien:

—Beraz, zuek nahi izanik ere, orain nagoen bezain ahul egonik, jadaneko ukan ezin dezakedan ongia agintzen didazuela ikusten dudanez, nehoiz eskatzera ausartu naizena baino anitzez ere fabore ttipiago bat galdegiten dizuet.

Orduan zin egin zioten biek, eskatzera ausartzeko.

—Otoizten dizut —erran zuen gizonak— pausatzeko ene besoen artean emaztetzat agintzen didazuna; eta agin diezaiozula besarkatu eta pot eman diezadan.

Alaba, ez baitzuen horrelako ozarkeriak egiteko ohiturarik, eragozpenak jartzera zihoan; baina amak espresuki agindu zion egiteko, ikusirik zaldunarengan ez zegoela gizaki biziaren sentimendurik ez indarrik. Alabak, bada, agindua betez, eriaeren ohera ondoratu eta erran zion:

—Adiskidea, anima zaitetz, arren!

Zaldun hondatu gaixoak, giharrik eta odolik gabeko besoak ahal zuen indar guziaz zabaldu zituen, eta bere hezurretako indar apurraz bere heriotzaren eragilea besarkatu zuen; eta bere aho hotz eta zurbilaz pot emanaz, ahal izan zuen denbora guzian eduki zuen horrela; eta gero erran zion:

—Hain handia eta onesta izan da zuri izan dizudan amodioa, non nehoiz ez baitut desiratu izan zuregandik, ezkontzaz kanpo, orain berean dudan ontarte hau bertzerik; horrexen faltaz eta horrexekin utziko baitut ene arima maitasun eta onginahi perfektua den Jainkoaren eskuetan, hark ongi ezagutzen baitu ene amodioaren handia eta ene desiraren zintzotasuna; eta orain, desio nuena beso artean dudalarik, ene arima bere eskuetan har dezala otoizten diot.

Eta, hori erranez, halako suhartasunez hartu zuen berriz beso artean, non, bere bihotz ahulduak ahalegin hura jasan ezinik, indar eta gogoek oro alde egin baitzioten, zeren hainbertzeraino zabaldu zituen bozkarioak, non huts egin baitzion arimaren egoitzak eta Sortzailearengana joan zen hegan. Eta gorpu gaixoa bizirik gabe luzaz gelditu bazen ere eta, horrexegatik, heldurik zeukanari eutsi ezin zionez, damatxoak betidanik gordean eduki zuen amodioa hain bortizki azaldu zen une hartan, non haren amari eta hilaren zerbitzariei kostatzen baitzizkien batasun hura desegitea; baina, indarra eginez, bizia, hilik baino okerrago, askatu egin zuten hilaren besoen artetik, eta hilari ohorez eman zioten lur. Eta hileta hartan, damatxo gaixo haren malkoak, negarrak eta oihuak izan ziren garaipenik handiena, zeina hainbat argiago adierazi baitzen hil ondoren bizi zen bitartean isilean egon baino, eginiko makurra zuzendu nahiko balu bezala ia. Eta handik hara (entzun dudanez), zeinahi ere ematen ziotela senartzat kontsolatzeko, sekula ez du pozik izan bihotzean.

«Ez zaizue, ene hitza sinetsi nahi izan ez duzuen jaunok, etsenplu hau aski iduritzen aitorrarazteko maitasun perfektuak, gordeegia eta ezezaguna denean, heriotzara eramaten duela? Zuen artean ez da haren alde bateko zein bertzeko ahaideak ezagutzen ez dituenik: ezin duzue, beraz, erranaz dudarik ukan, eta esperientzia ukan ez duenak ezin du sinetsi».

Andereei, hori entzunik, malkoak etorri zitzaizkien begietara; baina Hircanek erran zion:

«Horra nik aditu izan dudan erorik eroena! Zentzuzkoa al da, alafede, emaztekiengatik, zeinak guretako baizik ez baitira eginak, hiltzea, eta Jainkoak guri eman diezaguten agintzen diena galdatzeko beldur izatea? Ez naiz nihurgatik edo ezkondurik dauden guziengatik ari, zeren nik bai baititut behar ditudan emazteki guziak eta gehiago, premia dutenengatik baizik, ergelputz hutsak baitira berei beldurra izan beharko lieketenen beldur baldin badira. Ez al duzue ikusten damatxo gaixo horrek nolako damua zuen bere ergelkeriaz? Zeren, gorpu hila besarkatzen zuenez (naturaren kontrako gauza), ez zukeen arbuiatuko gorputz bizia, zaldunak hiltzerakoan erakutsi zuen urrikalmendua bezainbertzeko ausardia izan balu bizitan».

«Nolanahi ere —erran zuen Oisillek—, zaldunak ederki erakutsi zuen horrela damatxoari zion amodio zintzoa, eta horregatik mundu osoaren aitzinean laudagarria izanen da betiko; zeren bihotz maitemindu batean kastitatea ediretea jainkozko gauza da areago gizatiarra baino».

«Anderea —erran zuen Saffredentek—, Hircanek erran duena egiaztatzeko, haren iritzikoa baino, arren eskatzen dizut sinets dezazula ausarten alde jokatzeko duela Fortunak, eta ez dagoela gizonik, dama batek maite badu (baina zuhurtasunez eta adetasunez jokatzeko badaki), finean harengandik partez galdegiten duena guziz erdietsiko ez duenik; baina ezjakintasunak eta beldur zoroak abentura on asko galarazten dizkie gizoni, eta beren maitalearen bertuteari egozten diote galera hori, hura

eri baten puntaz ere nehoiz ukitu ez badute ere, zeren nehoiz ez baita gertatu plaza ongi setiatu eta gero ez atzematea».

«Baina —erran zuen Parlamentek—, balditurik naukazue erraten dituzuenekin! Edo maite izan dituzuenak ez dituzue atxiki, edota zuen trebezia hain leku ezdeusetan erabili izan duzue, non berdinak iduri baitzaizkizue emazteki guziak?».

«Andereño —erran zuen Saffredentek—, nitaz denaz bezainbatean, hain naiz zoritxarrekoa non ez baitut zertaz harroturik; baina ene zoritxar hori gutiago egozten diot emazteen bertuteari ene kontuak zentzuz abiarazten edo zuhurtziaz bideratzen ez jakiteari baino; eta *Roman de la Rose*-ko atsoak dioena baizik ez dut aipatuko ene iritziaren alde, honela baitio:

Dударик ez, jaunok, emazteak oro gizonendako,  
gizonak oro emazteendako.

Horregatik ez dut nehoiz sinetsiko amodioak emakume baten bihotzean lekua hartu baldin badu, gizonak aterabide onik ez duenik, guziz zozoa ez bada behintzat».

Parlamentek erran zuen:

«Eta aipatuko banizue emakume bat, maitatzaile ona, behar bezala bilatua, hertsatua eta gogaitarazia, eta hala ere emakume ona, eta bihotza, gorputza, amodioa eta maitatzailea garaitu zituena, aitortuko zenukete posible dela egiaz gertaturiko hori?».

«Bai, zinez —erran zuen gizonak».

«Beraz, sinesgogorrek izanen zinateke denak —erran zien Parlamentek—, etsenplu hau sinesten ez baduzue».

Dagoucinek erran zion:

«Anderea, etsenplu batez frogatu dudalarik zaldun batek hiltzerainoko bertutezko amodioa ukan zuela, otoizten dizut, emazteren baten ohoreaz bertze horrenbertzekorik baldin badakizu, konta diezaguzula, egun hau finitzeko; eta ez izan beldur luzaz aritzeko, gauza on asko kontatzeko astia bada eta».

«Hitz egiteko azken txanda eman zaidanez —erran zuen Parlamentek—, ez zaituztet luzaz edukiko hitzak entzuten; zeren ene historia hain baita ederra eta hain egiazkoa, non berehalaxe ezagutarazi nahi baitizuet. Eta ene begiez ikusia ez den arren, ene lagunik handien eta zintzoenatarik batek kontatua da, berak gehien estimatzen zuen pertsona baten laudorioz. Eta zin eginarazi zidan nehoiz kontatzen baldin banuen, aldatzeko pertsonen izenak; horregatik, hain zuzen, hau dena egia da, izenak, lekuak eta herrialdea izan ezik».

# Hamargarren istorioa

*Floride, alargundu ondoren, eta Amadour-en jazarpenari bertute handiz iharduki ziola —hark azken bururaino hertsatu baitzuen ohorea galaraztera—, serora sartu zen Jesusen monasterioan.*

Aragoiko Arandako<sup>8</sup> konderrian bazen andere bat, kondea hil eta gazte-gazterik alargun gelditu zena seme batekin eta alaba batekin, Floride izenekoa azken hori. Andere hori ahalegindu zen bere haurrak kapare eta aitoren semeei dagozkien bertute eta onestasan guzietaz hazten; halako modutan, non haren etxeak Espainia guzietako ohoragarriena izatearen fama erdietsi baitzuen. Sarri joaten zen Toledora, han egon ohi baitzen Espainiako erregea<sup>9</sup>; eta Zaragozara joaten zelarik, bere etxetik oso gertu, Erreginarekin egoten zen gortean, eta bertze edozein dama bezain estimatua zen han. Behin, ohi bezala Erregerengana zihoala, Zaragozako Aljaferiako bere gazteluan<sup>10</sup> baitzegoen hura, iragan zen Kataluniako erregeordeari<sup>11</sup> zegokion herri batetik; erregeordea ez zen Perpinyàko mugatik batere urruntzen, Frantziako eta Espainiako erregeen arteko gerla handiak<sup>12</sup> zirela kausa, baina aldi hartan bake garaia zen, eta hori dela-eta erregeordea Erregeri agur egitera heldua zen, bere kapitain guziekin. Erregeordeak jakin zuelarik Arandako kondesa haren lurraldetik iragatekoa zela, berarengana joan zen, hala antzinatekin zuten adiskidetasunagatik nola ohore egiteagatik, Erregeren ahaidegokoa baitzen hura. Bada, erregeordeak bazituen bere taldean hainbat gizon leial, zeinek, gerla luzeetan ibiliak izanik, erdietsiak baitzituzten halako ohore eta ospe ona, non haiekin elkartzeko parada zuen oro zorioneko sentitzen baitzen. Eta, bertzeak bertze, bazen bat Amadour izenekoa, zeinak, hemezortzi edo hemeretzi urte baizik ez izanagatik, halako dohainak eta zentzu ona zituen, non milaren artean hautatuko zuketuen estatu bat gobernatzeko. Egia da zentzu on horrekin batera bazuela, orobat, halako edertasun handi eta laño bat, ezinezkoa baitzen hari begiratzea atsegirik hartu gabe; eta edertasuna fina bazen, ez zen giblean gelditzen haren mintzoa, ez baitzen erraza asmatzen zer lehenetsi, grazia, edertasuna edo mintzo egoki hura. Baina, ororen gainera, haren ausartzia handia zen jendeak gehien estimatzen zuena, eta gaztetasunak ez zion ausartzia haren ospea lausotzen; izan ere, jadaneko hainbertze tokitan zuen erakutsia bere antzea, non, ez soilik Espainietan<sup>13</sup>, baizik Frantziaren eta Italian ere estimatuak ziren haren bertute handiak, parte hartu zuen gerla orotan eginahal osoan emana baitzen; eta, haren herrialdea pausuan zegoelarik, toki arrotzetara jotzen zuen gerla bila, non lagunek nahiz etsaiek maite eta estimatzen baitzuten.

Zaldun hori, bada, bere kapitainak zion maitasuna zela medio, Arandako kondesa heldu zen lurralde hartan suertatu zen; eta, garai hartan hamabi urte baizik ez zituen haren alaba Florideren dohain-edertasunei mira, bere baitan pentsatu zuen sekula ikusia zuen pertsonarik finena zela hura, eta, haren grazia eskuratzerik baldin bazeukan, bertze nehorengandik eskuratzen ahal zituen ondasun eta plazer guziekin baino gogobeteagorik egonen litzatekeela. Eta denbora luzez hari beha egon

---

<sup>8</sup> Aranda de Moncayo, Espainiako Zaragozako probintzian gaur egun. (I. O.)

<sup>9</sup> Fernando Katolikoa. (I. O.)

<sup>10</sup> Aragoiko errege-erreginen egoitza. (I. O.)

<sup>11</sup> Henrike Aragoikoa, Ribagortzako kondea. (I. O.)

<sup>12</sup> 1493, Bartzelonako Ituna: Karlos VIII.ak Roselló eta Cerdanya itzultzen dizkio Fernando Katolikoari; 1496: frantsesek Salses eskuratzen dute; 1497: Frantziaren eta Espainiaren arteko su-etena; 1512: Nafarroa kentzen diote Albret familiari. (I. O.)

<sup>13</sup> Gaztela, Nafarroa, Portugal eta Aragoiko konfederazioa (Aragoi, Katalunia eta Valentziako erresuma). (I. O.)

ondoren, neska maitatzea deliberatu zuen, arrazoiak erakusten zizkion ezintasunak gorabehera, zeren, etxe onekoa izateagatik zein zuen adinagatik, ezin baitzituen hark artean halako hitzak aditu. Beldur horiek, ordea, esperantza handi batek leuntzen zizkion, eta bere buruari agintzen zion denborak eta pazientziak amaiera zoriontsua emanen ziotela hartu lanari. Harrezkero, amodio zintzo hark, Amadourren bihotzean bere gisa sartua zenak, agindu zion fabore eta bide oro emanen zizkiola hura erdiesteko. Eta zailtasunetan handienari heltzeko, zeinak baitziren bera bizi zen herrialdearen urruntasuna eta Floride ikusteko izanen zituen aukera urriak, ezkontzea pentsatu zuen, Bartzelonako eta Perpinyàko andereekin deliberaturikoaren kontra, non halako sinesgarritasuna zuen ezen deus guti ukatzen baitzioten; eta hain ibilia zuen mugalde hori, gerlak zirela-eta, non katalana baitzirudien gaztelaua baino gehiago, nahiz eta Toledotik hurbil sortua izan, etxe aberats eta ohoragarri batean; baina, sasimutila izaki, ez zuen batere ondarrerik. Eta horrela, Amodiok eta Fortunak, gurasoek bazter utzia zutela ikusirik, deliberatu zuten harengan egitea beren maisulana, eta eman zioten, bertuteen bidez, bere herrialdeko legeek ukatzen ziotena. Trebea zen gerlaren antzean, eta jaun eta printze orok hain estimatua, non haien ondasunen eske ibili baino sarriago egiten baitzien uko.

Aipatu dizuedan kondesa arribatu zen, bada, Zaragozara, eta oso ongi hartu zuten Erregek eta haren gorte guziak. Kataluniako gobernadorea maiz heldu ohi zitzaion bisitan, eta Amadour huts egin gabe joaten zen harengana, Floride ikusteko aukera izateagatik soilik, harekin hitz egiteko neholako modurik ez bazeukan ere. Eta, bere burua horrelako konpainian ezagutarazteko asmoz, auzoa zuen zaldun zahar baten alabarengana jo zuen; neska horrek Avanturade zuen izena, eta hain zen Florideren adiskide mamia, non hark bihotzean gordetzen zuen ororen berri baitzekien. Hala, Amadourrek harekin esposatu nahi lukeenaren moduan gorteatzea deliberatu zuen, bai harengan kausitu zuen onestasanagatik zein ezkonsaritzat zeukan hiru mila dukateko errentagatik. Eta horretarako oso gogo onez agertu zen neska; baina, gizona pobrea eta aita aberatsa izaki, pentsatu zuen aitak ez zuela nehoiz begi onez ikusiko ezkontza hura, non eta ez zen Arandako kondesaren bidez. Hortaz, Floride anderearengana jo zuen, eta erran zion:

—Ene anderea, ezagutzen duzu maiz mintzatzen zaidan jaun gaztelau hori, ezta?; bada, erranen nuke duen nahikari bakarra enekin ezkontzea dela. Badakizu ene aita nor den, eta hark ez du nehoiz horretarako baimenik emanen, ez bada kondesak eta zuk gogotik eskatzen diozuela.

Floridek, zeinak neska hura bere burua bezainbat maite baitzuen, segurtatu zion afera hori barnetik hartuko zuela, berea balu bezala. Avanturadek egin zuen modua Amadour Florideri aurkezteko, eta hark neskari eskuan muin eman ziolarik, gutik egin zion ez trenputxartzeko; eta hara non, Espainian zen aho-ederrik onenaren sona zuena mutu gelditu baitzen Florideren aitzinean, neska harri eta zur utziz; izan ere, hamabi urte bertzerik ez izanagatik, ordurako aditua zuen ez zela Espainian erran nahi zuena hark baino hobeki eta grazia handiagoz erraten zuenik. Eta Amadourrek hitz egiteko asmorik ez zuela ikusirik, bera hasi zitzaion honela:

—Halakoa da Espainia guzietan duzun ospea, Amadour jauna, non inguru hauetako orok ezagutzen baitzaitu, eta zuri atsegin ematea da ezagun zaituztenen nahia; beraz, zerbaitetan atsegin ematen ahal badizut, zure erranetara naukazu.

Amadour, hain zegoen loriaturik bere anderearen edertasunari mira, non ez baitzen ia gai eskerrak emateko ere; eta Floride, erantzuten ez zuela-eta harriturik, eta amodioaren indarrari baino gehiago zozokeriaren bati egotziz, joan egin zen bertzerik erran gabe.

Amadourrek, ikusirik nolako bertuteak ari ziren ernatzen Floriderengan hain gaztea izanik, erran zion esposatu nahi zuenari:

—Ez zaitetz harritu Florideren aitzinean hitzik gabe gelditu baldin banaiz; zeren hain liluraturik gelditu naiz halako gaztetasunean gorderik dauden bertuteak eta mintzo jakintsua ikusirik, non ez baitut jakin zer erran. Baina otoi galdegiten dizut, Avanturade, haren sekretuen jakitun zarenez, erran diezadazun ea posible den gorte honetako gizon ororen bihotzak harenak ez izatea; izan ere, hura ezagutu eta maite ez duena, edo harria da edo astakirtena.

Avanturadek, Amadour ordurako munduko bertze edozein gizon baino maiteago baitzuen, ez zion deus gorde nahi izan, eta erran zion jende orok maite zuela Floride anderea; baina, herrialdeko ohiturak zirela-eta, oso jende guti mintzatzen zitziola; eta oraindik ez zuela esposatzeko asmorik agertu zuen nehor ikusi, ezpada Espainiako bi printze, Fortuné Infantearen semea<sup>14</sup>, bata, eta Cardonako duke gaztea<sup>15</sup>, bertzea.

—Otoi —erran zuen Amadourrek—, erradazu zein nahiago duen, zure iduriko?

—Hain duzu zuhurra —erran zuen Avanturadek—, non deusengatik ere ez bailuke onartuko bere amarena ez bertze nahirik; hala ere, itxura denez, gustukoagoa du Fortuné Infantearen semea Cardonako duke gaztea baino. Baina amak, berarengandik hurbilago izateagatik, nahiago luke Cardonan balu. Eta zentzu oneko gizontzat zaitudanez, nahi izanez gero egundik beretik ikusi ahal izanen duzu egia zertan den; izan ere, Fortuné Infantea gorte honetan hazia da, eta giristino herri osoko printze gazte eder eta beteginenetako bat da. Eta esposatuko balitz, hemengo neskon iritzian, segur litzateke Floride anderearekin, Espainiako bikoterik ederrena osatuko bailukete. Entelegatu behar duzu, bi-biak hagitz gazteak diren arren, hamabi urte neskak eta hamabortz mutilak, badirela hiru urte elkarren arteko amodioa hasi denetik; eta, neskaren begikoa izan nahi baduzu, mutilaren lagun eta zerbitzari bihurtzea aholkatzen dizut.

Amadourrek oso pozik ikusi zuen bere andere hura gai zela zerbait maitatzeko, leku hura luzarora berak irabaziko zuen esperantzan, ez senar ezpada zerbitzari gisa; zeren beldur baitzen emaztekoa, hain bertutetsua izaki, ez ote zen maitatzeko ezgai izanen. Hitz horien ondoren, Amadour Fortuné Infantearen semearengana maiz joaten hasi zen, eta aise lortu zuen haren begikotasuna, abila baitzen printze gazteak gustuko zituen denbora-pasa orotan; oso trebea zen, bereziki, zaldiak maneiatzen eta era guzietako armak erabiltzen, eta gazte batek ezagutu behar dituen denbora-pasa eta joko orotan. Gerla hasi zen berriro Languedocen<sup>16</sup>, eta Amadourrek itzuli egin behar izan zuen gobernadorearengana; ez damurik gabe, ez baitzeukan modurik Floride ikusi ahal izanen zuen nehorat itzultzeko. Horregatik, partitzerakoan, anaia bati mintzatu zitzaion, Espainiako erreginarene ethezaina baitzen, eta kontatu zion nola, Arandako kondesaren etxean, kausitu zuen ezkongai egokia, Avanturade andereñoa, eta galdatu zion bera kanpoan zen bitartean ezkontza gauzatzeko ahalegin oro egin zezan, horretarako Erregina, Errege eta haien adiskide guziengan zuen konfiantzaz baliatuz. Kapareak, anaia maite baitzuen, etxekoa zuelako bezainbat haren bertute handiengatik, agindu zion beteko zuela eginkizuna. Eta bete egin zuen, halako moduan, non aita zahar eta xuhurra, alde batera utziz berezkoa zuen izaera, estimatzen hasi baitzen Amadourren bertuteak, Arandako kondesak eta, bereziki, Floride ederrak ikusarazten zizkietenak; orobat Arandako konde gaztea ere, zeina, hazten

---

<sup>14</sup> Fortuné Infantea Henrike Aragoikoa da, eta haren semea, Alfontso. (I. O.)

<sup>15</sup> Raymond Folch V.aren semea. (I. O.)

<sup>16</sup> Hori 1512ko uztaileko Nafarroako inbasioaren aipamena izan liteke; handik gutira Fernando aldarrikatu zuten Nafarroako errege; frantziarren kontraerasoak huts egin zuen. (I. O.)

ari zenez, jende bertutetsuak estimatzen ere hasia baitzen. Ezkontza adostu zelarik gurasoen artean, Erreginaren etxezainak anaiaren bila bidali zuen norbait, bi erregeen arteko meniak<sup>17</sup> zirauen bitartean.

Garai horretan, Espainiako erregea Madrilera erretiratu zen, hainbat lekutan zegoen aire gaiztotua saihesteko; eta, bere kontseiluko aholkuei jarraikiz, bai eta Arandako kondesaren eskariz ere, Medinaceliko dukesa oinordekoa eta Arandako konde gaztea ezkondu zituen, hala beren etxeen onagatik eta batasunagatik nola Arandako kondesari zion maitasunagatik; eta ezteiak Madrilgo gazteluan egin nahi izan zituen. Eztei horietan Amadour izan zen, eta bereak lortu nahian hain ongi moldatu zen, non Avanturade esposatu baitzuen, bera maiteago zuena berak emaztekoa estimatzen zuena baino. Hartara, ezkontza hura ederki baliatu zuen gero maiz joan ahal izateko bere gogoia etengabe bizi zen lekura. Ezkondu ondoren, halako atrebentzia eta konfiantza hartu zituen Arandako kondesaren etxean, non nehork ez baitzion mesfidati begiratzen, ez behintzat emazteki bati baino gehiago. Eta hogeita bi urte baizik ez izanagatik, hain zuhurra zen, non Arandako kondesak bere afera guzien berri ematen baitzion, eta semeari eta alabari agintzen zion harekin egoteko eta haren aholkuak sinesteko. Hartarainoko estima bereganaturik, zuhur eta hotz jokatzeko zuen, eta maite zuenak berak ere ez zion antzik ematen gizonak berarekiko zuen samurtasunari. Baina zaldunaren emazteari zion maitasunagatik, bertze nehor baino gehiago maite baitzuen, halako atxikimendua zion, non ez zion bere gogoan zerabilen deus isiltzen; eta, halako batean, Fortuné Infantearen semeari zion amodioa aitortu zion. Amadour, emaztekoa osoki beretako irabazteko ahaleginetan zebilenez, printzeaz mintzatzen zitzaion etengabe; ez baitzitzaion axola zertaz solastatzen ziren, luzaz berarekin egon ahal izatekotan. Ezkondu ondoren, hilabete eskas egin zuen lagunarte hartan, gerlara itzuli behar eta bi urte baino gehiago eman baitzituen han, emaztea ikustera itzuli gabe, zeinak haurtzaroa eman zuen lekuan bizitzen jarraitu baitzuen.

Denbora horretan, Amadourrek maiz eskribitzen zion, baina gutunetan Floriderendako gomendioak egoten ziren batik bat, zeinak, bere aldetik, huts egiteke erantzuten baitzion, bere eskuaz hitz atseginen bat jarriz Avanturadek egiten zuen gutunean, aukera emanek horrela haren senarrari berriz arta handiz eskribitzeko. Baina honetan guzian Floride arras ezjakinean zegoen, Amadour anaia balu bezala maite baitzuen. Amadour joan-etorri ibili zen, eta bortsu urtean bi hilabetez baizik ez zuen Floridarekin egoterik izan; amodioa, ordea, urruntasunaren eta absentziaren luzea gorabehera, haziz joan zen etengabe. Eta suertatu zen bidaia bat egin zuela emaztea ikusteko. Kondesa gortetik oso urrun zebilen, Espainiako erregea Andaluziara joana zelako, eta berarekin eramana zuen Arandako konde gaztea, zeina hasia baitzen armak erabiltzen. Horrela, bada, Arandako kondesa Aragoi eta Nafarroaren arteko mugetan zeukan laketetxe batera erretiratu zen; eta oso pozik jarri zen Amadour itzuli zela ikusirik, ordurako ia hiru urte baitziren kanpoan zebilela. Jende orok abegi ona egin zion, eta kondesak manatu zuen bere semea balitz bezala trata zezaten. Berarekin egon zen bitartean, bere etxeko afera guzien berri eman zion andereak, eta gehienak haren irizpidearen arabera bideratu zituen; horrela, halako fidagarritasuna lortu zuen, non nahi zuen leku guzietako ateak zabalik kausitzen baitzituen, eta haren zuhurtzia hain zen estimatua, non saildu bat edo aingeru bat bailitzan fidatzen baitziren berarekin. Floride, Avanturadarekin eta berarekin zuen adiskidetasunarengatik, haren bila ibiltzen zen ikusten zuen guzietan; eta ez zuen neholako zalantzarik egiten haren asmoaz: emaztekiaren jarrera librekoa zen, haren bihotzak ez baitzuen pasiorik pairatzen, ezpada bozkario handi bat gizonarekin zegoelarik; baina ez zuen bertze deus pentsatzen. Amadourrek, baina, lan handiak zituen maitaleen begiradak bertzelakoetatik bereizten dakitenen aitzinean, haien iritziak saihesteko. Izan ere, Floride aitzinez aitzin eta bakarka hitz egitera jiten zitzaielarik, ez baitzuen hark ezein xede txarren susmorik, Amadourri bihotzean gorderiko suak

---

<sup>17</sup> Noyon-eko ituna (1516), beharbada. (I. O.)

erre egiten zion, hain bortizki non gorritu egiten baitzen nahi gabe ere, eta pindarrak zerizkion begietarik. Eta, inguruan horren maiz zebilela nehor ohart ez zedin, harremanetan hasi zen Poline izeneko dama eder-eder batekin; emazteki hori bere garaian hain edertzat zeukaten, non gizon gutik egiten baitzien ihes haren amarruei. Poline horrek, Amadourrek Bartzelonan eta Perpinyan izan amodioen berri entzuna zuelarik —non gizona herrialdeko damarik eder eta plantakoenek maitatu izan baitzuten, eta, oroz gainetik, Palamóseko kondesak, Espainiako andere guzien artean ederrentzat zeukatenak—, erran zion arrunt urrikari zuela, hain zorte ona izan eta gero halako emazteki itsusiarekin ezkondua zelako. Amadourrek, ongi adituz hitz horien gibelean damak bere malurari aterabide bat eman nahi ziola, ahalik eta elerik ederrenak egin zizkion, pentsatuz gezur bat sinetsaraziz egia isilduko ziola. Baina damak, zorrotza bera eta amodio kontuetan jakitun, ez zuen aski eleekin. Hala, sentituz bere bihotza ez zuela amodio hark betetzen, beldur zen ez ote zuen gizonak estalkitzat erabili nahi, eta horregatik hurbiletik eta begietara so egiten zion beti; baina begi horiek ongi zekiten itxurak egiten, eta damak susmo ilun bat baizik ez zuen bere beldurren oinarri. Horrek, ordea, kezka handia sorrarazten zion zaldunari, zeinarengana jotzen baitzuen Floridek sarri —malezia horien guzien ezjakinean— Polineren aitzinean, halako konfiantzaz non Amadourrek lan ederrak izaten baitzituen bere begiratuak bihotza sala ez ziezaion, eta, edozein arazo galarazteagatik, egun batean, leiho baten hegian bermaturik, honela mintzatu zitzaion Florideri:

—Zer da hobe, ene laguna, hitz egitea edo hiltzea? Zure aholkua nahi nuke, otoi.

Floridek zalu ihardetsi zion:

—Nik lagunei beti aholkatuko nieke hitz egitea eta ez hiltzea, zeren hitz guti baitago zuzendu ezin denik, baina galdu den bizia ezin da berreskuratu.

—Orduan —erran zuen Amadourrek—, aginduko didazu ez zarela nahigabetuko, ezta harrituko ere erran nahi dizudanarekin, harik eta nik bururatu arte?

Floridek erantzun zion:

—Erran ezazu nahi duzuna; zeren, zuk harritzen banauzu, ez nau bertze nehork sosegatuko.

Eta Amadour honela hasi zitzaion:

—Ene anderea, orain arte ez dizut aitortu nahi izan zureganako dudan atxikimendua, bi arrazoiengatik: bata, ene zerbitzaldi luzearen bidez erakutsi nahi nizulako hura; bertzea, beldur nintzelako zuk hanpuruskeriatzat hartzea, nik, zaldun soil bat baizik ez izanik, ez dagokidan pertsona batengana jotzea. Eta zu bezala printzea banintz ere, zure bihotzaren leialtasunak ez luke onetsiko haren jabea dena —Fortuné Infantearen semea— ez bertze nehor zuri amodioaz mintzatzea. Baina, ene anderea, gerla garaian premiak behartzen du norbere ondasunak kaltetzera eta gari berdea suntsitzera, etsaiak haietaz probetxua atera dezan beldurrez, bada halaxe menturatzen naiz ni denborarekin biltzea espero dudan fruitua aitzinatzerara, zure etsaiek eta eneek ez dezaten haietarik probetxurik atera zure kaltetan. Entzun, anderea, zure zerbitzura naukazu oso gaztea zinenetik, halako moduan non ez bainaiz gelditu zure faboreak eskuratzeko bideen xerka; eta, horrexegatik bakarrik, esposatu nintzen ene ustez zuk gehien estimatzen zenuen emaztekiarekin. Eta Fortuné Infantearen semea diozun amodioaren jakitun, eginahalak egin ditut harekin maiz egon eta dakizun gisan zerbitzatzeko; eta plazer izanen dukezula uste izan dudan oro egiten entseatu naiz indar guziaz. Ikusten duzu zure amaren begikotasuna irabazi dudala, bai eta zure anaia kondearena eta estimutan duzun jende oreana, halako gisaz non etxe honetan ez bainaukate zerbitzaritzat,

ezpada semetzat; eta duela bortsu urtetik hona hartu dudan lan guzia, bizitza osoan zurekin bizi ahal izateko baizik ez da izan. Adi ezazu, ene anderea, ez naizela ni zuregandik bertutezkoak ez diren ondasun edo plazerak nahi dituzten horietarik. Ongi dakit ezin zaitudala esposatu; eta, ahal izanen banu ere, ez nuke nahiko, zure senar bihurturik ikusi nahi dudan horri diozun amodioa dela eta. Eta oso urrun da enegandik, anderea, biziozko amodio batez zu maitatzea, zerbitzaldi luze baten saritzat damen desohorea espero izaten duten horiek bezala, nahiago bainuke zu hilik ikustea maitatua izateko duintasuna galdurik eta bertutea mendraturik baino, eni horrek plazerik emanen balit ere. Ene zerbitzuagatik ez dut bertze xederik edo saririk nahi zuregandik, hauxe baizik: ene nagusi leiala izatea, eneganako begikotasuna sekula galduko ez duena, nagoen mailan mantenduko nauena, enegan fidatuz bertze neheregan baino gehiago, eta halako konfiantza izanik enegan, non, zaldun baten bizia beharko bazenu zure ohorearengatik edo dagokizun bertze edozerengatik, hor izanen baituzu enea gogo onez balia dezazun, eta, segur izan, era berean, eginen ditudan gauza prestu eta bertutetsu guziak zureganako amodioagatik soilik eginen ditudala. Eta, zu baino gutiago diren damengatik gauza estimagarriak egin baldin badituz, izan segur, zure moduko andere batengatik ene egingaiak hazi eginen direla, halako moduz non ezinezkotzat jotzen dituzkedanak ere errazak gertatuko baitzaizkit. Baina, osoki zuretako onartzen ez banauzu, deliberatua dut armak uztea eta bertuteari ere uko egitea, ene beharkizunean lagundu ez nauenez. Horregatik, anderea, otoizten dizut ene galde bidezko honi baiezkoa eman diezaiozun, zure ohoreak eta kontzientziak ezin baitidate errefusatu.

Ezohiko mintzo hura entzunik, dama gaztea kolorez mudatzen eta begiak apaltzen hasi zen, hain baitzegoen balditurik. Hala ere, zuhurra baitzen, honela erran zion:

—Horrela bada, Amadour, eta daukazuna bertzerik eskatzen ez duzunez enegandik, zer dela-eta halako mintzaldi kartsu eta luzea? Halako beldurra dut ez ote dagoen zure solas zintzo horien azpian ene gaztetetasunak berezkoa duen ezjakintasuna tronpatzen ahal duen malezia gorderen bat, non guziz nahasturik bainauzu erantzuteko. Zeren, opa didazun adiskidetasun zintzoari uko eginez gero, orain arte egin dudanaren kontrakoa eginen nuke, zutaz gehiago fidatu bainaiz munduko bertze edozein gizonez baino. Ez ene kontzientzia eta ez ene ohorea ez zaizkio nehola ere kontrajartzen zure galdeari, ezta Fortuné Infantearen semeari diodan amodioa ere; zeren amodio horren funtsa ezkontza da, eta zuk alde horretatik ez duzu deus nahi. Nik dakidala, deusek ez dit eragozten zure galdeari nahi duzun bezala erantzutea, ezpada bihotzean dudan beldur batek, eni horrela mintzatzeko dukezun arrazoi murritzean oinarritua; zeren, galdatzen duzun hori baldin badaukazu, zer dela-eta horren mintzo sutsua?

Amadourrek, prest baitzuen erantzuna, honela erran zion:

—Ene anderea, oso zuhur mintzo zara, eta ohoretzat dut enegan omen duzun konfiantza hori, hainbertze non, ez baldin banaiz horrekin kontentatzen, ez dudan bertze ezein merezi. Baina entzun, ene anderea, betirako bastiza bat eraiki nahi duenak oinarri segur eta sendoa ematen entseatu behar du: izan ere, nik, beti zure zerbitzura egon nahi nukeen honek, zuregandik hurbil egon ahal izateko bideei begiratzeaz gain, zureganako dudan atxikimendu hori estaltzen ere egin behar ditut ahaleginak; zeren, leku orotan predikatze bezain zintzoa izanik ere, egia baita maitaleen bihotzak ezagutzen ez dituenak egia ez den ondorioa ateratzen ahal duela. Eta hortik, egintzak gaiztoak balira bezalako fama txarra etorri ohi da sarri. Hau dena erranarazi didana, eta zuri aitortzera bultzatu nauena, Poline da, zeina halako susmo txarra harturik baitago nitaz, bihotzean ongi daki-eta ezin dudala bera maitatu, eta leku guzietan ene zelatan dabil. Eta, hura aitzinean dela, enekin modu pribatuan hitz egitera heltzen zarelarik, halako beldurra izaten dut nik egin keinuren bat hark bere iritzia indartzeko oinarritzat hartuko ote duen, non saihestu nahi dudan horrexetan erortzen bainaiz;

horregatik, pentsatu dut zuri galde egitea ez jiteko enegana hain tupustean, haren edo hura bezain maleziatsuak direla dakizun bertze jende batzuen aitzinean; nahiago bainuke hilik egon, edozein kreatura ohartzea baino. Eta ez balitz zure ohoreari diodan estimuagatik, ez nintzaizukeen honela mintzatuko, zorionekotzat baitut ene burua eneganako dituzun maitasun-konfiantzengatik, eta horrela jarraitzea baizik ez dizut eskatzen.

Floride, loriaz ezin kabiturik, bihotzean ohikoa ez zuen zerbait sentitzen hasi zen; eta gizonak alegatzen zizkion arrazoi zintzoak ikusirik, erran zion bertutea eta onestasuna bermetzat hartuko zituela, eta eman egin zion galdeginikoa; Amadour lorios izan zen horrekin, maite duen edonork pentsatzen ahal duen bezala. Baina Floridek aholkua gizonak nahi baino ardura handiagoz hartu zuen; zeren, Polineren aitzinean ez ezik, bertze leku guzietan ere beldur baitzen, eta gizonarekin ordura arte ohikoa zuena baino askoz gutiago elkartzen hasi zen; eta urruntze horretan, gaitzera hartzen zuen Amadour Polinerekin hain maiz egotea, emaztekoa hain ederra ikusten baitzuen, non ezin baitzuen sinetsi gizonak ez zuela maite. Eta bere tristura handia pasatzeko, Avaturaderekin egon ohi zen beti, zeina bere senarrarekin eta Polinerekin biziki jeloskortzen hasia baitzen; eta maiz kezu jiten zitzaion Florideri, eta hark ahal bezain ongi kontsolatzen zuen, izurri berak joa zegoen eta. Amadour laster jabetu zen Florideren jarrera aldaketaz, eta pentsatu zuen beregandik urruntzen bazen ez zela bere aholkuarengatik soilik, baizik eta bazelako tartean zorigaitzoko bertze zerbait nahasirik. Eta egun batean, monasterio bateko bezperetatik heldu zelarik, erran zion:

—Ene anderea, zer jarrera duzu enekin?

—Zuk nahi duzun hura, hala uste dut bederen —ihardetsi zion Floridek.

Eta berehala, zer gertatzen zen susmatuz eta egia ote zen jakiteko, erran zion:

—Ene anderea, denbora arras ongi erabili dut, eta Polinek ez du zurekiko neholako susmorik.

Floridek erantzun zion:

—Ezinen zenuke hobeki jokatu, zuhaurendako zein enetako; zeren, zure buruari atsegin emanez, ohorea egiten baitidazu.

Solas horietan, Amadourrek aditu zuen emaztekiak uste zuela berak atsegin zuela Polinerekin egotea, eta, etsiturik, ezin izan zion eutsi eta haserre erran zion:

—A!, ene anderea, agudo hasi zara zerbitzari bat oinaztatzen, eta goiz harrikatzen; ez baita enetako zigor nekagarriagorik batere maite ez dudanarekin solastatu beharra baino. Eta zure zerbitzuan egiten dudana gaitzean hartzen duzunez, ez naiz berriz harekin mintzatuko; eta gerta dadila gertatu behar duena! Eta ene sumindura bizi hau estaltzeagatik, nola egin baitut ene bozkarioarekin, hurbileko lekuren batera joanen naiz, zure fantasia pasatu bitartean. Baina espero dut han jakitea ene kapitainarengandik gerlara itzultzeko berriren bat, non hain luzaz geldituko naizen, ezen konprenituko baituzu zuk ez bertze deusek ez nauela hemen atxikitzen.

Hori erranik, eta emaztekiarengandik bertze arraposturik espero gabe, abiatu egin zen segidan. Floride nahigabeturik eta ezin tristeago gelditu zen. Eta amodioa, trabek pusaturik, hasi zen bere indar handia agertzen, halako moduz non damak, egin akatsaz ohartuz, etengabe eskribitzen baitzion Amadourri, itzul zedin otoiztuz; eta hala egin zuen hark egun gutiren buruan, zuen haserre handia apaldu zelarik.

Ez nuke jakinen xehe-mehe erraten zer-nolako solasak izan zituzten beren artean, jeloskortasun hura hausteko. Nolanahi ere, Amadourrek irabazi zuen lehia, damak agindu baitzion sekula ez zuela pentsatuko hark Poline maite zuela, eta segur egonen zela harendako martirio jasanezina zela emazteki harekin edo bertze edozeinekin solastatzea, ez baldin bazen haien zerbitzuan.

Amodioak lehen susmo hura garaitu ondoren, eta bi maitaleak elkarrekin egoteaz nehoiz baino atsegin handiagoa hartzen hasi zirelarik, jakin zen ezen Espainiako erregea bere armada guzia Salses-era<sup>18</sup> igortzekoa zela. Hala, horrelakoetan lehena izaten ohitua zen Amadourrek ez zuen huts egin, bere ohorearen bila betiere; baina egia da bazekarrela horrek bertze dolu bat, eta hartara ez zegoen usatua, bai bere plazera galtzekoa zein itzuleran aldaketak kausitzekoa, ikusten baitzuen Floridek bazituela ondotik printze handiak eta jauntxoak, eta bazituela hamabortz edo hamasei urte ordurako; pentsatu baitzuen ezen neska ezkontzen baldin bazen bera kanpoan zela, ez zuela berriz ikusteko paradarik izanen, non ez bazen Arandako kondesak Avanturade, emaztea, ematen ziola Florideri konpainiatzat. Eta hain ongi kudeatu zuen afera lagunekin, non kondesak eta alabak agindu baitzioten ezen, Floride edozein lekutara ezkontzen zela ere, harekin joanen zela Avanturade. Eta Portugalera ezkontzekoa balitz ere, hitzartua zegoela Avanturadek ez zuela nehoiz abandonatuko. Segurtasun horretan, bada, eta erranezinekoko damurik gabe ez bazen ere, partitu zen Amadour, bere emaztea kondesarekin utziz. Bere zerbitzari leiala partitu eta bakarrik gelditu zelarik, hasi zen Floride hain gauza on eta bertutetsuak egiten, non damarik beteginenaren sona erdiesteko esperantza baitzuen, eta Amadour bezalako zerbitzari bat merezi izateko fama irabaztekoa. Bartzelonara heldurik, ohi bezalako abegi ona egin zioten Amadourri hango damek; baina arrunt kanbiatua kausitu zuten, ez baitzuten sekula pentsatu ezkontza batek harengan zuen bezain eragin handirik izaten ahal zuenik gizon batengan. Izan ere, iduri zuen behiala desiratu ohi zituen gauzek nekarazi egiten zutela; eta Palamóseko kondesak berak, Amadourrek hainbertze maitatu zuenak, ez zuen modurik izan bere egoitzarat erakartzeko ere. Horrexegatik, ahalik eta denbora laburrena eman zuen Bartzelonan, beha zituen lekura heltzeko luzetsirik. Salseserat heldu zelarik hasi zen bi erregeen arteko gerla handi eta krudela, zeina ez dudan zuei kontatzeko asmorik, ez eta Amadourren egin ederrak ere, egun osoa beharko bainuke horiek guziak kontatu ahal izateko. Jakin ezazue, ordea, bere kide guziek baino fama handiagoa irabazi zuela. Naiarako dukea Perpinyàrat heldu zelarik, bi mila gizonen ardura zuela, otoiztu zion Amadourri bere lotinanta izateko, eta hark hain ongi bete zuen bere egitekoa, non borrokaldi orotan “Naiara!” oihua bertzerik ez baitzen entzuten.

Orduan gertatu zen Tuniseko erregeak, espainiarren kontrako gerla luzean zebilenak<sup>19</sup>, aditu zuela Frantziako eta Espainiako erregeak elkarren kontra gerlan ari zirela, Perpinyà eta Narbonako mugetan. Eta, pentsatuz ez zuela aukera hoberik izanen Espainiako erregea atsekabetzeko, igorri zituen ugari xebekak eta bertze ontzi batzuk, Espainiako mugaldean ongi zaindu gabe kausitzen ahal zuten oro arpilatu eta suntsitzeko. Bartzelonako jendeek, ikusiz beren aitzinean hainbat belaontzi, Salsesen zen erregeordeari gaztigatu zioten, zeinak berehala bidali zuen Naiarako dukea Palamósera<sup>20</sup>. Ikusi zutelarik mairuek lekua ongi zaindurik zegoela, aitzinera segitzeko itxura egin zuten; baina gauerdia aldera itzuli egin ziren, eta hainbertze gizon lehorreratu zuten, non Naiarako dukea, etsaiek ustekabeen harrapaturik, preso eraman baitzuten. Amadourrek, oso erne baitzegoen, harrabotsa aditu eta ahal bezainbat jende bildu zuen berehala, eta hain ongi defendatu zuen bere tokia, non etsaien indarrak ezin izan baitzion kalterik egin luzaz. Hala ere, hondarrean, jakinik

---

<sup>18</sup> Salseseko gotorlekua, Leucate-tik hurbil, Perpinyàren ipar aldean. (I. O.)

<sup>19</sup> 1503an, ontzidi morisko batek Kataluniako kostaldea suntsitu zuen; aurreko urteetan, Espainiak hainbat sarraldi eginak zituen Berberian, egungo ipar Afrikan. (I. O.)

<sup>20</sup> Bartzelonaren ipar aldean. (I. O.)

Naiarako dukea atxikia zutela, eta turkoek deliberatua zutela Palamósi su ematea, bera gotortua zen etxea errez, nahiago izan zuen errenditu berarekin ziren jende onen hondamendiaren kausa izan baino; bai eta, bahisaria ordainduz gero, esperantza zuelako oraino Floride berriz ikusteko. Horretara, Tuniseko erregearen gobernadore zen Dorlin izeneko turko bati errenditu zitzaion, eta hark bere jaunarengana eraman zuen, non oso abegi ona egin zioten eta are hobeki atxiki zuten; zeren, pentsatzen zuen bere baitan erregeak, hura atxikia izanik, Espainia guzietako Akilesea baitzeukan esku artean.

Honela, Amadourrek ia bi urte egin zituen Tuniseko erregearen zerbitzura. Atxikitze horren berriak heldu ziren Espainiarat, eta Naiarako dukearen ahaideek dolu handia egin zuten; baina herriaren ohorea maite zutenek galera handiagotzat jo zuten Amadourrena. Eta heldu zen hotsa Arandako kondesaren etxera, non, memento hartan, Avanturade larri gaixorik baitzegoen. Kondesak, zalantza handiak baitzituen Amadourrek alabarenganako zuen atxikimenduaz —nahiz eta sufritu eta disimulatu, gizonari aitortzen zizkion bertuteengatik—, deitu zion alabari bereiz eta eman zizkion berri hitsak. Floridek, berriz, bai baitzekien ongi disimulatzen, erran zion etxerako galera handia zela, eta, oroz gainetik, gaizo emaztea urrikari zuela, eta areago eri zegoela ikusirik. Baina ama negar batean ikusirik, utzi zion joaten negar xorta bati, hari konpainia egin eta, disimuluaren disimuluaz, agerian ez gelditzeagatik. Handik hara, kondesak maiz hitz egiten zion, baina ezin izan zion alabari nehoiz keinurik antzeman zer iritzi zuen hauteman ahal izateko. Ez dizuet erranen zer-nolako erromesaldi, otoitz, eskari eta baraualdi egin ohi zituen Floridek Amadourren osasunaren alde; hark, berriz, Tuniserat heldu orduko, hutsik egin gabe bidaltzen zizkien berriak bere lagunei, eta, mezulari fidagarri batez, baita Florideri jakinarazten ere osasunez eta izpirituz onik zegoela: hori izan zen gaizo damak bere atsekabeari eusteko izan zuen modu bakarra. Eta ez izan zalantzarik, eskribitzeko baimena zuenez, zalu itzultzen zion ordaina emaztekiak, halako moduz non Amadourrek ez baitzuen nehoiz falta izan haren letra eta gutunen kontsolamendua.

Eta Arandako kondesari manatu zioten Zaragozara joateko, Errege hara arribatua baitzen; eta han zen Cardonako duke gaztea, zeinak halako ahalegina egin zuen errege-erreginen aitzinean, non hauek otoiztu zioten kondesari alaba harekin ezkon zezan. Kondesak, deusetan desobeditu nahi ez zenez, onartu egin zuen, estimatuz alabak, hain gaztea izaki, ez zuela amarenaz bertze borondaterik. Akordio osoa eginikoan, erran zion alabari beretako baitezpadakoen jotzen zuen ezkongaiak hautatu ziola. Alabak, jakinik behin gauza bat egin eta gero alferrik direla aholkuak, erran zion Jainkoa laudatzen zuela guziagatik; eta, ikusirik ama hain arrotz berekiko, nahiago izan zuen obeditu, bere buruaz urrikaldu baino. Eta, hainbertze zorigaitz arintzeko, jakin zuen Fortuné Infantea eri zela, hil hurran<sup>21</sup>; baina ez zuen sekula oinazerik azaldu, ez amaren eta ez bertze nehoren aitzinean, eta hainbertze behartu zuen bere burua, non malkoek, bihotzean gorderik nahitaez, odola isurarazi baitzioten sudurretik; halako moduan, ezen bizia galtzeko perilean egon baitzen. Eta biziberritzeko, heriotzarekin trukatu zukeen harekin esposatu zen. Ezteien ondoren, Floride Cardonako dukerrira joan zen senarrarekin, eta berekin eraman zuen Avanturade, zeinari pribatuan kexatzen zitzaion, bai amak berarekiko izan zuen zorrotasunaz, bai Fortuné Infantearen semea galdu izanaz; baina Amadour zela-eta zuen atsekabeaz, Avanturade kontsolatzeko moduan soilik mintzatzen zitzaion. Dama gazte hark, bada, Jainkoaz eta ohoreaz baizik ez arduratzea deliberatu zuen, eta hain ongi disimulatu zituen bere nahigabeak, non bereetako nehor ez baitzen ohartu senarra ez zuela atsegin.

Horrela bizi izan zen Floride luzaroan, heriotza baino ezainagoa zen bizitza bat eginez, eta horren jakitun egin zuen Amadour zerbitzaria, zeinak, haren bihotz handi eta zintzoa ezaguturik, eta

---

<sup>21</sup> Zenbait itzulpenen arabera, Infantea gabe Infantearen semea da hil hurran dena. (I. O.)

Fortuné Infantearen semeari zion amodioa, pentsatu baitzuen ezinezkoa izanen zitzaiola denbora luzez bizitzea, eta hilik egon izan balitz baino gehiago sumatu zuen haren falta. Pena horrek lehendik zuena handitu zuen; eta nahi izan zuen esklabo jarraitu, bizitza osoan egon zen bezala, eta ukan zezan Floridek nahikaria beteko zion senarra, hala bere mina ahantziz eta, haren orde, bere bihotzeko damak zuena sentituz. Eta Amadourrek jakin zuen, Tuniseko erregearen gortean ezagutu lagun batengandik, erregeak deliberatua zuela bera paldoztatzea fedeari uko egiten ez bazion, bere ondoan eduki nahi baitzuen, turko on<sup>22</sup> bihurtzea erdiesten baldin bazuen. Hortaz, hainbertze egin zuen mendean zeukan nagusiaren alde, ezen nagusiak, haren hitzari fidatuz, jarrai zezan utzi baitzion, baina halako bahisaria ezarri zion, non ere ez baitzuen nehola ere uste horren ondasun gutiko gizonak hainbertze eskuratzen ahal izanen zuenik. Eta horrela nagusiak, erregearekin ere hitz egin gabe, fidatu eta joaten utzi zion. Amadourrek, Espainiako erregearen gortera heldurik, agudo alde egin zuen, lagunaren artean bahisaria osatzera; Bartzelonara joan zen zuzenean, eta han ziren Cardonako duke gaztea, haren ama eta Floride, aferaren bat zela kausa etorriak. Haren emazte Avanturadek, senarra itzulia zela aditu orduko, Florideri erran zion, zeinak berari zion maitasunagatik pozten zelako alegia egin baitzuen. Baina hura ikusteak ematen zion pozak begitartea mudaraziko zion beldur, eta ezagutzen ez zutenek ez zezaten iritzi okerrik egin, leiho ertz batean gelditu zen, urrunetik ikusteagatik nola heldu zen. Eta begiztatu zuen orduko, oso eskailera ilun batetik jaitsi zen, nehork ez zezan antzeman kolorez mudatzen baldin bazen; eta horrela, Amadour besarkatu eta bere ganberara eraman zuen, eta handik amaginarrebarengana, zeinak ez baitzuen ezagutzen. Etxe hartan bi egun baino egin ez bazituen ere, Arandako kondesarenean bezainbat maita zezaten erdietsi zuen.

Zuen kontu utziko dut Floridek eta hark elkarrekin izan zituzketen solasez pentsatzea, eta zer-nolako kexuak entzunen zituen Amadourrek damarengandik, gizona kanpoan izan zen bitartean pairatu zituen makurrengatik. Hainbat malko isuri ondoren zuen atsekabeagatik, bai gogoz kontra ezkonarazi zutelako, bai hainbertze maite zuena galdu eta berriz ikusteko esperantzarik ez zuelako, Floridek deliberatu zuen kontsolamendua hartzea Amadourrengan zituen amodio-segurtasunetan, hari halakorik aitortzen ausartzen ez bazen ere; baina gizonak, oharturik, ez zuen ez aukerarik ez denborarik galtzen zion amodio handia erakusteko. Floride ia erabat gogotua zelarik Amadour hartzeko, ez zerbitzaritzat, baizik eta benetako adiskidetzat, zorigaiztoak jo zituen; izan ere, Erregek Amadourri dei egin zion, garrantziko afera bat zela-eta harengana joan zedin berehala; horrek nahigabe handia ekarri zion emazteari, eta, berriak entzunik, zorabiatu egin zen, zegoen eskailera mailatik erori eta, hain larriki kolpatu zen, non ez baitzen berriz altxatu. Floridek, zeinak heriotza haren ondorioz kontsolamendu guzia galdu baitzuen, ahaide eta lagunez gabeturik sentitzen denaren moduko dolua egin zuen. Baina are okerrago hartu zuen Amadourrek; zeren, alde batetik, nehoiz izan zen emaztekirik onenatarik bat galtzen baitzuen, eta bertzetik, baita nehoiz Floride berriz ikusteko aukera ere; eta halako moduan goibeldu zen, non han berean hil behar zuela iduri baitzitzaion. Cardonako dukesa zaharrak etengabe bisitatzen zuen, filosofoen arrazoiak alegatuz herio hura pazientziaz eraman zezan. Baina oro alferrik zen; izan ere, batetik heriotzak oinaztatzen bazuen, bertzetik amodioak areagotzen zuen martirioa. Ikusiz emaztea lurpean zela eta bere nagusiak dei egiten ziola, eta ez zuela han denbora gehiago gelditzeko modurik, halako etsipena jabetu zen Amadourren bihotzaz, non burua galtzear egon baitzen. Floridek, ustez kontsolatzen zuelakoan haren desolazioa zenak, arrastiri oso bat eman zuen ahal zituen elerik ederrenak eginez gizonari, haren damuaren handia albait hobekien leuntzeagatik, eta segurtatuz bilatuko zituela berak moduak gizonak uste baino maizago elkar ikusteko. Eta, goizean partitzekoa zenez eta hain ahul zegoenez, non ezin baitzen ohetik mugitu, galde egin zion andeari arratsean jin zedin bera ikustera, jende orok alde egin eta gero; emaztekiak hala eginen zuela agindu zion, ohartu gabe

---

<sup>22</sup> Musulman ona. (I. O.)

amodio muturrekoak ez duela arrazoirik. Gizonak, anderea hain luzaroan zerbitzatu eta nehoiz harengandik entzun duzuenaz bertzelako tratamendurik ukan ez zuenak, erabat etsiturik ez zuela nehoiz errezibitu ahal izanen, eta amodio gordeak eta harekin egoteko bide guziak zerraturik ikusteak sortzen zion etsipenak joa, kito edo doble eginez jokatzeari deliberatu zuen —osoki galdu edo osoki irabazteko—, eta bere buruari oren batean kitatzea merezi zuela uste zuen ongia. Ohatzeari erridauez ingurarazi zuen, ganberara zetozenek ezin zezaten ikus, eta ohi baino askoz gehiago kexatzen hasi zen, halako moduan non etxeko orok pentsatzen baitzuen ez zuela hogeita lau ordu iraunen.

Jende orok bisita egin ondoren, arratsean, Floride joan zitzaion, senarrak berak eskaturik eta gizona kontsolatzeagatik, zion atxikimendua aitortzera eta, ohoreak haizu uzten zion neurrian, bai amodioa ere. Eta oheburuan zegoen kadira batean eseri, eta kontsolatzeari ekin zion harekin batera negar eginez. Amadourrek, emaztekoa halako damuaz beterik ikusiz, pentsatu zuen hain oinaze handian aiseago beteko zuela berak bere asmoa, eta altxatu egin zen ohatzetik; Floridek, pentsatuz oso ahul zegoela, galarazi egin nahi izan zion. Amadourrek, Florideren aitzinean belauniko jarritz, erran zion:

—Betiko galdu behar ote zaitut?

Eta bere burua haren besoetan erortzen utzi zuen, indarrak huts egin dion gizon batek nola. Gaizo Floridek besarkatu egin zuen eta luzaz eutsi zion, ahal zuen oro eginez kontsolatzeko; baina oinazea arintzeko eskaintzen zion erremedioak hura azkartu bertzerik ez zuen egiten; horrela, entseatu zen, erdi hilik zegoelakoa eginez eta hitz egiteke, dama baten ohoreak defendatzen duena bilatzen. Floridek, gizonaren asmo txarraz ohartu zelarik, ezin zuen sinetsi, beti egin izan baitzizkion ele onestak, eta galdegin zion ea zer nahi zuen; baina Amadourrek, haren arrapostuaren beldur, bai baitzekien onest eta garbia baizik ezin zela izan, jarraitu egin zuen nahi zuenaren gibeletik, deus erran gabe eta ahal zuen indar guziaz. Orduan, Floridek, harri eta zur, nahiago izan zuen pentsatu gizonak zentzua galdua zuela, beraren laidoarekin xerka zebilela baino. Horrela, ganberan zegoela bazekien gizon bat deitu zuen goraki; orduan, Amadour, arras etsiturik, ohatzean etzan zen berriz, hain tupustean non gizonak uste izan baitzuen hilik zela. Floridek, bere kadiratik altxatua ordurako, erran zion:

—Hoa, eta ekarri agudo ozpin on bat.

Eta hori egin zuen gizonak. Floride berehala hasi zen:

—Amadour, zer erokeriak lausotu dizu burua? Eta zer pentsatu eta egin nahi izan duzu?

Amadourrek, zeinari amodioaren indarrak galarazia baitzion zentzu guziaz, erran zion:

—Halako ordain krudela merezi ote du hain zerbitzaldi luzeak?

—Eta non da hainbat aldiz predikatu izan didazun ohorea? —erran zuen Floridek.

—A!, ene anderea —erran zuen Amadourrek—, ezinezkoa da zure ohorea nik estimatzen dudana baino gehiago estimatzea, zeren, zu ezkondu aitzin, ongi jakin baitut ene bihotza bentzutzen, eta zuk ez duzu jakin ene asmoa zein zen; baina orain, ezkondua zaudela, eta zure ohorea salbu dagokeela, zer makur egiten dizut enea dena galdeginik? Izan ere, ongi irabazi zaitut amodioaren indarrez, eta zure bihotza ukaiten lehena izan dena hain trakets jazarri zaio gorputzari, non dena batera galtzea merezi izan baitu. Zure gorputzaren jabe denak ez du zure bihotza merezi, zeren eta gorputza bera

ere ez baitu berea. Baina, nik, anderea, zuregatik hainbat atsekabe eta oinaze pairatu ditut borzpasei urtez, non ezin baituzu orain ahantzi eneak ditudala gorputza zein bihotza, zeinarengatik nihaurena ere ahantzi egin baitut. Eta zure burua kontzientziaz defendatu nahi baduzu, ez izan dudarik ezen, amodioaren indarrak gorputz-bihotzak behartzen dituelarik, ez dela sekula bekatutzat jotzen. Suminak jorik beren burua hiltzeko gai direnek ezin dute bekatu egin, egiten dutena egiten dutela; pasioak ez baitio lekurik uzten arrazoiari. Eta amodio grina bertze guzien artean jasangaitzena eta zentzumen guziak itsutzen dituen baldin bada, zer bekatu egotzi behar diozu ahalmen garaiezin baten indarpean jokatzeko duenari? Ni banoa, eta ez dut nehoiz zu berriz ikustea espero. Baina, partitu aitzin izanen banu zuregandik ene amodioaren handiak merezi duen segurtasuna, izanen nuke indar aski pazientziaz buru egiteko absentzia luze honen atsekabeei. Eta ene galde honi baiezkoa emateko plazerik ez baduzu, laster erran ahal izanen duzu heriotza zorigaitzoko eta krudela eman didala zure zorrotasunak.

Floridek, estonaturik bezain atsekabeturik, halakorik susmatzeko arrazoirik sekula izan ez zuen harengandik ele horiek adituz, erran zion, negarrez:

—Ondikoz!, Amadour, horiek al dira ene gazte denboran egiten zenizkidan ele bertutetsuak? Horiek ote dira hainbatetan aholkatu dizkidazun ohorea eta kontzientzia, zeinengatik hobe baita hiltzea arima galtzea baino? Ahantzi egin ote dituzu eman izan dizkidazun andere bertutetsuen etsenpluak —amodioaren eromenari gogor egin diotenenak—, eta emazteki zoroenganako beti izan duzun mespretxua? Ezin dut sinetsi, Amadour, zure buruarengandik hain urrun zaudenik, non Jainkoa, zure kontzientzia eta ene ohorea hilik baitaude zure baitan. Baina, diozun bezala baldin bada, laudatu beharrean nago Jainkoaren ontasuna, orain berean erortzear nengoen zorigaitza saihestu baitit, zure mintzoaz erakutsiz hain ezezagun nuen bihotz hori. Izan ere, Fortuné Infantearen semea galdu dut, eta ez bakarrik bertze norabait ezkondua naizelako, baizik badakidalako berak bertze bat maite duela, eta, ikusirik ene burua (ahaleginduagatik) maite ezin dudan eta atsegin ez zaidan batekin esposatua, deliberatua nintzen ene bihotza eta atxikipenak oro zuri ematera osoki, adiskidetasun hori ikasi dizudan bertutean oinarrituz, zeina, zure bitartez, erdietsi dudala uste baitut: hau da, ene ohorea eta kontzientzia ene bizia baino gehiago maitatzea. Onestasan harri honen gainean, bada, jin naiz hona, hemen guziz oinarri segura hartzera deliberatua; baina memento batean, Amadour, erakutsi didazu, harri garbi eta xahu bat izan ordez, bastiza honen oinarria harea mehez eta lokatz zikinez eratua litzatekeela. Jadanik hasia nintzen betiko egoitza izatea espero nuen bizilekuaren parte handi bat eraikitzen, baina tupustean errekaratu egin duzu guziz. Desterratzen hasi beharko duzu enekiko nehoiz izan dukezun peskiza oro, eta ezinen duzu, nagoen lekuan nagoela, ene bila ibili, ez hitzez eta ez buruz buru, eta ez izan esperantzarik nehoiz aburuz aldatu ahal edo nahi izanen dudarik. Ezin damu handiagoz erraten dizut, Amadour; zurekiko adiskidetasun osoa zin egitera heldu izan banintz ere, argi sentitzen dut orain bihotzean finitua litzatekeela elkarretaratze honetan; hain da handia ene burua honela tronpaturik ikusteak sortzen didan harridura, non segur bainaiz ene bizitza edo laburra edo oinazetsua izanen dela. Eta honekin erraten dizut adio, eta betiko!

Ez natzaizue nehola ere hasiko orain erraten zer-nolako mina sentitu zuen Amadourrek solas horiek entzunik; izan ere, deskribaezina ez ezik, pentsaezina da, non eta ez den horrelako zerbait sentitu duenarendako. Eta ikusiz dama bazihoala ondorio krudel horrekin, besotik heldu eta geldiarazi egin zuen, ongi baitzekien betiko galdua zuela ez baldin bazuen lortzen harengan sortu iritzi txarra ezeztatzea. Horrela, ahal zuen hobekien disimulatuz, erran zion:

—Ene anderea, bizitza osoan emazteki on bat maitatu nahi izan dut; eta hain guti kausitu ditut halakoak, non zurekin proba egin nahi izan baitut, ikusteagatik ba ote zinen, zure bertuteagatik, estimatua bezain maitatua izateko duin. Orain ongi dakit baietz, eta Jainkoa gorai patzen dut

horregatik, berak gidatzen baitu ene bihotza halako betegintzarrea maitatzera; galdegiten dizut, otoi, ene egitate zoro eta ausart hau barkatzea, ikusten baituzu finean zure ohorearen eta ene atseginaren onerako izan dela.

Floride, zeina haren bidez hasia baitzen gizonen malezia ezagutzen, gaiztakeria zegoen lekuan ikusteko izan zituen zailtasunen antzekoak, eta are handiagoak, zituen orain ongia ez zegoen lekuan ikusteko, eta erran zion:

—Jainkoak nahi dezala zuk errana egia izatea! Baina, ezkondua izanik, ez naiz horren tuntuna, ez ikusteko argi eta garbi pasio bizi eta itsu batek eraman zaituela egin duzuna egitera. Zeren eta, segur naiz, Jainkoak eskua laxatu izan balit zuk ez zeniokeen bridari eutsiko. Bertutea bilatzen entseatzen direnek ez dute hartu ohi zuk hartu duzun bidea. Baina aski da: zuregan zerbait ona bazela uste izateko arinegi jokatu baldin badut, tenorea da orain zure eskuetatik askatzen nauen egia jakiteko.

Eta hori erranik, Floride ganberatik joan zen, eta gau osoan negar bertzerik ez zuen egin, halako samina sentituz aldakuntza hartan, non haren bihotzak lanak baitzituen amodioak eragiten zizkion damu oldarrei buru egiteko. Izan ere, nahiz eta arrazoiaren arabera deliberatua zen gizon hura sekula ez maitatzera, bihotza, zeina ez dagoen nehola ere gure mende, ez zen akort: ezin zuenez ohi baino gutiago maite, eta jakinik amodioa zela hutsegite horren kausa, deliberatu zuen, amodioa kontentatuz, bere bihotz guziaz maitatzea, eta, ohoreari men eginez, nehoiz ez adieraztea deus ez berari eta ez bertze nehori.

Goizean partitu zen Amadour, entzun duzuen bezain haserre; halarik ere, haren bihotza hain zen handia, non ez baitzen munduan parekorik, eta ez zen etsipenean erori, eta modu berriak asmatzen hasi zen Floride berriz ikusi eta haren faborea erdietsi ahal izateko. Beraz, Espainiako erregearengana Toledora zihoala, Arandako konderrian barnako bidea hartu zuen; arrats batez, oso berant, heldu zen hara, eta oso eri kausitu zuen kondesa, alaba Florideren absentsiak sortzen zion tristeziaz. Amadour ikusi zuelarik, musu eman zion eta semea balu bezala besarkatu zuen, bai berak zion maitasunagatik, bai gizon hark Florideri bide zionagatik, zeinaz berriak xehe ematea galdegin zion; gizonak ahalik ongiena eman zizkion, baina ez zion egia osoa erran; eta aitortu zion bien arteko adiskidetasuna, Floridek beti gordean izan zuena, otoiztuz lagundu zezan haren berriak maiz izaten eta dama Arandara etorraz zezan lehenbailehen. Eta goizean goiz partitu zen; eta Erregerekin zituen aferak konpondu ondoren, gerlara joan zen, hain triste eta alde oroz mudatua, non damek, kapitainak eta berarekin ibili ohi ziren bertze guziek ez baitzuten ezagutu ere egiten; eta beltzez baizik ez zen beztitzen, emaztearen dolurako behar zena baino artilezko oihal askoz ere lodiago batez, dolu harekin estaliz bihotzean zuena. Eta horrela eman zituen Amadourrek hiruzpalau urte, gorterat itzuli gabe. Eta Arandako kondesak, entzunik Floride aldatu zegoela eta urrikalmendua ematen zuela ikusteak, haren bila bidali zuen norbait, berarengana itzuliko zelakoan. Baina kontrakoa gertatu zen; izan ere, Floride, jakin zuelarik Amadourrek amari eman ziola beren adiskidetasunaren berri, eta amak, hain zuhur eta bertutetsu, Amadourrengan fidatuz, ontzat eman zuela, nahasmendu zoragarri batek hartu zuen, zeren, alde batetik, ikusirik amak nola estimatzen zuen Amadour, egia erraten baldin bazion Amadourren kalterako izan zitekeen —eta hori ez zuen nehola ere nahi, bere burua askitzat baitzuen gizonaren erokeria zigortzeko, ahaideei laguntzarik galdegin gabe—; bertze alde batetik, ikusten zuen ezen, berak zekiena isilean gordetzen bazuen, amak eta lagun guziek behartuko zutela gizonarekin hitz egitera eta begitarte onez hartzera, eta horrela beldur zen ez ote ziren indartuko gizonaren asmo txarrak. Baina, ikusiz urrun zegoela, ez zuen itxura handirik egin, eta eskribitu egiten zion kondesak agintzen ziolarik; alabaina, Amadourrek ongi ezagutzen ahal zuen gutun horiek gehiago zirela aginduz eginak borondate onez eskribituak

baino; eta horiek irakurtzeak ematen zion nahigabea lehenbizikoek eman ohi zioten bozkarioaren parekoa zen.

Bizpahiru urteren buruan, Espainiako paper guzia erabiliz biltzerik ez legokeen moduko hainbat gauza eder egin ondoren, oso asmakizun handia irudikatu zuen, ez Florideren bihotza irabazteko, hura galdutzat baitzeukan, ezpada bere etsai bilakatua zen hura bentzutzeko. Alde batera utzi zuen arrazoiaren aholku oro, eta orobat heriotzaren beldurra, halako arriskua hartzera baitzihoan; eta hala egitea deliberatu zuen. Eta hain abil jokatu zuen gobernadore handiaren ondoan, non lortu baitzuen Erregerengana hitz egitera mandatari bidal zezaten Leucate<sup>23</sup> inguruan gauzatzen ari zen afera sekreturen batez; eta erdietsi zuen, halaber, bere egingai hartaz Arandako kondesarengana aholku bila joateko mandatua, Erregerengana jo aitzin. Eta hala joan zen zuzenean Arandako konderrira, non bai baitzekien Floride zegoela, eta lagun bat igorri zuen isil-gordean kondesarengana bere etorreraren berri ematera, otoiztuz sekretuan gorde zezan eta berarekin gauzez mintzatzeko moduak egin zitzaizkion, nehork jakin gabe. Kondesak, pozaren pozez hura heldu zelako, Florideri erran zion eta erantzera bidali zuen senarraren ganberara, jiteko agin ziezaionerako prest egon zedin, jendeak oro erretiraturikoan. Floridek, zeina ez baitzen oraino bere onera itzulia bere lehen beldur hartatik, ez zion deus erran amari, baina kaperera batera joan zen Gure Jainkoari gomendatzera, eta arren egin zion bere bihotza begira zezan sentimendu gaizto orotatik, oroitzuz Amadourrek maiz laudatua ziola bere edertasuna, zeina ez zegoen batere mendratua, luzaz eri egonagatik; eta horrela, bere begitartea kaltetzea nahiago izan zuen edertasunez gutituz, harengatik gizon onest baten bihotza hain su gaiztoz erretzen pairatu beharra baino, eta, kaperan zegoen harri bat hartuz, halako kolpe handia eman zion bere bisaiari, non ahoa, sudurra eta begiak guziz desitxuraturik gelditu baitzen. Eta, nehork susmo txarrik ukan ez zezan egin zuenaz, kondesak dei egin ziolarik bere burua erortzen utzi zuen kaperatik ateratzean, aurpegiaz lurra joz eta goraki oihu eginez. Heldu zen kondesa, eta, egoera urrikalgarri hartan kausitu zuelarik, berehala goxatu eta lotu zizkioten zauriak.

Gero, kondesak bere ganberara eraman zuen, eta erran zion arren galdegiten ziola gelara joan eta Amadourrekin solasta zedin, bera lagunarte guziaz libratu artean; eta hori egin zuen Floridek, pentsatuz gizonarekin bertze batzuk ere izanen zirela. Baina, bere burua bakarrik kausitu zuelarik, eta atea hetsirik bere gibeletik, Amadour kontent bezain kezkatu sentitu zen bera, pentsatuz amodioz edo indarrez erdietsiko zuela gizonak hainbertze desiratzen zuena. Eta hark, emaztekiarekin mintzatu ondoren, eta ikusiz utzia zuen ber moduan zegoela eta hilik ere ez zuela iritiz aldatuko, erran zion, etsipenez gaitziturik:

—Jainkoagatik!, Floride, ene lanaren fruitua ez didate nehola ere kenduko zure eskupuluek; izan ere, amodioak, pazientziak eta otoitz umilak deus ere balio ez dutenez, ez dut ene indarra gupidetsiko bertzela galduko nukeen onura eskuratzeko.

Eta ikusi zituelarik Floridek hain minduak gizonaren bisaia eta begiak, non munduko larruazalik ederrena sua bezain gori ageri baitzen, eta behakorik goxo eta atseginena hain izugarri eta sumindu, bihotzean eta begitartean izarniatzen zuen su biziki kiskalgarri bat iduri zitzaion; eta sumindura hartan, gizonak bere esku azkar eta ahaltsu batekin hartu zituen Florideren esku delikatu eta ahul biak. Baina Floridek, ikusiz defentsa orok huts egingen ziola, eta, oinak zein eskuak gatibu izaki, ez zuela ihes egiteko modurik, eta are gutiago bere burua babesteko, ez zuen erremedio hoberik kausitu ezpada bilatzea ea gizonarengan ba ote zen oraino lehen amodio haren errorik batere, zeinaren ohoretan uzten ahal zuen alde batera bere krudeltasuna; hortaz, erran zion:

---

<sup>23</sup> Salsesetik hurbil. (I. O.)

—Amadour, orain etsaitzat baldin banauzu, arren eskatzen dizut, behiala zure bihotzean izan bide zenidan amodioagatik, entzun nazazun tormentatu baino lehen!

Eta ikusi zuelarik hark belarria luzatu ziola, hitz egiten jarraitu zuen, erranez:

—Damurik!, Amadour, zerk bultzatzen zaitu poztasunik ukan ezin duzun zerbaiten xerka, eni errezi bitzen ahal dudan nahigaberik handiena emanek? Hain ongi jakin duzu ene borondatearen berri, ene gaztarotik eta ene edertasun handienaren garaitik —zeinetan zure pasioak izaten ahal zuen desenkusarik—, non harritzen bainaiz orain, dudan adinarekin eta itsustasun honekin, eta atsekabe handienaz gaitzitua nagoela, kausitu ezin duzula dakizunaren xerka zabiltzala ikusirik. Segur naiz ez duzula batere dudarik ene borondatea ez dela aldatu; eta, beraz, indarrez baizik ezin duzu erdietsi galdegiten duzuna. Eta, miratzen baduzu zein irrigarri dagoen ene bisaia, eta hor ikusi izan duzun edertasuna ahanzten, ez duzu gehiago hurbiltzeko gogorik izanen. Eta gelditzen bazaizu oraino behialako amodioaren erlikiaren bat, ezinezkoa da urrikalmendua ez nagusitzea zure sumindurari. Hainbertzetan erakutsi izan didazun urrikalmendu horren aitzinean, ene pleinua pausatu eta grazia eskatzen dizut, bakean eta zure aholkuari jarraikiz begiratzeraz deliberatu naizen onestasunean bizitzen utz nazazun. Eta izan didazun amodioa gorroto bihurtu baldin bazaizu, eta, atxikimenduz baino gehiago mendekuz, munduko emaztekirik dohakabeena egin nahi banauzu, segurtatzen dizut ez dela horrela izanen, ene burua behartuko baituzu, gogoz kontra bada ere, zure nahikari gaizto horren berri ematera zutaz hain iritzi ona duenari; eta ongi dakizu, hark hori jakinik, zure bizitza ez litzatekeela segur izanen.

Amadourrek, solasa eten eta erran zion:

—Hil behar badut, ene tormentutik libratuko naiz lehenago; baina zure bisaiaren itxuragabeak, ene iduriko zure nahitara eginga denak, ez dit nehola ere galaraziko ene nahia betetzea; zeren, zuregandik hezurak baino lortu ezin izanen banitu ere, ene ondoan nahi nituzke.

Floridek, ohartu zelarik otoitzek, arrazoiak eta malkoek ez zutela deus balio, eta gizonak bere desira gaiztoan jarraitzen zuela hain modu krudelean, non berak ez baitzuen indarririk hari gogor egiteko, bere bizitza galtzeak bezainbateko beldurra ematen zion sokorriaren bila jo zuen, eta, boz triste eta urrikalgarri batez, amari dei egin zion, ahalik eta gorakienik. Ama, alabak halako ahots batez deitzen zuela entzutean, beldur izugarri batek hartu zuen egiaz gertatzen ari zenaz, eta ahalik eta lasterrena joan zen jantzilekura. Amadourrek, ez baitzegoen erraten zuen bezain prest hiltzeko, hain zalu utzi zion egiten ari zenari, non damak ate ondoan kausitu baitzuen gelara sartzerakoan, eta Floride aski urrun handik. Kondesak galdetu zion:

—Amadour, zer dugu? Erran egia.

Eta, beti zerbait asmatzeko gai den batek nola, honela ihardetsi zion hark, begitarte zuhail eta dardarti batez:

—Ondikoz!, ene anderea, zer bilakatua da Floride anderea? Ez naiz sekula orain bezain estonaturik egon; izan ere, erran dizudan bezala, uste nuen banuela haren begikotasunetik zerbait; baina ongi dakit jadanik ez dudala deus. Iduri zait, ene anderea, zurekin hazten ari zen tenorean orain den bezain zuhur eta bertutetsua zela; baina ez zuen eragozpenik orduan edonorekin egon edo mintzatzeko; baina orain, begiratu nahi izan dudalarik, ez du jasan nahi izan. Eta begitarte hori ikusirik, pentsatuz amets edo ilusio bat zela, eskua galdegin diot ohi bezala muin emateko, eta ez dit nehola ere onartu. Egia da, ene anderea, gaizki jokatu dudala, eta barkamena eskatzen dizut horregatik: eskua ia indarrez hartu eta eman baitiot musu, bertzelako atsegini galdegin gabe; baina

berak, zeinak, ene ustez, ene heriotza nahi baitu, ikusi duzun bezala deitu zaitu. Ez nuke jakinen erraten zergatik, ez baldin bada beldur izan dela ene asmoa izan ez dena zatekeela. Hala ere, anderea, zernahi delarik ere, aitortzen dizut hobena enea dela; zeren, berak zure zerbitzari on guziak maitatu behar lituzkeen arren, fortunaren nahia baita nihaur izatea, atxikiena zaion hau, hain zuzen ere, haren begikotasunetik at gelditu den bakarra. Zuri eta berari buruz orain arte bezala geldituko banaiz, arren galdegiten dizut zure begikotasuna gorde diezadazun, berarena galdu egin baitut nik merezi gabe.

Kondesak, zeinak alde batetik sinesten zion baina bertzetik duda egiten zuen, alabarengana jo eta erran zion:

—Zergatik deitu naun horren goraki?

Floridek ihardetsi zion beldur zela. Eta kondesak hainbat xehetasunez galdekatu bazuen ere, ez zuen bertze arraposturik ukan; izan ere, etsaiaren eskuetatik ihes egin zuela ikusirik, haren asmoak porrokatu izanari aski zigor iritzi zion.

Kondesak, Amadourrekin luzaz solastatu ondoren, utzi zion oraino Floriderekin mintzatzen beraren aitzinean, zer jokaera zuen ikusteko; gizonak ez zion gauza handirik erran, ezpada eskertzen ziola egia erran ez izana amari, eta arren galdegin zion ezen, bera haren bihotzetik at zegoenez, ez zezala bederen bertze nehork har beraren lekua. Lehen eleez bezainbatean, honako hau ihardetsi zion Floridek:

—Ene burua defendatzeko ahotsaz bertze modurik ukan banu, ez zatekeen sekula entzuen; eta, ene aldetik, ez duzu makurragorik izanen, egin duzun bezala behartzen ez baldin banauzu. Eta ez izan beldurrik bertze nehor maitatzeko gai izanen naizenik; izan ere, desira nuen ongia kausitu ez dudanez munduko bihotzik bertutetsuentzat nuenarengan, ez dut nehola ere espero ezein gizonarengan kausitzerik. Malur honek libratuko nau, etorkizunean, amodioak ematen ahal dituen pasioetatik.

Eta hori erranik, erran zion adio amari. Amak, haren begitarteari erne baitzegoen, ezin izan zuen iritzi garbirik atera, ezpada ordudanik arras ongi jakin zuela ez zuela Amadourrenganako neholako atxikimendurik, eta segurtzat eman zuen bere alaba maite zituen gauza guziak gorrotatzeko bezain zentzugabea zela. Eta handik harat halako gatazka bitxia izan zen bien artean, non amak ez baitzion alabari zazpi urtez hitzik egin, koleran ez bazen, eta hori dena Amadourrek galdeginik. Denbora horretan, Floridek senarrarekin egoteak sortzen zion beldurra beti harekin egoteko nahi bihurtu zuen, amak zion zorrotasuna zela kausa. Baina ikusiz ez ziola deusetarako balio, Amadour tronpatzea deliberatu zuen; eta, alde batera utziz egun batez edo biz bere begitarte arrotza, aholkatu zion adiskidetasunezko solasak ukaiteko emazteki batekin, zeinak Amadourrekin ukan zuen amodioaz hitz egin omen zion. Dama hori Espainiako erreginarekin bizi zen, eta Lorette zuen izena. Amadourrek sinetsi egin zion, eta, pentsatuz modu horretan bazuela oraindik haren begikotasuna berriz eskuratzea, gortea egin zion Loretteri, zeina kapitain baten emaztea baitzen, Espainiako erregearen gobernadore handietariko batena. Lorettek, biziki pozik halako maitatzaile bat lortu zuelako, hainbertze adierazi zuen bere poza, non leku guzietara hedatu baitzen zurrumurrua; eta Arandako kondesak berak —gortean zela— jakin zuen; eta harrezkero ez zuen jarraitu Floride ohi bezala tormentatzen. Egun batean, Floridek entzun zuen Loretteren senarra zen kapitain hura jelsiaz leher egina zela, halako gisaz non deliberatua baitzen Amadour nola edo hala hiltzera; eta berak, bere bisaia itxurati hura gorabehera ez baitzion Amadourri neholako makurrik desira, gaztigatu egin zion berehala. Baina gizonak, lehengo lepotik burua aise, ihardetsi zion ez zela

Loretterekin sekula berriz egonen, egunero hiru ordu berari eskaintzeko plazer egiten bazion; baina Floride ez zen akort izan horrekin.

—Orduan —erran zion Amadourrek—, biziarazi nahi ez nauzunez, zergatik ez nauzu hiltzen utzi nahi? Non eta ez den espero duzula gehiago tormentatuko nauzula bizirik egonik hamaika heriok tormentatuko ninduketena baino. Baina, heriotzak ihes egiten badit ere, hainbertze entseatuko naiz haren xerka, non kausitu egingen baitut; egun horretan baizik ez dut izanen nik pausua, izan ere.

Horretan ari zirela, berriak heldu ziren ezen Granadako erregeak gerla handia piztua zuela Espainiako erregearen kontra, eta Erregek bere seme printzea igorri zuela hara, eta harekin batera Gaztelako kondestablea eta Albako dukea, bi jaun adineko eta zuhur. Cardonako dukeak eta Arandako kondeak ez zuten gibelean gelditu nahi, eta arduraren bat emateko galdegin zioten Erregeri; hori egin zuen hark haien etxeen arabera, eta Amadourren esku utzi zituen segurtasunez gida zitzan; hark, gerlak iraun zuen bitartean, hain egintza bitxiak egin zituen, non ausartziak eraginak bezainbat baitziruditen etsimenduzkoak. Eta, ene kontakizun honen xedera etorririk, erranen dizuet haren ausardia handia heriotzaren probalekuan ikusi zela; zeren, mairuek, borrokarako prest agertuagatik, girstinoen armada handia ikustean, ihesi zihoazelako alegia egin baitzuten. Espainiarrak jazarri egin zitzaizkien; baina kondestable zaharrak eta Albako dukeak, mairuen amarruaz mesfidati, Espainiako printzea atxiki egin zuten gogoz kontra, ibaia trebesa ez zezan; baina hori bera egin zuten, debekaturik egonagatik, Arandako kondeak eta Cardonako dukeak. Mairuak, ikusi zutelarik haien gibeletik oso jende guti heldu zela, itzuli egin ziren, eta zimitarra kolpe batez Cardonako dukea hil zuten, eta Arandako dukea hain larriki zaurturik gelditu zen, non hilik balego bezala utzi baitzuten han berean. Heldu zen Amadour porrotaren gunera, errabiak joa eta hain sumindurik, non, jende oste osoa deseginik, bi gorpuak altxarazi eta printzearen kanpamendurat eramana arazi baitzituen, non hark haurrideak balitu bezalako damuz hartu zituen. Baina, haien zauriak aztertzean, ohartu ziren Arandako kondea bizirik zela oraino, eta anda batzuetan bidali zuten etxera, non luzaz egon baitzen eri. Bertze aldetik, hilaren gorputza Cardonara bidali zuten. Amadourrek ez zuen bere burua asko zaindu bi gorputz haiek ateratzeko ahalegina egitean, eta mairu aldra handi batek inguratuta kausitu zen; eta ez zuenez nahi harrapa zezaten ere, berak emazteki hura harrapatzen jakin ez zuen bezala, ez eta Jainkoarengan zuen fedea hautsi harenganako hautsi zuen moduan, eta jakinik Granadako erregearengana eramaten baldin bazuten krudelki hilen zutela edo girstinotasunari uko egin beharko ziola, deliberatu zuen ez ematea etsaiei bere harrapaketa edo bere heriotzaren ospea; eta, ezpataren gurutzea musukatuz, gorputz-arimak Jainkoaren esku utzi, eta eman zion bere buruari halako ezpatakada, ezen ez baitzuen sokorriren beharrik izan. Horrela hil zen gaizo Amadour, eta zituen bertuteek merezi zuten bezain dolutua izan zen. Berriok Espainia osora hedatu ziren, hainbertze, ezen Bartzelonan zen Floridek —non behiala haren senarrak ehorts zezaten agindua zuen—, entzun baitzuen zurrumurrua. Proguak ohore handiz egin zizkion, eta gero, amari eta amaginarrebari deus erran gabe, Jesusen monasteriora joan zen serora, senar eta adiskidetzat hartuz Amadourrena bezalako amodio suharras eta senarrarena bezalako konpainia unagarriaz libratu zuen Hura. Horrela, bere atxikimendu oro Jainkoa osoki maitatzera bideratu zuen, eta, serora bizi luzearen ondoren, Haren esku utzi zuen bere arima, emazteak senarra ikustera doalarik izan ohi duen bezalako loriaz.

«Arras ongi dakit, ene andereok, nobela luze hau nekagarri suerta dakiokela baten bati; baina kontatu zidana kontentatu nahi izan banu, anitzez ere luzeagoa zatekeen. Arran galdegiten dizuet, Florideren bertutea etsenplutzat hartuz, ez zaitetzela hura bezain krudelak izan, eta ez dezazuela

gizonez hain uste ona ukan, non, kontrakoaz ohartzean, haiei heriotza krudela ematera eta zuhauendako halako bizimodu tristea hartzera behartu zaitezten».

Eta Parlamentek, solasaldi on eta luzearen ondoren, erran zion Hircani:

«Ez zaizu iduri emazteki hau azkeneraino hertsatu zutela, eta bertute handiz egin ziola buru?».

«Ez —erran zuen Hircanek—, emazteki batek egiten ahal duen mendreneko ihardukitzea oihu egitea baita; baina, nehork adituko ez zion lekuan egon izan balitz, ez dakit zer egingen zukeen; eta Amadourrek, izutia baino amorosago agertu izan balitz, ez zukeen hain gutigatik alde batera utziko bere egingaia. Eta, honako etsenplu hau gorabehera, ez dut alde batera utziko dudan iritzi sendoa, ezen, osoki maite izan duen gizon batek, edo dama batek maitatu izan duenak, ez duela sekula huts egin aterabide on bat kausitzen, baldin eta hurbiltzea behar bezala egin badu. Halarik ere, Amadour goraiatu beharrean naiz, bere eginbidearen parte bat egin zuelako».

«Zer eginbide? —erran zuen Oisillek—. Eginbidea egitea erraten al diozu bere nagusiaz —zeinari begirune eta obedientzia oro zor dion— bortxaz jabetu nahi duen zerbitzari batenari?».

Saffredentek hitza hartu eta erran zuen:

«Ene anderea, gure damek ganbera edo saletan beren maila atxikitzen dutelarik —gure jujeak bailiran plazer duten bezala jarririk—, gu belauniko egon ohi gara haien aitzinean; dantzara ateratzeko ere beldurrez; eta hain zalu zerbitzitzen ditugu, non beren galdeei ere aitzina hartzen baitiegu; haiek laidoztatzeko hain beldur eta zerbitzatzeko hain desiros gara, non ikusten gaituztenek urrikari baikaituzte, eta maiz abereak baino zozoagotzat gaituzte hartzen, burutik eginik edo ergeldurik bageunde bezala, eta gure dama horiek laudatzen dituzte, zeinen jarrerak hain dira ausart eta hitzak onest, non beldurra, maitasuna eta estimua sortzen baitute haien kanpoaldea bertzerik ikusten ez dutenen baitan. Baina bereiz gaudelarik, amodioa soilik dela gure jarrerren juje, arras ongi dakigu berak emazteki direla eta gu gizon garela; eta, berehala, nagusi andere izena adiskide bilakatzen da eta zerbitzari izena lagun<sup>24</sup>. Honelaxe dio atsotitzak, izan ere:

Ongi zerbitzatzek eta leial izateak  
nagusi bihurtzen du zerbitzaria.

Emaztekiek gizonek bezainbat dute ohorea, eta gizonek ematen eta kentzen ahal diete ohore hori, eta ikusten dute nola pairatzen dugun pazientziaz; baina, horrexegatik, gure sufrimenduak ere merezi du bere ordainsaria, ohoreari kalte egiterik ez baldin badago».

«Ez zara ari —erran zuen Longarinek— mundu honen atsegina den benetako ohoreaz; zeren, jende orok emazteki on erranen balit, eta nik jakin kontrakoa dela, laudorioak ene lotsa emendatu eta areago nahastuko bailuke ene burua; eta, aitzitik, gaitzetsiko banindute eta nik sentitu hobengabea naizela, haien gaitzespina arraitasun bilakatuko litzateke ene baitan; nehor ez baita kontent ezpada bere buruaz».

«Orain, erran duzun guzia gorabehera —erran zuen Geburonek—, iduri zait Amadour nehon izan den zaldunik onest eta bertutetsuena izan zela; eta, izenak alegiazkoak badira ere, uste dut ezagutuko nukeela. Baina Parlamentek ere ez duenez aipatu nahi izan, nik ere ez dut egingen. Eta

---

<sup>24</sup> Jatorrizkoan “amic” eta “ami” hitzekin egiten du jolas; "adiskide" eta "lagun" eman ditugu itzulpenean. (I. O.)

zaude pozik jakinik ezen, uste dudana baldin bada, haren bihotzak ez zuela nehoiz batere beldurrik sentitu, eta ez zela sekula izan amodiorik edo ausartziarik gabea».

Oisillek erran zien:

«Iduri zait egun hau hain alegera eman dugula, non, hurrengoetan honela jarraituz gero, laburtu egingen baitugu denbora gure solasekin. Baina ikusi non dagoen eguzkia, eta entzun abadiako ezkilak, aspaldi ari baitzaizkigu bezperak jotzen eta ez dizuet batere jakinarazi; istorioaren finaren gaineko jakin-mina handiagoa baitzen bezperak entzutekoa baino».

Eta, hori erranik, goititu ziren guziak, eta, abadiara heldurik, han zituzten kausitu beren zain ordubetez baino gehiagoz egonak ziren fraideak. Bezperak entzunik, afaltzera joan ziren, non arratsalde osoan ikasi istorioei buruz aritu baitziren, eta beren memorietako xokoetan xerka ibili ziren, biharamuneko eguna lehenbiziko hura bezain plazenta egiten ahal zuten ikusteko. Eta, pentzean hamaika jokotan ibili ondoren, lotara joan ziren, beren lehen egunari arras amaiera lorios eta arraia emanaz.